

MANUEL LEKUONA

IESU AURRAREN BIZITZA


ERESIDUN AUR-POEMATXOA,
BOST KANTETAN



MANUEL LEKUONA

IESU AURRAREN BIZITZA

ERESIDUN AUR-POEMATXOA, BOST KANTETAN



Narranta se encuentra en trance de "Jazz Rock".
Se le hace necesario por el acoso del enemigo en sus fronteras.

ZIGOR



MANUEL DE LEKUONA

AZKO LITERATURA

LEKUONA TAR MANUEL
IDAZ-LAN GUZTIAK
11. AZKEN-URRATSAK



KARABEREZ BILDUMA
22-A

ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA

**ON MANUEL LEKUONA
ETA BERE TEATROA**

Argitaratze urtea 1993.

Argitarapena ez dago salgai.

Argitaratze honen zuzendaritza:



Legezko gordailua: SS - 728/93

MANUEL LEKUONA: IDAZLANAK ETA MEZU NAGUSIA

Datorren urtean ospatzen da Manuel Lekuona jaio zeneko ehunurtemuga. Hori dela eta, **Antzerti**-k oiartzuar egile honen teatro-lanak argitaratzen ditu, omenaldi eta oroigarri gisa argitaratu ere. Eta sarrera bat izan dezaten antzerkiok, eta geroa ere gogoan, probetxugarriena iruditu zaigu, egilearen idazlanei buruzko ikuspegi oso bat finkatzea, eta idazlanon ardatz nagusia ere markatzea, hobeto uler dadin autore honen ekarri osoa eta, orobat, bere ibilpide luzearen funtsa eta azpiko eragina.

Orrialdeen kopurutik hasiz gero, bost mila eta larehundik gora ditu berak idatzitakoak, hamabi tomotan banaturik. Makinaz idazteak bakarrik ere lanak ditu. Eta zer esanik ez hainbeste gai desberdin, ikasbide eginik, "argi eta garbi" plazaratzeak.

Eraskotakoak ditugu arakatzen diren gaiak: ahozko literatura, eusko-etnografia, arte-izti, kondaira, euskeralogia eta literatur sorkariak. Eta sail hauetako bakoitzean ale lodikotea ezezik, barruan izti edo traktatu bat utzi digu beti, ardatz teoriko bat, tomo bakoitzaren oinarri gertatzen dena. Horregatik lan sistematuria dugu eta hezurdura bat duena; eta bestalde, ardatz hori ian monografikoa ugariz eta zabalkunderako ahaleginez horniturik aurkezten da, gai bakoitzak bere osotasuna duela.

Luze-zabala aipatzen dugunez, azkenik, idazki hauen nondik-norakoa ere ez da ahaztekoa, luzaz arituz eta aldaketa sakonak jasanez landuriko altxorra dugunez. Hirurogeita hamar urteko uzta, lekuek eta garaiek eraginik umoturiko emaitza.

1.- HISTORIAREN APURRA

Azken urteetan, Manuel Lekuona Oiartzuna bildun zenean, urrutitik eta zer-aterako aipatu nion behin, huraxe zeia egokialdi ona bere oroitzapen edo memoriak idazteko, gauza jakingarri askoren lekuko genuelarik. Ez zion ongi iritzi. Ez zen hori bere asmoa, lehengo lanetan jarraitzea baizik, Andoainen egin zuen eran: ikaskuntzetan segi, eta zabalkunde lanetan.

Baina hona non datorkion egokialdi berria, berarentzat oso gogokoa: **Idaz-lan Guztiak** argitaratzea. Izan ere, "Kardaberaz Bazkuna"-k taldearen filosofiari atxekiz - hau da, bazkideen idazlanak argitaratzeko filosofiari -, erabaki zuen Manuel Lekuonaren idazlan guztiak argitaratzea. Eta berak, bazkunaren lendakaria zenak, gogoz onartu zuela esan behar, gerora begira beronen idazkientzat hain garrantzitsua izango den proposamena.

Argitaratze-lanetan ohizkoa zuen apetaz, gogotsu eta erritmo eta abiada azkarrean, ekin zion bilduma honen prestakuntzari. Gustora egin zuen ian. Ale berriren bat iristen zitzaionean, poztu egiten zen lanaren aberastasuna ikusita: "makina bat txilibitu jotzen dittut or nik" esanez; eta

berak egindako lanei erabilgarritasuna eman zitzaiela ikusirik, barrua lasaitu egiten zitzaion, askorengana irits zitezkeela ohartzen zenean.

Autoreak berak asmatua da bildumaren egitura zabala, gaien aukera eta sailkapena. Eta egileak osabetetzen zuenidazprobak zuzentzeko zeregina ere. Testuaren inguruko eginkizunak berak bakarrik bete ohi zituen. Inor zamatzeko beldurrez agian.

Landurik zeuzkan disziplinen arabera, ez zitzaion zaila gertatu eremu nagusiak markatzea. Hala ere, ezin uka horrelako langintza batek eskatzen dituen xehetasunak - hala nola, tomo bakoitzaren sistematzeko kritikoa, tomoen arteko lotura eta berezitasuna zaintzea, aurkibideen arazoa eta abar -, pertsona bakarraren esku ez daudela eskuarki, are eta gutxiago pertsona horrek 85 urte inguru baldin baditu. Hala ere, zailtasunak zailtasun, autorearen ikuspegi eta metodo multidisziplinarrak batasun berezi bat ematen dio idazlan osoari, ikuspegi berau **Idaz-lan Guztiak**-ko tomoetan ardatz eta bilgune on gertatzen dela.

Inprentaritza "Gráficas ESET"-ek egin da, Gasteizko Seminarioan. Eta lanaren garapenbidea bertatik ikusi dugunok, aitortu beharrean gaude bi gizonen izen isila: On Juan Jose Garmendiak argital-kontutan, eta Benito Larraskuetak (?) inprimategiko zereginetan eskainia. Azkeneko hau hamabigarren alea amaitu baino lehen hil zen tamalez. Eta azkeneko alea, berriz, "Industria Gráfica Valverde" etxean argitaratua dugu.

Autorearen familiakoa naizen aldetik eta horregatik hain zuzen, beste aipamen bat ere egin beharra daukat lege onez. Beti dago arrisku horrelako lanak zokoan geratzeko, laguntza bat garaiz izan ez delako. Eta osabaren lanekin beste hainbeste gerta zitekeen, bistakoa denez. Baina, Gipuzkoako Foru Diputazioak itzal bat aitortu zion autoreari, Urrezko domina eta Seme Kutun izendapena emanez. Eta aitormen horien osagarri, noski, laguntza betea luzatu dio liburu hauetara, bilduma gaurkotu eta erabilgarria plazaratu dadin.

Eta orain, autoreak sail berezitan aipaturiko gaiak arakatuko ditugu, hauetako tomo nahiz sail bakoitzaren noiz-nongoak eta iritzi nagusiak, liburuen ardatz eta gurrupiak, laburbilduz eta, adieraziz.

2.- AHOZKO LITERATURA

Hau izan da, behar bada, Manuel Lekuonaren idazlanik aipatuena eta eskertuena. Euskal literaturaren ahozketasunari begiratuta, erabakiorra izan zen egilearen ekarria, hemengo hitz biziaren munduaz, hemengo hitzezko edergintzaz ikuspegi zehatzagoa eskaini baitzuen antropologian, psikologian eta oralitatean oinarrituriko ikuspegia, hain zuzen.

Gerraurrean garaturik eta idatzkiz formulaturik zeukan bere ikuspegi nagusia. Seminarioko eskolen eraginez gurendua zuen arlo hau. Lehen urratsa 1918an eman zuen, ikasturte hasierako mintzaldia **De metrica vasca** burutu zuenean. Gero **La poesía popular vasca**, Bergaran eman zuen hitzaldia, 1930ean, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean. Gaia plazaraturik zegoen iadanik Euskal Herri osorako. Eta azkenik, **Literatura oral euskérica**, 1935ean, Basarrik lehenengo bertsolari-txapelketa irabazi zuen garaitsuan.

Gerrondoan, nahiz eta autoreak hurbiletik jarraitu ahozko literatura, gutxiago landu bide zuen gai hau Calahorran eta Andoainen. Hala ere, Andoainen zeia, 1965ean argitaratu zuen **Literatura oral vasca**, bigarren argitaiburu osoagoa ezbairik gabe. Gauza berri jakingarriak sartzen ditu, adibidez, xehetasun etnografikoak, bapateko bertsogintzaren teknika, teatroari buruzko gaiak, erromantzeak eta abar. Hurbiletik jarraitzen zuen herri-literatura. Ez, ordea, hainbeste ikaskuntzen aldetik behar bada, historiariaren taldean gehiago ari zenez, apeta nagusienaz ari ere.

Azken joaldia Oiartzunen egin zuen, berriro ere ahozko literaturan, batez ere bertsolaritzan arrastoa hartuz. **Bertsolarien pentsamenerritmoa**, 1983, eta metrikari buruzko artikuloak lirateke aipagarrienak.

Bien bitartean, saioak daude, herri-literaturaren inguruan ehoak, Calahorran eta Andoainen zegoenean eginak: **Paralelo entre la pastoral suletina y el teatro griego**, **Problemas que plantea la literatura oral vasca**, 1967, eta **La psicología a la luz de la poesía popular vasca**, 1970.

Gainerako idazlanak zabalkunde mailan koka daitezkeela esan liteke, gehienak behintzat. Dena dela campus lana egin zuen piezak bilduz; metodo egokia aukeratu ere bai ikaskuntzarako, eta disziplina berri baten oinarriak jarri zituen, ahozko euskal literaturaren ikaskuntza berriarenak.

3.- EUSKO-ETNOGRAFIA

Ez da aipamen sonatuena eman izan zion alderdia. Harritzekoa ere ez da eta, sail honetan beraren lagun on Jose Migel Barandiaranek duenez aureskua eta maisutza, zabalki aitortuak gainera, baita Euskal Herritik kanpora ere.

Ez da baztertzekoa, ordea, ez eta urririk eman ere, Manuel Lekuonak alor honetan utzitako ondarea.

Lehenik, **Anuario De Eusko-Folklore** aldizkariaren haritik eta eraginpean. Ordukoak ditu, batez ere, Oiartzungo materiaieak bilduz, Barandiaranek paraturiko inkestei erantzunez tajaturiko idazlanak. **Fiestas populares**, **La religiosidad del pueblo** (1924), **Establecimientos humanos** (1925) eta abar. Eta aipatzekoak toberiei eta ihauteei buruzko lanak, besteak beste.

Aipagarriena, behar bada, Andoainen alor honetan eginiko lana dugu, markarri bat denez bere ikuspegi interdiszplinarrean, Metodologia aldetik aldarrikatu zuen, beharrezkoa zela histori ikaskuntzak zientziako lagungarriez hornitzea, hala nola etnografiaren, gizarte erakundeen argibidez, adbokazioen, monumentuan eta arkeologiaren aberastasunez. Horrelako norabidearen barruan, saiatu zen gai preziagarrienak eskaintzen, gairik bereenak seinalatuz: erakundeak, bideak, artzain eta nekazal kultura, ihauteriak, santuteria, foruak, jaiak, etxebizitza, olezahar eta beste gauza asko.

Folklore-jakintza herri-zientzia zen berarentzat; eta folklore hitzak berekin daraman gutxiespenesko muzina ere gainditu beharra zela zioen, oso errespetagarri denez honelako jakinduria.

Bere **Idaz-lan Guztiak**, 2. tomoa, mundu honi eskainirik dago. Autorea, iekuko eta testigu aparte ezezik, biltzaile eta gordetzaile ona ere izan zen etnologi gauzaten. Jakintza iturriaren munduan oparo erabili izan zuen etnologia, lan-metodo bezala erabili ere hainbat ikaskuntzetan. Eta oso gogoko iana, eta giltzarritzat zeukana, **Euskalerria Historiaren sarreran** izan zen, bere ikuspegi etnografikoaren ardatza, tomoaren ateburuan datorren lana.

4.- ARTEA

Ahozko literaturarekin batera, Arte-jakintza izan da aipurik eta sonarik beteenak ekarri dizkion bigarren kultur saila. "Es quizá en el expertizaje artístico donde ha conseguido sus mejores triunfos" (Fausto Arocena, **Del Oyarzun antiguo** liburuko hitzaurrean).

Lan hau aspalditik hasia zuen, Don Mateo Mujikaren ikustaldi pastoraletan idazkari izaten zenez, eta arte-gauzak eta aberastasunak ikuskatu eta kontrolperatzen zituenez, parrokiako altxor artistikoa zaindu asmoz. Eta honeia oso ongi ezagutzera iritsi zen, zer zegoen lekua den lekuan, eta zer zen balioko bazterretan.

Idazten, ordea, Andoaingo aldian egingo zuen ahaleginik sutsuena, arte-jakintzaz zuen ikuspegia idazkiz gauzatzen eta formulatzen. Egia da, bai, Calahorran eman zituela lehen fruituak. Baina Andoaingo urtealdian du emanaldirik bikainena, arteari buruzko idazkietan.

"Egan"-en hasi zen arteari buruzko erreportaiak argitaratzen. Bestalde, Ama Arrazoiarekin herriz-herri ibili zen, gidatzaile bezala ibili ere, Asun **El Renacimiento en Gulpúzcoa** deritzan tesi doktorala prestatzen ari zela. Eta aldi honetan dabil autorea Don Manuel Labordarekin batera ere, lekuan lekuko arkeologi eta geologi gauzak ikuskatzen. Dena dela, artelanei buruzkoak Andoainen eginikoak dira lan asko.

Bereziki aipatzea merezi du, ordea, **Arte-izti: estetika** deritzan idazlanak. Bere teorizazio-lana hor utzi digu egileak. Funtsezko liburu nagusi bat ez zigen utzi, baina lan hori har daiteke bere oinarrizko ikuspegiaren agerkai bezala. Hor dago, batez ere, arteko irakaslearen eskolako mezua.

Aintzinateko artegintza plastikoari buruz dugun momumentu eskasiak ez zuen etsipena eraman, baizik eta inongo azterren guztiak biltzera; eta bildutakoaz baliaturik, Euskal Herriko arte bisigotikoaz, erromanikoaz, gotikoaz eta bereziki ernazimenduaz ikaskuntz zorrotz eta zabalak eskaintzera iritsi zen gure arteaz ardura duten kulturzaleentzat.

Arte-edergin euskaldunak gaia ere jorratu zuen, euskal izena daramaten artistak, Zurbaran, Berruguete ete Goya beren euskal jatorrian agertuz; eta hemengo arginak, eta bertako artista bikainak, batez ere Antxieta, euskal koordenadetan aurkeztuz.

Informazioaz eta sentiberatasunaz gainera, sena zuen Manuel Lekuonak arte-gauzetarako. Eta zeresanik ez, gai honetan zuen aitoren betea euskaldunen artean. Liburu eitzezko gauza sistematurik ez zigun utzi edergintzan. Baina utzi zuena nahikoa da arte plastikoen ezagutzan itzal bat izan dezan.

5.- KONDAIRA

Historilarien hildotik Oiartzunen, bere jaioterrian, eman zituen lehen urratsak. Serapio Mujika ari omen zen Oiartzungo artxiboa antolatzen, eta osaba ere bai, apaizgaia zela, han tartean. Eta orduan egin zuten ikustaldi bat Errengako kromlechak ikustera, Arantzadi ere berekin zutela.

Artxibolan horietan ekin zion Manuelek Oiartzungo historia gauzatzeari, berak eginiko histori liburutik luzeena, noski. Eta liburu honen azken bulkoa eta eragina honela izan zen. Gipuzkoako Diputazioak lehiaketa bat antolatu zuen, herri bati buruz idatzitako historiarik onena saritzeko. Egokialdi hartaz baiiatu zen, pentsatuz zail izango zela Oiartzungo historia idatzi zezakeena gauetik goizera aurkitzea, eta ongarri ere bazela herritarrontzat horrelako agerpen historiko bat gerokoentzat uztea. Eta haia egin zuen.

Bere apeta izaten zen lekuan lekuko gauzak ezagutzea. Eta zer esanik ez, artxiboek zer zioten miatzea eta aztertzea. Lasarten ezkuruan zegoelarik, eta Calahorran erbestean aurkitzen zenean, lanik nagusia artxiboak harrotzen izan zuen. Lasarten ez zezakeen besterik egin, itxitan zegoenez. Eta Calahorran ere, nahiz eta ibilpidea libre eduki, gotzaintegiko liburutegian ematen zituen ordurik gehienak.

Garai honetakoak ditu, Lasarteko elizaren eta konbentuaren historiak, Calahorrako katedraleko eta elizetako historiak, dena artxibotako irinez oretua. Eta **Cartulario de la Catedral de Calahorra, referente al País Vasco**, XI mendetik hasi eta hustutzen duena, gure kultur jakintzarako xehetasun interesgarriak ekarriz.

Ahozko iiteraturan, etnologian eta arte-lanetan bezala, historian ere utzi digu bere kriteriologia berezia. **"Escollos de nuestra historiografía". Normas de buen sentido para nuestros historiógrafos**, 1971koa. Gogor salatzen ditu historiariaren beaztopa nagusienak: "hemen hasten da historia, ez dago dokumentua beste zientzi iturririk historian, noiz Gaztelako etxean gu, eta erakundeen eta abdikazioen lekukotasuna...

Eta dibulgazio lana ere aipatzeari beharrezko derizkiot, batez ere Andoaingo urtealdiari begiratuta.

Herrietako ehunurtemugak, hala nola Hernanin, Lasarten, Usurbilen, Arrasaten, Pasai San Pedron, Zestean, Azpeitian,... Ihardunaldia jantziz, baina batez ere lekuan lekuko historia erakutsisiz, ondareaz jendea jabetueraziz, lan monografikoak utzi zizkigun argitaraturik.

Sailik luzeena esan liteke historiaren hau dela Manuel Lekuonaren idazlanetan. Eta etxe-batean ikerlan hauetan aritu zela Lasarten eta Calahorran. Ez da aipatuena Manuelen Kultur ekarri pertsonalean. Hala

ere, utzi zuen bere arrastua, batez ere kriteriologian, metodologian eta gai jakinetan.

6.- EUSKERALOJIA

Izen hau daraman alean hizkuntzari buruzko lanak datoz, bost ataletan banatuak: didaktika, hizkuntzaren problematika, kritika eta etimologia. Gai hau izan zen berak espezialitate modura Gasteizko Seminarioan eman zuena, euskararen katedra zenez berea.

Euskararen inguruko arazoez asko idatzi bazuen ere, eta eras-kotako gauzei buruz, ez dirudi, beste alorretan bezala, hezurdura-lan bat utzi zuenik, baizik eta aldian-aldiko eskakizunei erantzunez eginak direla bere emanaldi idatziak. Zehaztasun mailan mintzatzen da behin eta berriz, ikuspuntu ugari markatuz, ohartaraziz eta erakutsiz. Baina ez digu utzi lan sistematu bat, ordenaturiko ikuspegi zabal bat.

Eskoletako eskakizunei erantzun beharraz gainera, lan horien giarrean badago beste erakunde bat, Manuel Lekuonaren hizkuntzari buruzko lanetan zerikusia izan zuena: Euskaltzaindia. Erakunde honetan eginiko eta aurkezturiko lanek eraginik sortua da hainbat puntu aztertzekeo eragina.

Baita ere, kontuan eduki behar da orduko argitalpenen bulkoa, txosten hauetan erreportai, aurkezpen eta kritika egiten denez, idazki berrietan euskarari buruz agertzen diren ikuspuntuak eta teoriak neurtua eta balioztatuz.

Lan asko baditu ere atal honetan sartzen direnak, gauza jakingarri bezala aipatuko nuke, zein izan zitekeen alor honetan berak modu berezian estimatzen zuena. Eta zera da: "Euskerazko deikia". Gasteizko Seminarioan, "Universidad Teológica del Norte de España" izenekoan, "Doctor Honoris Causa" izendatu zutenean, bere mintzaldirako gai hau bera hartu zuen, hain zuzen. Bazuen gairik aski, zeremonia hartarako askoz ere egokiago zenik. Baina bera euskarazko deikiaz mintzatu zen. Horretan da sinale, noiako estimua ekartzen zion egileak lan jakin honi.

Eta lan hauetarako izan zuen garairik indartsuena, baliteke Calahorran egon zen denborako emanaldia izatea. Ordukoa du orain aipatutako lana. Eta ordukoak onomastikako zenbait etimologiari eskainitako idazlanak, nahiz eta eztabaidagarriak gertatu gaur, beti ere sakontasun bat eta irizpide-sendotasun bat erakusten dutenak.

7.- LITERATUR SORKARI

Hau litzateke aurkeztu beharrezko azken atala. Baina gai honetan emanik daukat orain baino lehenago ikaslan bat "Manuel Lekuonaren iiteratur kreazioa" deritzana, eta bere **Idaz-lan Guztiak**-ko 11. tomoan argitaraturik dagoena. Hara igortzen dut irakurlea, hemen argitalpen honi dagozkion zenbait zertzelada gehituz.

Antzerkigintzari dagokionez, izenburu hauek ditu egileak argitara emanak: "Ehun dukat" (1935), "Iesu Aurraren bizitza" (1948), "Zigor"

(1963), eta, itzuliak Barbierren "Sorginak" (1932), Lartzabalen "Okiiomendi alkate" (1952) eta Mayi Eiissagaray-ren "Ameriketako osaba" (1965).

Jatorriz bereak dituen antzerkiak arrakastatsuak izan direla ezin uka. **"Iesu Aurraren bizitza"**-k gutxienez bost edizio izan ditu, eta askotan eman izan da, batez ere ikastola eta katekesi biiguretan. Poema hau Lekeitiko Olerti-jaietan saritua izan zen, 1936.go lehiaketan. Jesus Hauraren ebanjeliotik ari zaigu gehienik, agerraldiak eguberrietako estanpatxoan eittea hartzen dutela. Gaietan idilikoa dugu, kontapoesia beste moide guztien gainetik jartzen duena; estilazio prozedurak, dekorazi-oierkiaren erakertasuna; aipamenei edukin kulturala eta klitxe herrikoia tartekatzen dituena. Guzti hau berezia da uste dugu Manuei Lekuonak eskaintzen digun antzerkitxoan.

Bigarrenik, **Eun dukat** dugu aipatu beharra. Bi aldaera izan ditu idazki honek: bata, "Juventud Integrata"-rako egina, on Inazio Maria Etxaideren eskabidez egin ere. Eta bigarrena, anaia Martinen iaguntzaz moldaturikoa, batez ere idazkiaren bukaera aldatuz. Artzain giroko antzerkia sortzen digu. Eta saiakera jakingarria gertatzen da musika aldetik, pasarterik nagusienetan oso garrantzizkoa delarik erabiltzen den musika-mota, eta orduko koru ederretaz baliatuz antzerkia osatzen eta idartzen dela. Herrikoia du gidoia, herrikoia pertsonaia, eta herrikoia ingurugiro osoa. Antzerki soila baino gehiago da, batez ere oiantzuarrontzat sustraiei agerpena.

Hirugarrenak, **Zigor** izeneko opera sonatua. Luzaz arituz eginiko iana hauxe. Zinkunegiren gidoia oinarri, Eskuderok sortzen zuen egitura eszenikoa, pertsonaien egitekoa eta guzti horri zegokion musika. Azkenik Manuei Lekuona zetorren guzti horri hitzezko jantzia josi eta jatzeko. Berea zen bertso-forma ematea; lekuei, une historikoei eta ekintza jakinei kuitur ezagutza on bat eranstea; pertsonaiei, gertakariei benetako ñabardurak ematea; gidoiaren eta musikaren maila abstraktogoari testugintza konkretu eta bizia ezartzea. Esku ona agertzen du Manuel Lekuonak honelako bitxiari fin eta korapilotsuan.

8. AZKENA

Nahiz eta sail asko landu zituen Manuel Lekuonak, hala ere bada beti hari bat, funtsezko ikuspegi bat, aniztasunari eta ugaritasunari batasuna ematen diona. Eta gaidetu ere galdetzen diot neure buruari zertan datzan lan guzti horren gorpila, non dagoen hainbeste gauza oinarria eta guna.

Ez zen oraiista bakarrik, etnografo, artelari, historilari, euskalari edota idazle bakarrik. Guzti hori bazen, baina goragoko sintesis batean bildua. Entzuten dudanean hizkuntzaiari zela, etnografoa zela, literatoa zela eta abar, ez naute asetzen horrelako epiteto zehaz hartzaileek. Nik uste kulturari zela, **kulturlari euskalduna**. Eta esango dut zergatik.

Lehenik, euskal kulturaren lekuko ohartua eta apartekoa izanda. Harentzat garbi zegoen hemen bazela medio etniko bat, hizkuntza bat, arkeologia bat, literatura bat, historia bat... Eta errealitate hori arretagarria zela, eta hori zela gurea.

Bigarrenik, ez dagoela ez inongo eta eta inolako kultura bat ikasterik bertako testuingurua ezagutzera ez bada. Bera bizi zen herria Euskal Herria zenez, erabaki zuen ikerketak Euskal herriaz egitea. Honetan J.M. Barandiaranen bide beretik dabil.

Hirugarrenik, urteetako lana burutu ondoren, iritsi da gure inguruko mundua maila batian ezagutzera, eta gure artekoek bereganatu duten mundulekuntza ere bai, hau da gauzak ikusteko molde euskalduna. Eta erakutsi dizkigu gauza berriak, eta gauzak ezezik ikuspegi berriak ere bai, usarioa birrinterpretatuz, ikuspegi zientifiko gauza asko arakatzuz.

Eta kultura alderdiko eta pusketan ulertu beharrean, osotasun batean ikusten erakutsi digu gauza ez gutxitan. Batzuentzat gutxi landua, galdorian eta baztertua ikusten den kultur alderdiak, beste garrantzi bat, beste entitate bat hartzen du, bere osotasunean ikusita. Ahalegindu zen erakusten, gizon-emakume kultuak izan gintezkeela hemengo kultur erroetan zainak boteaz, kanpoko kultura orotarikoa eta bertako berezia elkarren osagarri bihurtuz.

Eta hau, ez hizkuntzalaritzan bakarrik, edota etnografian, antropologian, edota historian. Baita literaturan eta artelanetan ere: badago zer ikasirik, badago edertasunik, badago kultur agerkari ederrik.

Horregatik niretzat, Manuel Lekuonak utzi digun ondarea, idazkien araberakoa alegia, herri-kultura aurkitu izana da, aztertu izana, sailkatu izana, balioztatu izana. Eta erakutsi ere bai, batez ere hemen bizi behar dugunoi, gaurregun kulturdun izaten, maila sustraituan eta maila gorenean kulturdun izaten bertako munduari eta bertako mundulerkuntzari atxekimentua edukiz lortzen dela egokienik.


*Kulturdunak izan, baina euskaldunak; euskaldunak izan baina kulturdunak, gure ingurune eta testuinguruaren arabera. Hemengotik hasiz eta hemen bukatuz. Honelatsu uiertzen dut Manuei Lekuonak bere **Idazlan Guztiak** liburuetan uzten digun funtsezko ondarea: euskal kulturaren ezagutza landuago eta ohartuago, berak landuriko gaietan.*

Juan Mari LEKUONA

MANUEL LEKUONA

IESU AURRAREN BIZITZA

ERESIDUN AUR-POEMATXOA
BOST KANTETAN



ESKEINTZA

Laborde ta Auzmendi´tar
M^a Elenatxori, ta Laborde ta
Auzmendi´tar Blankatxori eskeiñia.



PROLOGUS

Elixebatxu, txingo, txingo, txingo,
nora zoaz, brai, brai, brai?

- Maitearengana, txingo, txingo, txingo,
maitearengana, txingo, txingo, bai.

- Elixebatxu, txingo, txingo, txingo,
nun dezu maitea, brai, brai, brai?

- Goiko Kameran, txingo, txingo, txingo,
goiko Kameran, txingo, txingo, bai.

- Goiko Kameran, txingo, txingo, txingo,
nor bizi da, bada, brai, brai, brai?

- Goiko Kameran, txingo, txingo, txingo,
Elizatxua dago, txingo, txingo, bai.

- Elizatxuan, txingo, txingo, txingo,
nor bizi da bada, brai, brai, brai?

- Elizatxuan, txingo, txingo, txingo,
Kutxatilla dago, txingo, txingo, bai.

- *Kutxatillatxuan*, txingo, txingo, txingo,
nor bizi da bada, brai, brai, brai?

- *Kutxatillatxuan*, txingo, txingo, txingo,
IESUTXO bizi da, txingo, txingo, bai.

.....

- Elixebatxu, txingo, txingo, txingo,
nora zoaz, brai, brai, brai?

- IESUTXO'rengana, txingo, txingo, txingo,

- Gu ere zurekin, txingo, txingo, bai.

I KANTUA

DEIA

Iesu Aurraren bizitza goaz atera esaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
Iesu Aurraren bizitza goaz atera esaten.

Eta auxe lenen:

NOLATAN SORTU ZAN NATZARET´EN

Zeruetako Santu guztiai diegu eskatzen
lagun gaitzaten
ondo kantatzen.

SORTZEA

Orain esango degu
Iesutxo´ren bizitza,
abesti politik entzun
nai duanik balitza,
abesti politik entzun
nai duanik balitza,
orain esango degu
Iesutxoren bizitza.

- Yoakin eta (i) Ana,
alaba nun dezuten?
- Ez dagola, ez, etxean,
ez dagola, ez, emen.
Yerosolim´en dago
gure Yabe yauresten...
Ez dagola, ez, etxean,
ez dagola, ez, emen.

Simeon aiton zarra
dago Yerosolim´en:
- Miremtxu nexka polita
ikusi dezun emen?
- Uso txuri batek zizun
emen izena Mirem...
Orain ezkonberri dago
gaxoa Natzalet´en.

Yosepe gizon ona
bizi da Natzalet´en:
- Nun dezu zure (i) usoa?
nun dezun zure Mirem?
- Lanean gaxotxo,
lan ta otoitz egiten,
Mesias Salbatzallea
etor dedin lenbaitlen.

Mesias Salbatzallea
ba´dator ba oraintxen:
Yaunaren mandataria
orain dator zeruren:
- Agur, agur Miremtxu!
agur, bai, agur, Mirem!
Zu izango zera (i) Ama
Aitaren Semearen.

- Nola diteken ori,
ori nola diteken?
- Goikoak emango dizu
bere itzal ta arnas goien
Birjin izango zera
beti Ama izan arren.
- Birjin ta Ama nadilla
dizun bezela. Amen.

II KANTUA

DEIA

Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten.

Ta auxe bigarren:

NOLA JAIO ZAN BETLEHEM' EN

Zeruetako Santu guztiai diegu eskatzen
lagun gaitzaten
ondo kantatzen.

JAIOTZA

Dan, dan-dan... Maria ta
Yosepe Belen'en
- Kras, kris-kras ... etxe gabe
Gabon izan arren.

- Dan, dan-dan, nor da emen
jauregi onetan?
- Kras, kris-kras, zein da deika
gauko amarretan?

- Dan, dan-dan eske gabiltz
gauko ostatuaren.
- Kras, kris-kras, ostaturik
ez dago ba emen.

- Dan, dan-dan, nor da emen
etxetxu onetan?
- Kras, kris-kras, zein da deika
gauko amaiketan?

- Dan, dan-dan, beartsu bi;
edeki eiguzul
- Kras, kris-kras, aberats bi
artuak ditugu.

- Dan, dan-dan, jo dezagun
estalpe onetan.
- Kras, kris-kras, sar gaitezen
ortxen illunbetan.

Dan, dan-dan, amabiak
Belen'go torrean.
- Kras, kris-kras, aingeruak
zeruko atean.

«Dan, dan-dan, aintza goian
ta pakea emen.
- Kris, kris-kris, Iesu Kristo
jaio da Belen'en».

Dan, dan-dan, aingeruak
dan-dan, danboliña.
- Kris, kris-kris, artzaitxoak
kris-kris, kriskitiña.

Dan, dan-dan, bart Belen'en
eta bart Belen-en,
- Kris, kris-kris, jaio zaigu
Iesutxu Natzaeren.

Kris, kris-kris, jaio zaigu
Iesutxu Natzaeren...

Dan-danok sar gaitzala
Berak zerura. Amen.

III KANTUA

DEIA

Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten.

Ta au irugarren:

NOLA ERREGEAK GURTU ZUTEN

Zeruetako Santu guztiai diegu eskatzen
lagun gaitzaten
ondo kantatzen.

ERREGEAK

Trakatan, trakatan iru Errege
trakatan, trakatan, Belen'era,
Belen'en jaio dan Iesu Aurtxoa
trakatan, trakatan, jaurestera.

Beltxor'ek, trakatan, zaldia
beltza;
Kaxpar'ek, trakatan, zaldi gorri;
trakatan, trakatan, Baldaxar zarrak
zaldia, trakatan, txuri-txuri.

Trakatan, trakatan, izarra dute
ain bide luzean gidaria;
trakatan, trakatan, Yerosolim'a
oraintxe eldu dira ia-ia.

- Herodes yauna, nun dan
Errege Natzaren?
- Zuek nai dezutena,
erregerik onena,
ea dan Belen'en?...

Barruan Maria ta
Aur maitagarria;
irurok auspezturik
ta kutxak zabaldurik
eskeñi berria.

Herodes azal zuri,
barren-beltz gaiztoa!
Itz leunak mingaiñean,
bai, baiñan biotzean
zorroztu aiztoa...

Beltxor'ek urre gorri;
Kaxpar'ek kekiña;
Aurak Baldaxar'ena
onetsi du geiena:
mir-ale min-miña.

Trakatan, trakatan, izarra berriz
len bezain argi ta ditzizari,
trakatan, trakatan, Belen'era arte
bidezko pozkille ta gidari.

Trakatan, trakatan, iru Errege
txakatan, trakatan, Sorkaldera,
Iesu jaio dala ume guztiai
trakatan, trakatan, esatera.

Etxe baten gañean
izarra gelditu...
Etxearen ttattarrak
ta ango ez ta bearrak
nola ez arritu?

Iesu jaio dala ume guztiai
trakatan, trakatan, esatera,
ta txintxo diranai zapatatxuan
jostallu politak ematera.

IV KANTUA

DEIA

Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten.

Ta auxe laugarren:

NOLA EJIPTO´ RA IGESI ZUTEN

Zeruetako Santu guztiari diegu eskatzen
lagun gaitzaten
ondo kantatzen.

EJIPTO´ RA

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
 Traka, traka Ejipto´ra bear degu jon jon...
 Atzetik gizon gaiztoak
 zorrotzik beren aiztoak...

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
 Traka, traka, axkar, axkar bear degu jon jon...
 Umetxoen garraisiak
 bai estu eta larriak!

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
 Traka, traka, bixi bixi, bear degu jon jon...
 Ama gaxoen negarrak
 aizkatu ditu baztarrak.

.....

Bidean ereille bat... – – Aizazu, gizon:
 Ejipto´ra bidea – nundikan dagon?
 – Atozte, atozte; – emendik zuzen-zuzena...
 begira, begira, – lurgorri ortan barrena...
 – Goiko Jaunak ordaindu bizitza...
 – Bera da ordañik oparoena.

.....

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
 Traka, traka, Ejipto´ra bear degu jon jon...
 Atzetik gizon gaiztoak
 zorrotzik beren aiztoak.

.....

Bideko ereillea – orra segari;
 orain erein azia – du gari gorri...
 – Gizon, gizon: – igaro da emendikan
 aur txiki batekin – gaur senar-ematzerikan?
 – Bai... ni ereiten ari nintzala...
 – Ene! Guazen etorri-bidetikan.

.....

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!
 Traka, traka, Ejipto´ra bear degu jon jon...
 Txoriak goian kantari,
 txiruliru-li, txiruliru-li...
 ongietorri Miren-en Semetxoari.

V KANTUA

DEIA

Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
pekatariak beti gogoan eduki dezaten,
Iesu Aurraren bizitza gabiltz negarrez esaten.

Ta auxe boskarren:

AURTXOA NOLA ZAN JOSTATUTZEN

Zeruetako Santu guztiai diegu eskatzen
lagun gaitzaten
ondo kantatzen.

GURUTZEA

«Nun dago, Amandrea,
zerorren Semea,
zerutik iatsiriko
geure mesedea?»

- Ez, Amatxu laztana,
ez kapelatxurik;
are ikusiko nozu
arantzaz yosirik...

- «Or ogiko munatxuan
oñez ortotsean,
keriz emoten deutson
arantza-ganean».

- Zertako dozuz, maite,
egur latz bi orreik?
Eutsizuz yostalluok,
yostallutxu oneik.

.....

- Zergatik zagoz, maite,
oñez ortotsean?
Eutzo zapatatxuok;
yantzizuz soñean.

- Ez, Amatxu laztana,
ez yostallutxurik;
are ikusiko nozu
kurutz baten illik...

.....

- Ez, Amatxu laztana
ez zapatatxurik;
are ikusiko nozu
oiñok untzaturik...

Egur areikaz Iesu´k
kurutz bat egin-dau...
Mirem´ek ikusirik
biotzean min-dau.

- Zergaitik zagoz, maite
olan, burutsean?
Eutzo kapelatxua;
yantz buru-ganean.

-«Nun dagon, Amandrea,
zerorren Semea,
zerutik iatsiriko
geure mesedea?»

- «Or goiko munatxuan».
billuts-bilutsean,
arantz ta untzez yosirik
ILLIK KURUTZEAN.

BUKAERA

DEIA

Orra Iesu´ren bizitza kanta bertso berrietan
entzun dezaten pekatariak Euskalerrietan,
pekatariak entzun dezaten Euskalerrietan,
orra Iesu´ren bizitza kanta bertso berrietan.


Aintza Berari
zeru goietan!



MANUEL LEKUONA

UME-KANTAK

Itzaldi, Ernani'ko "URUME" Ikastolak antolatuak
1976'gn. Epaillak 24 Erriko Etxean.



AUR-KANTAK

Jaun-andreok:

"Aur -kanta eta aur-kantaren garrantzia". Orra or nere itzaldi onen gaia. Ez neronek aukeratua; bestek eşkatua baizik. Bañan nik pozik aztertuko dedana. Bai bait dago gai ontaz zer-esanik asko, eta, bear bada, baita zer-zuzendurik ere. Gauza aundirik ez baño...

* * *

Izan ere, norbaitek uste lezake, aur-kanta, xinglekeri bat dala, nolanai egin litekean bertso-xorta, ezer sustantzizko gauzarik esaten ez duana, eta orregatik, ez aztertzerik, ezta jaramonik egiterik ere merezi ez duan xinglekeri bat ...

Ola mintzatzea, bai, izan litekeala xinglekeria. Aur-kanta, gizonaren historian, ori baño zain eta zuztar luzeagoak dituan gauza da. Luzaroko urtetan, Erriaren barrunbean, ezarian-ezarian, konturatzeke egosi eta mamitu dan sorkaria. Gogo-sorkaria. Espiritu-sorkaria. Bere legeak dituan giza-lana; lege oiek begi ernez aztertu bearrekoak dirala ezik; begi ernez eta maite-begiz...

Gero ikusiko ditugu, pixkatxo bat bederenik, lege oiek.

Bitartean, orra señalatu, gai ontan izan diteken iritzi okerra: umeen kantak "umekeriak" dirala, ezer balio ez duten gauzak dirala" iritzi okerra.

* * *

Eta oriangotz kantaren beraren muña aztertzea gerorako utzi-ta, ikus dezagun astirotxoago ume-kanta, bere giroan, bere inguruan, bere historian.

KANTA TA JOLAS

Ume-kanta, beti ere, ume-joku batekin alkatua ikusten degu.

Izan ere, ume-jokuak ez dira ari-utsekoak, jardun-utsekoak; kantatuak izan oi dira, kantudunak, beren letrarekin eta beren melodiarekin; melodi-melodia, edo-ta lelo semitonatua bederenik.

Eta, ondo begiratzen badiogu, jokuak berak aurretik beste gauza bat eskatzen bait du: aukera, elektzioa: lagunen aukera batez ere, eta baita lekuarena ere. Eta aukera ori kantuaeren bitartez egiten da...

Umeen jostaketak – "jolasak" Goierrian esaten dan bezeia – geienean – beti ez badira – "zein-geiagokako" jokuak izan oi dira; zein geiagoka, bi sailletan, bi bandotan; eta bi saillak egiteko "zein zeñekin", "zein ze sailletan" suertez ateratzen da; eta – ontan dago kantaren garrantzia, eta ez txikia – kanta baten bitartez osatzen dirala saillak, kanta baten bitartez egiten da bakoitzaren lagunen aukera. Aukera egin ondoren, danak errespeto aundiz errespetatuko duten suertea; gustokoa dala edo ez dala, danok errespetatuko dutena... Eta orra or – diot berriz ere – ume-kantak duten garrantzi bat, inportantzi berezi bat: umeai gauzak gizonki, demokratikoki egiten erakusten diela; otsi iritzi asko diranean, gauzak arbitrajez egiten erakusten diela, suertearen arbitrajez, bañan suertea kantak erabakitzen dualarik... "Ume-kantaengarrantzia" esan degunean, norbaitek pentsa bait lezake garrantzi pedagogikoa aipatzen degula; "pedagogikoa", otsi memori-oroimena edo berdin ritmoaren sena ere umeeetan bizkorrerazteko zerbait, alegia. Garrantzi ortaz gañera kantari beste garrantzi bat ere aitortu bear bait zaio: demokrazi-eziketarako garrantzia...

* * *

Guztiok gera gauza onen testigu. Guztiok jolastu izan gera umetan, eta guztiok daukagu gogoan, nola kantuz erabakitzen genduan, bakoitza zein salletako izan.

Onela bait zion kanta oietako batek, arruntenak:

Don, Don, irten;
sakati fuera.

Eta beste batek:

Don, Don, kandel;
Barriola, Barriola.
plixt!

Beste batek beste onela bait zion:

Arriyola, Briyola,
etxala, kamala;
bito-bitoria,
bringun-brangun
plixt!

Bat dala, bestea dala, nolanai-dala, ume danak errespetatuko duten suertearen formula.

JUSTIZI-SENA UMEETAN

Olako formulak umeen artean izateak – jolaserako olako aukera-bideak izateak, alegia – umearen berdintasun-sena, *justicia distributiva* esango gendukenaren sen-instintioa adierazten digu garbi-garbi. Bañan *justicia distributivaz* gañera baita beste sen-instinto bat ere: eta ez ain txarra: aukeramen-sena. Ikusiko degu bereala.

Burrukarako – konpetentziarako – sena, gizonarekin berarekin batean jaiotzen dala esan ditek, gizonaren biotzean. Eta burrukarako senarekin batean, beste sen bat ere: jauntxo-sena, agintari-sena; eta oiekin batean baita beste bat ere: aukeramen-sena, partido-sena: "ni jauntxo onekin", "ni onen alde", "ni onen fabore"; eta "ni, berriz, beste onekin": aukeramen-sena, alderdi-sena.

Umeen jolasetan ere berdin gertatzen bait da; aldezturitik bakoitzak bere aukera egiña euki oi du bere baitan; bañan jolasa eratzean gerta bait liteke nai zuten danok alderdi batean ez sartzea, ez kabitzea; orduan, bakoitza zein alderdiko izan, arbitrajez erabaki bear... Umeak beren sen jatorrez arbitraje ori zeñen eskutan uste dezute uzten dutela? Kantu baten eskuetan: formula kantatu baten eskuetan. Ori da, arestian esan degun "Don, Don Kandel"en arrazoi-bidea. Kantak erabaki dezala... Eta, leen ere esan degu-ta, umeak kantaren arbitrajea, txintxo-txintxo – naiz ta pena aundiz – txintxo-txintxo errespetatuko dutela, demokrazi-sen eder-eder baten barruan.

Kanta izango da, beraz, arbitro, kanta juez demokrazi-joku ontan.

* * *

Gauzaren egiteko modua bera, danok ezagutzen dezute.

Jostatu nai duten danak, korro bat egiten dute. Buru egin oi duanak – beti ere izaten bait da norbait, naita edo nai-gabe, jauntxo ibiltzen dana – buru egiten duanak asten du kanta, kantaren silaba bakoitza, lagun bakoitzari "tokatzen" zaiola (*Don Don Kan-del*) eta azkeneko silaba (plixt) tokatzen zaiona, bando bateko izango da; eta bigarren aldiz kantatuta, azken-silaba tokatzen zaiona, ura beste bandoko, etab. etab. lagun guziak pasa arte. – Eta guzti ori ain zuzen eta ain zintzo, ez bait da zintzoago egingo, ezta erri-basoetan udazkenean egiten dan erriko "suegurraren suertea" bera ere –.

* * *

Nere itzaldi onen izena – leen ere esan det-eta – gutxi-gora-beera onela da: "Ume-kanta eta ume-kantaren garrantzia". Orra, bada, or, ume-kantaren garrantzi bat, eta ez txikia, kantaren beraren barruko izaeran sartzen ez bada ere, kantaren beraren axaletikako gauza gertatzen bada ere. Gaurko ume-jolas demokratikoaren bidez, bigar egin bearko duten beste "giza-jolas" demokratikorako iadanik eta dagoneko prestatzea ... Garrantzi txikia, axaleko garrantzia, bear bada; bañan emen

aipatzea egoki zana, umeen "betiko mundu txikia" ezagunerazi nai liguken gure gaurko itzaiditxo ontan.

NORK SORTU?

Egin dezagun urrats bat aurrera.

Nork sortu du ume-kanta? ume-kanta beti "ume-kanta" izan ai da?

Nolanai-dala, ume-kantaren barrua bear bezela ezagutzen duanak, nekez sinistuko du, olako gauza bat umeak sortua danik. "Olako gauza bat"; gauza arrigarri ori; "arrigarria", gero ikusiko degun bezela.

Eta, izan ere, ez bait da umeak sortua; ezta, "gizon elduak umeentzako sortua ere". Garbi-garbi ageri danez, gizon elduak – eta emakume elduak – "berentzako" sortua da" beren entretenigarri noizpait sortua, eta gero, gizon elduak baztatu zutenean, umeak berentzako artua, eta, berek dakiten bezela, gaur arte eukia, leen aundien entretenigarri izan zan bezela, orain txikien entretenigarri izan dedin.

Ikusiko degu.

ANDRE-SALTO

Neretzat arrigarri izan da beti, "Andre-salto" deritzan jolas bat ume-jolasetan arkitzea' umeak egiten duten jolas-jostaketa bat, ain arrunt eta ximplea, gaur umeak berak ere, ia aaztu bait dute; bañan bere izen jatorra ori bait du, "Andre salto".Eta izen orrek agertzen digu, arestian esan deguna: ez dala umeentzat sortutako jostaketa, Andreak berentzako sortua baizik.

Ez dezagun aaztu, ordea, "Andre" itz orrek bere jatorriz esan nai duana: gaur edozein emakumerentzat esan oi dan arren, jatorriz, Andreak, ez edozein emakume, *Señora* baizik esan nai duala; "Sí, Señora" esateko, "Bai, Andrea" esaten bait da, "Sí, Señor" esateko, "Bai, Jauna" esaten dan bezela; eta, neurri ortan, "Etxeko Andrea", "Etxeko Jaunaren" pareko da.

"Andrea", emakumeen malladian mallarik gorenean dagon itza da; mallarik, kategoriarik gorenean... Eta, ala ere, "Andre-saltua" gure artean jolasik xume ta arruntena izan da – bere egiteko moduan malezi-apurren bat leen izan zezakean arren, gero-ta salto goragokoa egin bearrekoa bait zan, gonak apur bat jaso bearrekoa, alegia – ; nolanai-dala, jolas xume, arrunta, bañan gure erririk gorengoenetan iñoiz, lgande-arratsaldeetan poz batean egingo zana...

* * *

Zuetako batek baño geiagok ikusiko zenduten, nexka koxkorrak nola egiten duten oraindik ere, beren jolas ori beren jolas-lekuetan.

Bi nexka – kantuz "suertea" botata, "pago" gelditzen diranak – exertzen dira lurrean, aurrez-aurre, bi oñak elkarren kontra dituztela; eta gañerakoak, illaran, saltoan pasatzen dira alde batetik bestera, exeritakoan oñak ikutu gabe; ikutzen duana, "pago" gelditzen bait da.

Zer esanik ez, nolako farrak egingo dituzten danok salto aietan. Areta geiago, lenengo pasa-aldiaren ondoren, "pago" daudenak anka ankaren gañean ipintzen bait dute, eta salto aundiago egiñaz pasa bear saltariak; eta irugarrenean ukabilla jartzen bait dute oiñaren gañean, eta laugarrenean bi ukabil elkarren gañean, eta boskarrenean arra, eta seigarrenean bi arrak... orrerazkero ez bait da iñor, balla ura ikutu gabe salta lezakeanik.

Ez dakigu, kantarik zuan ala ez; bañan bai euskeraz zuan izena, "Andre-salto" zala; ori naikoa bait degu, guk orain nai deguna jakiteko: ez umeak, emakume "Egiñak" – Andreak – sortua dala, alegia.

Eta jarrai dezagun, aurrera.

Ikusten danez, jolas au, salbo-ta, zaldizko hipiko-saltoaren antzekkoa da; esia ikutu gabe egiteko saltoa...

Olaxe entretenitzen ziran, orain eunka urte, Igande-arratsaldeetan gure errietako mallarik goreneko Damak, Erriko Plazaren erdian, gizasemeak pelota-lekuan pelotan ariko ziran artean.

Olaxe entretenitzen ziran, bai, Dama gore aiek, arik-eta, aurrera-bearraren aurrera-bearrez, beste jolas aberatsagoak sortu-ta, errexagoko aiek utzi zituzten arte.

IPUR-XIMIKO

Andre-salto aipatu degun bezela, aipa ditzakegu beste jolas geiago ere, eta oien artean, "Ipur-ximiko", erderaz "La gallineta ciega" esaten dana. Jolas ori ere, Goya-ren tapizetarako kartoietan azaltzen danez, umeen artean ez baño, emakume elduagokoetan areago ikusten zan; Goya-k, orain berreun urte eskas, ola pintatzen bait zuan jolas ori: emakume elduen artean.

Eta, "Ipur-ximiko" aipatu degun ezkerro, ikus dezagun nolako zeremoniaz egiten zan gure txiki-denboran; zer kanta erasten zitzaion.

Beti bezela, kantuz suertea botata, "pago" gelditzen zanari, begiak pañueloz lotzen zitzaizkion edo buruko txapela ezpañetaraño sartzen genion; eta bera kantuan – rezitatu batean – asten zan, eta besteak erantzun; eta kantua bukatzen zanean, besteak banatzen ziran, bañan aldian bein, zimikoren bat, – atximurren bat – atzeko-aldean egiten zioten, eta berak bere itsuan norbait arrapatu nai, arik-eta arrapatzen zuan arte.

Ara kanta:

- Ordubata jo du?
- Ez,
- Ordubiyak?...

- Amabiyak?
- Bai.
- Nere opiiia erre al da?
- Baita erre-ta jan ere.
- Neretzat zer da?
- Txakurraren bost arrautzak.

Orren ondoren asten bait zan atximur-aldiya, ipur-ximikoa.

ARTATXURIKETAK

Jolas ta kanta oiek Erriko Plazaetan egiten zirala esan degu. Eta dudarik gabe, lgande arratsaldeetan egiten ziran.

Erdi Aroan zan ori.

Gero, Erdi Aroa pasatakoan, emakumeak, bear bada, trukean entretenitzen asi bide ziran.

Gaur zinera joaten dira, bai emakumeak, bai gizasemeak.

Bitarte ortan, "Azkoitika"ko jauntxoak" dantzak eta teatrotxoak eta operetak ere entseatu zituzten errietan.

* * *

Bañan beti ere gogoan euki bear deguna gai ontan, beste au da: gure artean beti izan dan beste Kanta-eskola ta Jolas-eskola jatorra, jostundegiak ere bai, bañan batez ere "Artatxuriketak" izan ditugula: Orixe'k, bere Poema "Euskaldunak"etan aipatu eta bizi-bizi pintatu dizkigun bilkura jator aiek.

Illundu ezkerro etxerik-etxe auzoak biltzen bait ziran etxeko goiko ganbaran, izenak dion bezela artaburuari txurikiña kentzeko lanetarako; bañan baita liño-lanetarako ere, liño-lan ondoren, ardatzean, goruetan aria iruteko eta gero liño-ariz Eundegian miesa ta izara ederrak eiotzeko.

Benetako "beillak" *soireak* bait ziran Artatxuriketa aiek; beste aldeetako *soireak* baño lan geiagorakoak ezik, bañan nolanai zala, beti ere jolaserako txolartetxoak eratzen zituzten bilkura alaiak; dantza pixka ere egiten bait zan, eta baita Teatro zerbait ere – oso elementala ezik, entremes-itxurako pantomimak – eta tarte ortan esku-joku ta jolas parregarri alai asko ta asko...

Nere esaierarako, Artatxuriketetan sortuak ditugu, arestian aipatu ditugun eta laister aztertuko ditugun kanta ta jolas bitxi oiek; beti ere izan oi bait dira olako bilkuretan, artarako txinpartadun, naiz gizon, naiz emakume jostallu-jostalluak,

"Jostallu" txinpartadun oiek norañoko grazia zuten neurtzeko, olako Kantatxo bat gogoraziko dizutet, guztiok dakizutena, bañan emen gogoraztea merezi-merezi duana – gizon jostalluren batek emakumeen

kontra asmatua seguru asko, letrak adierazten duan bezela, bañan benetan grazi-aundiduna –: "Kukuarena".

Kukuak kantatzen du

Mayatzean "kuku" (kuku, kuku);

Andreak ba dituzte

miila matrikula (kuku, kuku).

Oyea etzaten dira

gaxorik daudela:

estemaungo txulotik

sentitzen dutela ... (kuku, kuku).

– Eta zergatik (kuku)

– Txokolatiagatik, (kuku)

mama goxuagatik, (kuku)

mixtelagatik, (kuku)

kariñenagatik ...

Bizirik ez al aiz jaikiko

su-emanda baizik.

Kuku, kuku...

* * *

Eta mixtela ta "mama goxua" aipatu ditugun ezkerro – eta Ernani'ko Plazan gauden ezkerro – farrez-farrez bederenik aipa dezagun, mama goxua edan zuan, eta, ikusten danez, Xole izena zuan ernaniar neskak:

Xole ta Xole,

Xole gaxua!

Xole'k edan du

mama goxua.

Kantak gero ola jarraitzen bait du:

Ernani'ko Plazan

iru atso dantzan;

irurak etzuten

ardit bana poltsan.

Soldado-usaia dariote bi kopia oiek; soldado-xarraen diana-doñuan kantatzen bait dira; seguru asko gerrateren baten barruan sortuak... Lenengo karlistatean, bear bada, ernaniarren laidogarri...

Bañan barka dezaiozun. Eta goazen nere itzaldi onen bigarren erdira.

BIGARREN ERDIA

BARRU-AZTERKETA

EZER ESAN GABE, DANA ESATEN

Ume-kantaen axaleko historiari dagokion zerbait lenengo erdian esan degun ezkeror, pasa gaitezen bigarren ontan, kantaren beraren barruko azterketa zerbait egitera.

Iraizean ikutu ditugun Kanta-ereduak naikoak dira Kantak berak nolakoak diran jakiteko. Gogora dezagun bat edo beste.

Don, don, irten:
sakati fuera.

Edo-ta:

Don, don, kandel:
Barriola, Barriola,
plixt!

Edo-ta:

Arriyola, Beriyola;
etxala-kamala;
bikto-biktoría,
bringun-brangun
plixt!

Edo-ta:

Arriola-marriola,
kin-kuan-kin;
portazela, portamin;
arrixamalet-marrixamalet
kirun-karun,
pekl

Olako Kantak entzutean, edozeini otutzen zaiona, zera da: ez dutela ezer esan-nairik; eta, izan ere, askotan ala da; misteriozko itzak besterik ez dira – gizona beti ere misterioz inguraturik bizi da – ritmo ta pinturazko formula misteriodun batzuek, ezer esan-nairik ez dutenak – umeak ideia gutxi – entzuten dituan bakoitzak bere esan-naia ematen dien formulak. Bañan askotan, formula ritmiko-pintorezko izanaz gañera, beste esan-nai zerbait ere izaten bait dute. Ola, "Xirixti-mirixti" esaten diogun, eta eun-da-bere-aldiko adierazi nai duan ura:

Xirixti-mirixti,
gerrena, plat;
olio-zopa, kikili-salda
urrupe-dan edo klik:
ikimilikiliklik!

Bazkari aundi bat adierazi nai bait du; ironiaz adierazi ere; itxura oturuntza aundi, benetan gauza miritx; "gerrena" bai, "okelarik" ez: dana "salda" urrup! edan edo klik Bazkari merke.

* * *

Berdin gertatzen bait da, guk iñoiz "olerki abstraktu" esan izan diegun "ume kantu" batzuekin; "Ttunku-rrunku" ta "Ttiki-rriki"rekin, adibidez.

Begira:

Ttunku-rrunku; ttunku-ttunku,
ttunku-rrunku-ttuna;
rrunku-ttunku; ttunku-ttunku,
rrunku-ttunku-ttuna.

Ezer esan-naiezeko itxuran, azpikoz gañerako silaba batzuen tartean, eten gabeko kuttun-kate txoragarria egozten bait dio amonatxoak, seaskan lokartzeko daukan illobatxoari...

Eta orren antz-antzeko beste kanta ark ere berdin eiotzen bait du, silaba naasi batzuen barruan, ttiki-ttiki'zko kate ukigarria, orain esna-esna dagon txikitxuarentzat.

Begira:

Ttiki-rriki; ttiki-ttiki,
ttiki-rriki-ttona;
rriki-ttiki; ttiki-ttiki,
rriki-ttiki-ttona.

Ezer esaten ez, eta dana esaten. Olerki abstraktoa.

ERROMATARREN "NENIAK"

Olako ereduaren aurrean esan al liteke, ume-kantak umekeriak dirala?

"Neniak" esaten zieten olako kantai Erroka'ko Olerkariak; ezagutzen bait zituzten berak ere olako ume-kantak. Bañan ez bait det uste, gure kantak aien "neniai" zor aundirik zietenik. Nolanai-dala, ba, danok alkarrekin zer-ikusi ba zutela; arritzekoa bait da, guk aurrai "nini" esaten diegun bezela, aiek ume-kantai "neni" esaten zietela. Arrigarria benetan.

Ortaz gañera, olako neniak kantatzeari berari aiek "lalare" esaten bait zioten, nunbait kanta aietan "la-la-la" asko esaten zutelako, salbo-ta, gaur oraindik gure artean trikitixen koplata-tartean esan oi dan bezela:

Lan-lan-lan;
laran-laran-laran-lan-lan

edo-ta:

Lau-lau-lau;
dotia ba det baña;
lau-lau-lau
arduak galdu nau.

Edo-ta, gure betiko leloan

Lelo, il lelo,

esan oi zan bezela; edo-ta gaur oraindik

Altza Pelipe, trula-lai
tulalai, trula-lai.

"La" ori, kanta guztien ama bait da, leenagoko errepin batek zion bezela:

La-la-la, kanta guztien ama da.

Olakoxe misterioak dituzte gure kantak, gure ume-kantak, beren barru-barruko tolesturetan ezkutatuak, Erromatarrakin berakin naasten gaituzten misterioak.

RITMOA UME-KANTAETAN

Aztertu dezagun gauza au beste pixka bat geiago; eta ikusi, zer geiago eskuratzen dan, kanta oien barrunbean.

Bi gauza seinalatuko nituzke nik batez ere gai ontan. Lenengoa, ritmoa, eta bigarren, ots biribillak, ots ozenak. Pinturan, alde batetik aria "linea" esango gendukeana, eta bestetik "kolorea".

Artu dezagun edozein ume-kanta, eta ikusiko degu guzti ori ederkitxo.

Ikustagun lenengo, linea, ritmoa; bi kantaen bitartez ikusiko degu ederkitxo.

Don, don, kandel;
Barriola, Barriola,
plixtl

Kanta onen aria, ritmoa, garbi-garbi, *ritmo binarioa* da.

Ikus dezagun orain, beste bat, lenengo orren kide-kidekoa:

Arriyola, briyola,
etxala-kamala;
bikto-biktoría,
bringun-brangun
plixtl

Kanta onen aria, ritmoa, kontrara, garbi-garbi, ritmo ternarioa da; obeto, lenengo erdian, ternario, eta bigarrenengan, binario: *bringun-brangun...*

Nolanai-dala, ondo begiratzen badiegu, beti ere orixe ikusiko degu; ume-kantak oso ritmikoak dirala. Eta, ortaz gañera, ritmoaren bidez ume-kantak marrazki bat, soñuzko dibujo bat egiten digula. Bañan ez ori bakarrik; letraen soñuen bitartez, ez dibujo "monokromo" bat bakarrik, baita koloredun pinturaki kuadro bat eta gorpuztun erreliebe bat ere egiten digula.

Ikustagun.

MARGOA, KOLOREA, UME-KANTAETAN

Aurrera jarraitu baño len, esan dezagun, letra bokal bakoitzak ba duala bere kolore, eta kontsonante bakoitzak ba duala bere gorputz. Eta, bokal ta kontsonante, bion artean, ritmoaren bidez, pinta dezaketela pinturaki kuadro bat, edo-ta baita eskulturazko erreliebe bat ere. U

bokala, adibidez, bokal illuna da; l, berriz, bokal argia. TZ kontsonantea, letra latza; X eta LL, berriz goxoak etab. etab.

Ari orri jarraituaz, ikustagun, ritmoaz gañera, ume-kantai aitortu diogun beste gauza: kolorea eta gorputza; silabaen letrak kantari ematen dioten izaera, alegia: kolore-izaera eta gorputz-izaera.

Ttunku-rrunku, ttunku-ttunku artan ederkitxo ikusi bait degu gauza au: *u* bokal illunak, eta *n* kontsonante barrunbekoiak kantari ematen dioten kolore eta gorputz-izaera nabarmena; batez-ere, beste *Ttiki-rriki, tiki-ttiki* aren aldean jartzen badegu.

* * *

Euskal-toponimian ba dira izen bi, ume-kantaetan kolore-gauza ortarako leku aundi izan dutenak: *Arriola, Barriola*; iru kantaetan gutxienez arkitzen bait ditugu.

Ikus:

Don, don, kandel;
Barriola, Barriola
plixtl

Edo:

Arriola, Marriola,
kin-kuan, kin;
porta-zela, porta-min;
arrixamalet-marrixamalet,
kirun-karun
pekl

Edo:

Arriyola, Briyola,
etxala-kamala;
Bito-Bitoria;
bringun-brangun
plixtl

Irugarren onen bukaerako *bringun-brangun* orrek ere grazi berezia ematen bait dio kantari: ots-aundiko grazi berezia. Beste kanta batean ere arkitzen bait degu, ez umeak kantatzeko, umeai kantatzeko baizik, seaskaren onomatopei-otsa iduri:

Begira:

Bringun-brangulun eragidazu;
laister aziko natzaizu;
laister azi-ta, ongi lagundu
fabore izango nauzu.

Olako ots-aundiko itzak ugari arkitzen ditugu, umeen bizi eta arte-giroan:

Ikus:

- Din-dan: nor il da?
- Peru zapataria.
- Zer egin du pekatu?
- Erregeren txakurra urkatu.
- Ori ez duk pekatu.

Edo-ta:

Din-dan, boletan;
gure aurra koletan;
dingindin-dangandan
dingindin-dan;
dingindin-dangandan
dingindin-dan.
Din-dan, boieran
Elizango kanberan...

Ikusten denez, dana ritmo ta dana ots-aundi. Dana onomatopeya.

Eta ots-aundiko onomatopeya jator-jator batekin beste batek ala bait dio:

Bunbullun-bunbullunete
botillan aguardiente;
bunbullun bat eta bunbullun bi,
bunbullun putzura eori;
edan zituan pitxer bi,
etzan orduan egarri.

Gaierakoan, "ots-aundiko: itzen artean, beti ere oituenak, itzarren bukaeran on dutenak izaten bait dira; ola, leen aipatu ditugun.

Don, Don
aiek; eta aien antzeko beste au:
Pin, pon, lauseron;
tres sardinas y un capón;
saltsa-pika, tortolika,
de putzon;
aitona Martzelón
kiski-ti-kaska
kaska-melón...

ONOMATOPEYA

Eta Onomatopeya aipatu degun ezkerre, aztertu dezagun Onomatopeyaren egitekoa, ume-kantaetan.

Bi gai aipatu ditugu orain arte, ume-kantaen gai ta giro bezela: ritmoa (kantaren dibujoa, aria) eta silaba otsaundikoak (kantaren kolore ta gorputz). Bi gai oien ondoren eta errenkada berean, Onomatopeya arkitzen degu, kantaren gai pintoreskoa, bera ere.

Jakina da "Onomatopeya" esaten zaien itzak, zer diran: gauzak beren ibillian ta bizian ateratzen duten otsaren antzeko itzak: traka-traka,

adibidez, astoaren onomatopeya, eta trakatan-trakatan zaldiarena, eta kukurruku ollarrarena; eta, berdin, beste ainbat eta ainbat: danba! ateak aize-boladarekin ateratzen duana, eta pil-pil legatzak kaxuelan egin oi duana, etab. etab.

Ume-kantak asko erabiltzen duan gauza da Onomatopeya. Orain arte aipatu ditugunez gañera – din-dan, bringun-brangulun, dingindin-dangandan, bunbullun-bunbullun´ez gañera, alegia – beste asko ta asko Onomatopeya azaltzen da, txitian-pitian, ume-kantaetan: txori-kantarena, adibidez, txin-txinkitin eta txiru-liru-li, etab.

Azkeneko au askotan entzuna bait da, ikustagun orain txin-txirikitin dion beste ori, polit askoa, bere Goierriko izaera jatorrean.

Txin-txirikitin, txorie,
txoritxo txilibitarie...
Erein nuan garie,
oso arlo aundie;
uste nuan eun anega,
imiña bat zan guzie...
Txin-txirikitin txorie,
txoritxo txilibitarie.

Guztiok askotan entzuna bait dezute onako beste au ere:

Txin-txin, txilibitu-soñua,
txin-txin, txilibitu txonbolin.
Kattalin, nere maitea...

Umetan esaten genduan far-ipui batek, berriz, ola zion:

Exenplo berezi:
Nik azak egosi;
egosi ta klik.
– Gexurra diyok ik.

Klik orreek, janariak eztarrian pasatzean ateratzen duan otsa esan naidu: Klik... Eta eztarri-kontuan izan diteken Onomatopeyarik osotuena berriz arako beste ura bait da: ikimilikiliklik; bai ritmoz, bai ots ozenez izan diteken osotuena. Entzun dezagun beste bein ere kanta osoa:

Xirixiti-mirixiti, gerrena, plat:
olio-zopa, kikili-salda
urrupl edan edo klik:
ikimilikili-klik!

Eta bukatzeko, gogora ditzagun ollarraren kukurrukurekin umeak dituzten jolas-kantak:

- Kukurrukul
- Zer diozu?
- Buruan min.
- Zeñek egin?
- Axer kok.
- Axerko non da?
- Errotapian.
- Zertan?

- Artaliak biltzen.
- Artaliak zertako?
- Olluari emateko.
- Ollua zertako?
- Arrautza eitteko.
- Arrautza zertako?
- Apaizari emateko.
- Apaiza zertako?
- Meza emateko.

Eta orren ondotik, Katekesis-apur bat:

- Meza zertako?
- Gu ta mundu guziya salbatzeko.

Olaxe, Folklore ta Katekesia, eta Katekesia ta Folklore, sorta batean polikitxo bildurik.

Kukurrukudun beste jostallutxo bat ere bai bait da, ez ain ezaguna ezik. Iru abereren alkarrizketa Gabon-gabeen: Ollarra, idia ta bildotxa.

Ollarrak: - Kukurruku! " Jaio da Jesus! " alegia.

Idiak: Nuuuun?

Bildotxak: - Beleeen; Beleen...

Jarrai dezagun aurrera.

Onomatopeyaren bitartez lortu du Ume-kantak Olerki Abstraktoa. Ikusi ditzagun bi Epigrama abstrakto: "bunbullun" en Epigrama bata, eta "Atxiyo-Matxiyo"rena bestea.

Bir Entzun "Bunbulun"ena:

Bunbullun-bunbullunete...
botillan aguardiente...
Bunbullun bat, eta bunbullun bi
bunbulun putzura erori;
eran zittuen pitxer bi;
etxen orduan egarri.

Onomatopeyaren bitartez gertakari bat kontatzen du Kanta onek. "Bunbulun" izena zuan batek, bi totta-trago aundi xamarrek egin dittu nunbait, eta, jakiña, moxkortu egin da, eta moxkorturik, bunbullun putzura erortzen da; eta, egarri bazan-ta egarri, aztu zituan ederki egarriak...

Edan zittuen pitxer bi;
etzen orduan egarri.

Poema abstrakto txiki bat; Epigrama abstrakto bat.

* * *

Entzun orain "Atxiyo-Matxiyo"rena:

Atxiyo-Matxiyo, Perolipan:
 nere semia errotan...
 Errotara ninjoala
 topatu nuan erbi bat;
 kendu nion begi bat,
 para nion berri bat ...
 Errota-pio, klak-klak.

Gertakari au ez da Bunbullun'ena bezain garratza; bañan ba du bere grazi, batez ere eiza-zale diranentzat. Petrolipan'go Matxiok errotara bidali du semea; semeak bidean erbia topatu du; mutil erne-erneak erbiari begia kentzea lortu du; eta gero, postizua-edo, ez dakigu, begi berri bat ipini dio...

Perokipan'go Matxiok eiztariaren ipui ori egia bazan-ezpazan -eiztaiak gezurti-fama izan oi dute – tarte ortan egi bat zan benetan egi: Errotak artoa eloten jarraitu zuala: "Errotapio-klak-klak": Errotaren onomatopeya bizi-bizia.

Olakoxe ume-poema abstraktoak topatzen ditugu, umeen Kantutegi txoragarrian. Onomatopeyaren bitartez, onomatopetaren abstrakzio-indar bortitzez.

ERDAL ITZAK TARTEAN

Beste gauzatxo bat ere ba da ume-kantaetan, umeak misteriozko zerbait bezela oitzen dutena: euskerazko kanta-barruan, aldian bein, erderazko itzak sartzea – dirala gaztel-erdera, dirala prantzi-erdera, dirala latin-erdera–.

Olakoetan ba dirudi, ez zerbait pintorezko bezela bakarrik – bai bait du alako pintoresko zerbait, euskeraren barruan, sorpresan, erderazko itzak sartzeko oitura orrek – bañan baita, magiazko indar zerbait duan misteriozko gauza bezela ere.

Gauza sakratu baten balioa dutela bait dirudi, asieran aipatu ditugun suerte-formula aietan, arako erdal-itz aiek:

Don, don irten:
 sacati fuera.
 Edo: Arriyola, Briyola
 echala camala,
 vito-vitoria,
 bringun-brangun
 plixtl
 Edo: Pin-pon
 lauseron:
 tres sardinas y un capón;
 salsapica, tortolica de putzon.

Latiñetik artutako zenbait itz ere erabili oi bait dituzte aldian bein Eliz-gauzaen imintzioak egíñez: Ola:

Domina, Domina tua;
il dala Marta'n astua;
egin du testamentua:
lau anka eta burua.

Erderazko itzak tartean sartzeko oiturari jarraituaz, ba dira baita zenbait ume-kantu, umeari kantatzen zaizkienak, Goierri-aldeko onako au bezela:

Loa, loa, txuntxurrin-berde;
loa, loa, masuste...
Aita gurea Bitoria'n da
ama mandoan artu-te.
Aita gure Bitoria'n da
ama mandoan artu-te;
aita gureak diru asko dakar
ama perien saltu-te.

"Berde" itz orrek ez bait dakigu, zer misterio duan umeen jolasetan; San Juan bezperako suai ere umeak, zenbait lekutan, "San Juan berde" esaten bait diote, eta jaiari berari "San Juan berde egitea".

Kantako beste txuntxunrrin-berde orrek ere ez dakigu zer esan nai duan.

* * *

Ikustagun orain, erdarakadaz osatutako beste eredu berezi au: naasixeagoa; nik esan bear banu, Artatxuriketan egiten ziran pantomimaetako bat bait da: ama-alabaen arteko dantza-pantomima farragarri bat.

Ikus: – Mariquita muchacha.
 – Qué mandai, mare? Txin-txibirin-txin-txin.
 – Quita la manteliña;
 vamos a baile. Txin-txibirin-txin-txin.
 Bolinen-bolinen.
 fardín-fardín,
 gordin-gordin...
 Ala're baskune.
 Que burdún, que bardán;
 arrua le burdún,
 turún-tarán,
 tariari-arán,
 tariari-arán...
 Ala're baskune.
 Prantzes-euskaldune.

NUMEROAK UME-KANTETAN

Numeroak, beti ere, zenbait kultura zaarretan garrantzi aundia izan dute; batez ere zenbait numeroak, zenbait zenbakik: iruak, adibidez, eta zazpiak eta amabiak...

Gauza onen argigarri, aipa ditzagun emen zenbait zenbaki-poematxo, umeak beren kantuetan erabiltzen dituztena. Eta aietan bat, arako "Baga, biga" deritzan eiza-poema xume-xume ura:

Baga, biga, iga,
laga, boa, zea,
zai, zoi ble
arma, tiro: Pun!

Beste "Numero-kanta" batek, numeroen misterioa ume-kantaetan pixka bat adierazteko bidea emango digu.

Numeroak ume-kantaetan, beetik gora eta goitik beera kontatzen dira. Zergatik? zertarako?

Izan bait liteke, memoria, oroimena bizkortzetko – mnemoteknikariaketa bezela, alegia – . Salbo-ta mingaña azkartzeko beste kanta bat erabiltzen dan bezela. Danok dakizute:

Akerrak adarrak okerrak ditu;
adarrak okerrak akerrak ditu;
okerrak akerrak adarrak ditu.

Kanta ori, mingaña azkartzeko dan bezela, zenbakiak beetik gora eta goitik beera trukatzeko ori izan bait liteke, umeen memoria bizkortzeko. Bañan, ez dakit zergatik, bañan nik beste misteriozko gauza bat ikusiko nuke zenbakien trukatzeko ortan; misteriozko beste zerbait; nik bi kantatan arkitzen bait det joku ori, eta biok amabi numerodunak dira, eta ba dakizute, amabi beti ere misteriozko zenbakia dala.

Bi kanta oietan bata, "Gure Jauna bera da bat" diona da; eta bestea "Irun'go mayo" deritzana.

IRUN' GO MAYO

Gero ikusiko degu, "Mayo"-kontu ori zer zan. Entzun dezagun lendabizi kanta bera, dan bezela:

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart! (bis).

Erratilluan eper bat; Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Bi tortollo; erratilluan eper bat; Irun'go mayo; a zer apariya...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Iru ollo, bi tortollo, erratilluan eper bat; Irun'go mayo...

Irun'go mayo; a zer apariya geniken bart!

Lau antzara, iru ollo, bi tortolla, erratilluan eper bat; Irun'go...
 Irun'go mayo; a zer apariqa geniken bart!
 Bost pirillo, lau antzara, iru ollo, bi tortollo, erratilluan...
 Irun'go mayo; a zer apariqa geniken bart!
 Sei zikiro, bost pirillo, lau antzara, iru ollo, bi tortollo, erratilluan...
 Irun'go mayo; a zer apariqa geniken bart!
 Zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo, lau antzara...
 Irun'go mayo; a zer apariya ...
 Zortzi idi, zazpi zezen, sei zikiro, bost pirillo...
 Irun'go mayo; a zer apariya ...
 Bederatzi basaurde, zortzi idi, zazpi zezen, sei zikiro...
 Irun'go mayo; a zer apariya ...
 Amar karga zardin berri, bederatzi basaurde, zortzi idi...
 Irun'go mayo...
 Amaika karga erre-kafe, amar karga zardin berri...
 Irun'go mayo...
 Amabi karga puro erre, amaika karga erre-kafe...
 Irun'go mayo...
 Amabitan bukatzen zan kanta. Etzan amairurik.

* * *

Mayoen oitura, oitura zaar-zaarra zan. Ez emengoa bakarrik, Europa guztikoa – India'tik asita, Europa guztikoa, esan ditekena –. Eta ba ziran "mayoak", mutillak, eta ba ziran "mayak" neskatzak.

Nafarroan ia orain arte izan da olako oitura bat. Neskatzak Mayatxaren asieran Erregiña bat aukeratzen zuten; eta beren ura, Igande arratsaldetan, txuriz jantzita, sillatxoan artuta kalerik-kale eramaten zuten, eta Erregiñaren izenean kantari, kalean ikusten zuten edozeini txanpon bat eskatzen zioten, ola bildutako txanponakin gero txokolatada bat-edo beren artean egiteko. (Zenbait lekutan, biltzen zutena, Elizako gastutarako izaten zan).

Bañan oitura onen osagarri, ba zan beste oitura bat ere: mutil "mayoena".

Apirillaren azken-egunean, mutillak bilkura batean suertetara ateratzen zuten – zenbait lekutan "subastan" – erriko neskatzarik ederrena zeñi "tokatuko", illabetean ura kortejatzeko.

"Kortejatzea", jakiña, illunabarrean neskatzaren ate-ondoan bere arekin izketan egotea izan oi zan.

Bañan gero, illuntzean, mutil guziak sallean, etxerik-etxe ibilliko ziran, erriko neskatzak guzien ateetan kantari, bakoitzari bere koplak. Olaxe illabete guzian.

Eta illaren azkeneko egunean, afari aundi bat... Ikusi dezute, nolakoa izan oi zan Irun'goa: asi eper batetik, eta amabi karga puro erre, bederatzi basurde, zortzi idi, zazpi zezen etab. etab.

Orra, guk geurok umetan entretenigarri kantatzen genduan "Irun'go mayo" ren kanta sonatua, gaur sobera aaztua, bañan ez nolanaikoa: letra ta doñu...

GURE JAUNA BERA DUK BAT

Beste numerodun kanta, oso ezaguna gaur, "Ez dok amairu" esaten zaiona da, benetan "Gure Jauna bera da bat". Eta itz gutxitan, Kristau-Doktriñaren laburmen bat da. Galde ta erantzun. Onela:

- Esaik bat.
- Gure Jauna bera dok bat.
- Esaik bi.
- Erroma'ko bi Aldareak, gure Jauna bera dok bat.
- Esaik iru.
- Iru Trinitadeak, Erroma'ko bi Aldareak, gure Jauna...
- Esaik lau.
- Lau Ebanjelista Santuak, iru Trinitadeak, Erroma'ko bi Aldareak...
- Esaik bost.
- Bost Ilaga preziosoak, lau Ebanjelista Santuak...
- Esaik sei.
- Sei Aingeru Argiegilleak, bost Ilaga...
- Esaik zazpi.
- Zazpi Gozoak, sei Aingeru Argiegilleak...
- Esaik zortzi.
- Zortzi zeruak, zazpi Gozoak, sei Aingeru...
- Esaik bederatzi.
- Bederatzi Ordenamentuak, zortzi zeruak...
- Esaik amar.
- Amar Mandamentuak, bederatzi Ordenamentuak...
- Esaik amaika.
- Amaika milla Birjiñak, amar Mandamentuak, bederatzi Ordenamentuak.
- Esaik amabi.
- Amabi Apostolu Santuak, amaika milla Birjiñak...
- Esaik amairu.
- Ez dok mairurik.

Orrenbeste misterio gabeko beste Numero-kanta – Aritmetika garbi-garbikoa – beste au da:

Iru bosteko, amabost dira;
amabosten kontua tira...
Nai'zu jokatu pinta bat ardo
amabost dirala?

GABON-KANTAK

Ari oni jarraituaz, ez goaz, umeak kantatzen dituzten Gabon-kanta guztiak emen sartzera. Bañan bai oso ume-kutsu artu duten batzuek. Adibidez, arako, Gernika'ko "Marijesien" estribillo misterioz bete ura:

Eta bart Belen'en , eta Belen'en
iaio da Jesus Nazaren.

Eta illara artako beste au, benetan polita:
Jesus dibiño! Gabaren otza!
jausi da iñetasiye.
Erleju biyen orrelan bada,
il da ganadu gustiye.

Edo beste au, pintoresko-pintoreskoa:
Ortixik gora niñoyalarik
Ospiteletxu sar baten,
Aita San Jose topadu neban
astotxoaren txalmatzen.

Edo Donosti-inguruko, bapateko pitxi polit ura:
Ail au gabaren zoragarriya!
Jesus jaio da Belen'en.
Etxe onetan sartu ote dan,
billa gabiltza beraren.

"Billa gabiltza beraren" orrek urrea balio bait du, puntukolpe bapateko bezela...

Eta nola aaztu beste ain entzundako ura?
Joxepe, gizon ona:
arotza zera zu;
Aurtxo polit oneri
seaska eiozu.

BUKATZEKO

Eta onenbestez, bukatu det nik nere azterketa, Ume-kantai buruz.

– Zer ondore praktiku atera bear degu azterketa ontatik, lkastolaetarako?

– Bi, eta naikoak biak.

1) Umeen izaeran, eta beragatik umeen ezieran ere, jolasak eta kantak leku aundi eskatzen dutela: eta

2) ortarako, kantak ondo aukeratuak izan bear dutela; ez dala umeentzat on edozein kanta; umeen kantak ba dituzteia beren legeak: ideia gutxi, ritmo asko, kolore asko, onomatopeya asko; umeentzako kantak egin bear dituztenak eta aukeratu bear dituztenak ere, lege oiek ezagutu bear dituztela...

Guk itzaldi ontan zerbait argitu degu kantaen izaera, eta markatu ditugu lege oiek pixka bat bederenik.

PROPINA

Ortaz gañera, eta esan ez dedin besterentzat bakarrik ezartzen ditugula legeak, esango dizutet, nik niketz – ez orain-orain, gerraurrean baizik– egiñak dauzkadala olako entsaio batzuek; adibidez, "Iesu Aurraren bizitza" kantadun aur-poematxo lirikoa, bost kantetan, dana onomatopeyaz orni-ornitua. Ezagutzen dezute zuetako askok.

Eta, ortaz gañera, gaur, propina bezela erakutsiko dizutet beste bat, gerra ezkeror egiña, eta beste aren neurri-neurrikoa, beste onomatopeya batez apaindua: "Aurak, seaskarik ez".

Entzun:

Belen'go Aur ederrari,
estalpe zartxo batean,
aingerutxo bi kantari,
Ama etorri artean:

"Bunbillum-bumbullun, bunbullunera,
bunbullun bat eta bunbullun bi;
Aurtxoak munduan seaskarik ez,
zeruan urrez amabi".

Aurtxo txikia lo dago
aingeru biren erdian;
aingeru biren erdian, eta
millaka inguru guztian,
"Bunbillum...".

Aurtxo txikia lo dago
aingeru biren erdian;
Amatxo zapi-garbitzen
Belen'go iturri garbian.
"Bunbillum..."

Amatxo iturrian dago,
Aurra lo dagon artean;
musu ta laztan jango du
andik etortzen danean.

"Bunbullun-bunbullun, bunbullunera,
bunbullun bat eta bunbullun bi;
Aurtxoak munduan seaskarik ez,
zeruan urrez amabi".

Manuel Lekuonaren jaiotetxea, Etxe-Txiki baserria.



MANUEL LEKUONA

ANTZERCI



EVKALAMBEREAREN
ILEROKOAK

EUN DUKAT

— BI EKITALDIKO ANTZERKIA —

Lekuona Anaiak.

41 ta 42'en Zenbakia

1935—Ofila - Garagaila

IV'gn. URTEA.

8 PESETA URTEKO.

1935.—Tolosa'n: Lopez Mendisabal'encan.

I EKITALDIA

(Ezker-eskubi, basoa. Ezker-aldera, borda zaharra. Eskubiko zuaitz-artean, besteak baño nabarmentxuago, piku-zuaitz, osto-zabal. Eskubi-aidean, erritik datorren bidea; ezker-aldean, mendira, Aritxulegi´ra dijoan bidea. Borda-atadian, enbor bat, exertzeko).

I AGERRALDIA

Iratze-ebailleak, igitaiak eskuan.

(Goiz-aldea da. Barrengo aldetik irrintziak. Ibillian, datozela).

DANOK (Abestuaz)

Jeupa, jeupal irrintzika
 iratzebailleak erritikan;
 jeupa, jeupa! irrintzika,
 zatotik ttantta bat egiñikan,

BATEK: Goizean goiz, aizkaturikan
 atso ta agureak leyotikan
 galdezka daude arriturikan
 zein ote-datorren erritikan,
 erritikan.

DANOK: Jeupa, jeupal...

BATEK: (Bertsolari-antzer. Besteak entzuten. Kopla bukatzean,
 danok ondo abestu dualako keñuak egiñaz)

Sasoi onaren jabeak,
 napar beltzaren zalea,
 naiz igitayan,
 naiz belagayan
 iñun berdiñik gabeak,
 ristiti-rrasta, bristiti-brata (igitai-keñuak egiñaz)
 gu gera iratzebailleak.

DANOK: Jeupa, jeupal

BESTE BATEK: Erale oso garbiak;
 bañan lanera jariak
 ixtanpatean,
 lau egunean
 soiltzen ditugu mendiak
 ristiti-rrasta, bristiti-brasta
 mozturik zuztar guztiak.

DANOK: Jeupa, jeupal...

BESTE BATEK: Goizetikan arratsera

mendi batetik bestera,

egi ta kasko,

bai eta asko

eluts eta egutera

ristiti-rrasta, bristiti-brasta

etzaten degu lurrera.

DANOK: Jeupa, jeupal... (Bijoaz mendira)

II AGERRALDIA

Ramus bakarrik

(Artzaiz jantzia bordatik irten, eta asi bedi abesten. Gero exeri bedi, pipa erreazi.

RAMUS: 1) Zoragarri, ederra
zitzaidan len menditik
eguzkiaren sorrera
egun-sentian...

Egun-sentia,

eguerdiak,

denak dira neretzat

gau iliun eta beltzak...

Argia zer dan aztu dute

nere begiak.

2) Txoragarri, polita
zitzaidan len, baratzan
krabelin-lore gorri ta
lili txuria...

Lili txuria,

krabelin gorriak,

denak gaur zaizkit neri

utsa bezela iduri...

Lorea zer dan aztu zuten

nere begiak.

3) Maitagarri benetan
zitzaidan len aurtxoan
begi ta ezpain-ertzetan
maite-irria...

Maite-irria,

musu gorria

asper ta etsigarri

zaio gaur itsuari...
 Irria zer dan aztu dute
 nere begiak.

(Izketan) Egun aundia gaur mendian. Iratze-ebaiteak. Eguna argitu baño len or igo dira goietara baserritar-sail mardulak. Zumea baño biguñagoak aien gerriak... Gazteak izaki ... Garoak gorritzen asiak dira nunbait. Etzango da gaur ederrik! (Gogartetsu). Igoko da agian, guretarren bat ere... (Jaikita) Lotsagarria! Ez dut oroitu nai ere. (Azkeneko itz oek esanaz, bijoa mendi-aldera).

III AGERRALDIA

Ramus ta Austin

- AUSTIN. (Sar bedi erri-aldeetik). Agur, Ramus! Oraindik ibiltzeko aña ikusten duk, orratik... (Mendi-aldera joanaz biok).
- RAMUS. Arraioa! Austin aiz, nere aurtzaroko laguna! Gaur bezelako egunez, urtean bein bestetan ez aut ikusten. Ikusi... oraintxe nere begi oek ez ditek ia ezer ikusten. Makillaren arrimoan etxe-inguruko lizarretaraño eltzen nauk, eta besterik ez. Bakarrik al-oa?
- AUSTIN. Bi seme aurretik joanak ditit. Sailla markatzeko naikoak gaituk.
- RAMUS. Bo... Kontxo-kontxo, Austin... Ta Urkabe-atzean ongi?
- AUSTIN. Urkabe-atzean ongi, Jaunari eskerrak. Bañan zahartu gaituk, Ramus, zahartu gaituk ... (Itzak basoan itzali bitez).

IV AGERRALDIA

Petri bakarrik. Gero Ramus.

- PETRI. (Gaztea da oraindik. Errietako langilleak bezela, urdiñez jantzia). Eldu nauk oraintxe. (Bordako atean) Eup! (Barrura sartu-atera bat egiñez). Etzegok barruan. Alde guztietara ere, ez duk urruti izango. Nere ojua entzungo ziken. (Exerita zigarro bat egiñaz). Ortxe, pikope ortantxe zeuzkak gure osabak eun dukat. Emen bizi nintzanean, ortxe ikusi oi nikan goizero, makur-antzean, osorik ote-zeuden begira. Bigar ez dizkik or idoroko. Eun dukat oiek gabe, ez duk gaur Petri errira jetxiko... Ba zekiat, lxtoben apaiz-gaia sarritan etortzen dana goi oetara osaba txurikatza. Eun dukaten billa ibilliko duk. Etziotek onik egin bear. Gaur bertan eramango dizkiat nik pikope ortatik. Orain arrera ona egin bear zioat osabari. (Jeikita) Gaurgero emen duk. (Bidera begira) Bai, emen zetorrek. (Ramus'i) Agur, osaba.

- RAMUS. (Sartu gabe) Petri aiz. Itzetik ezagutu aut. Biotzak ematen zidaken gaur mendira azalduko intzala. Osaba zaharra irekin egoteko zaletua zegoken oraintxe. (Azalduaz) Petri, nere illobetan mairiena! (Bizkarrean joaz) Iratz-ebaitera?
- PETRI. Bai; aurten Sarastikoakin noa.
- RAMUS. Ederki egiña. Emen joan duk aristian sail ederra. (Izketa aldatuaz) Erri-aldean ongi?
- PETRI. Ni ongi, osaba; oso ongi erri-aldean.
- RAMUS. Izan ere galdera egin diat orixe! Ongi izango ez aiz, ba? (Bestera) Exeri adi enbor orretan. Ik ez duk presarik (Exeri bitez biok).
- PETRI. Zigarrotxo auxxe erre arte egongo naiz.
- RAMUS. Osaba Ramus'en bordan zerbait artu bear duk gañera... Gogoan al-duk, Petri, osaba Ramus'en borda zaharra. Bestelakoak dituk kaleko etxeak, e?...
- PETRI. Gogoan izango ez dut ba?...
- RAMUS. (Xamurki) Arraioal Ondo gutxitan etortzen aiz ba, orain, Petri, mendira? ba'zirudik aztu zaikela oso osaba zaharra?
- PETRI. Ez, osaba, aztu ez...
- RAMUS. A, ba; ik ez duk maite mendia... Erriak ostu ziken iri biotza. Gizagaxoa... Zuen aita zetorkidak burura.
- PETRI. Gure aita?
- RAMUS. Entzun akidak aren edestia. Iru anai giñukan gu: zuen aita ni, eta gazteena, Anton. Au Ameriketa'ra joan ujan. Zuen aita baserrirako gogo gutxitxo zikan. Erria zeukaken ark beti gogoan: erriko lantegiak, basetxetako soroak baño geiago ematen omen-ziteken.
- PETRI. Osaba: buruz ere ba'dakit edesti ori. Milla bider entzun dizut.
- RAMUS. Ikasi zak, ikasi zak ongi ... (Jarraituaz) Il ukan aitona. Andik laister saldu zikan zuen aita gure baserria. Nik mendira alde egin nikan. Borda zahar au eta eun ardi izan itukan nere seni-parte. Zuen aita, errian, ainbeste amesten zuan errian egin zikan bere kabia. Antxen etorri ziñaten mundura i ta Ixteben.
- PETRI. Ikusten duzu, osaba; kaletarra nauzu ni ere.
- RAMUS. Zoritxarrez, bai.
- PETRI. Zoritxarrez?...
- RAMUS. Ongi ala ere.
- PETRI. Zergatik, osaba?
- RAMUS. (Ez dio jaramonik egiten. Edestiari jarraituaz)... Bañan arrak joa zegoken zugaitza. Lantegietako kirats gaiztoak ondatu zizkiokan birikak, eta azkar etzan zikan gizagajoa oiean bularretikakoak. Luzea izan ukan aren gaitza. Egun batez, gabetik goizera, illotxik arkitu zitekan oiean. Gizabajoa! (Ixil-unea). Zuen ama gaxoak ere etxikan luzaro iraun lurrean. Bearrak eta naigabeak azkar eraman zikan ura ere senarraren ondora. Zuek umezurtz gelditu ziñaten. Ixteben, Don Jose Antonio Apaizak artu zikan etxeko. I, nere albora bildu intzan. Zortzi urte itukan orduan. Azi intzan. Borda zahar onen itzalean bizi izan aiz orain arte, ementxe osabarekin, eta...

- (Ixil bedi Ramus... Petri'k entzun bezaio arretaz).
- PETRI. Bukatu al-duzu?
- RAMUS. Ez diat jarraitu nai... (Ixil-unea). Asko irabazten al-duk?
- PETRI. Bai, poliki...
- RAMUS. Gutxi aski dik gizonak bizi izateko. (Urrutira entzuten asten da Ixteben'en abestia. "Txoritoa, norat oa?"...). Aberasteko biderik zuzenena, griñai gogor egitea duk, seme. Jaso eitzak ondarrak gerorako. Noizpait ere bearrean arkitu inteke. (Belarriaernetuaz). Ixo? (Pixka batean ixillik) Ixteben zetorrek.
- PETRI. Ixteben?
- RAMUS. Bai, aren kantua duk. Ezagutzen diat. Askotan etortzen duk ura mendira, ni ikustera.
- PETRI. (Jeikiaz) Ni ba'noa, osaba.
- RAMUS. Ba'oa?
- PETRI. Bai; berandu dut.
- RAMUS. Anaia etorri arte egon adi, beintzat. Biok alkarrekin joango zerate.
- PETRI. Ez, ez ... joan bear dut.
- RAMUS. Bañan ezer artu gabe? Ez, zaiz joango. Amur emaiok osaba zaharrari.

V AGERRALDIA

Lengoak eta Ixteben

- IXTEBEN. (Oso alai. Ari bedi beti anaia zirikatzen) Jaungoikoak egun on, osaba.
- RAMUS. Baita iri ere. Ixteben. Ator, ator.
- IXTEB. (Petri ikusita) Oi? i ere emen? Ongi al-ago, Petri?
- PETRI. (Legor) Ongi; ta i?
- IXTEB. Ederki, Jaunari eskerrak. Asko poztutzen natxiok, Petri, i emen ikusteak. Alkarrekin joango gaituk.
- PETRI. Ez. Bereala joan bear diat.
- IXTEB. Zer? gaur ere laisterka al-gaituk? Arraietxeal Ez duk errez irekin egotea. Iru illabete ba'dituk, Seminariotik etorri nintzala, eta oraindik bein bestetan ez gaituk egon alkarrekin. Nun abil, motell?
- PETRI. Lanean, ermano, lanean. Ez, zuek bezela alperrerrian.
- IXTEB. Arraieal (Ramus'i) Lan gogorren batzuek darabilzki, osaba, gure anai onek.
- RAMUS. Ja, ja! "Gau ta egun" ariko duk, nunbait. Zaudete pixka bat. Berelaxe ekarriko dizutet gazta ta ogi pixka bat. (Bijoa bordara).
- IXTEB. Xinixta akidak, Petri. Askotan izan nauk Landibar'en igarotako egun oetan, eta pozik egingo nikan berriketaldi on bat irekin, iñun arkitu izan baindut; bañan nik etzekiat non egoten aizen sartua.

- PETRI. Zer nai duk, ba? Ni ere ezin egon ba beti ere zai.
- IXTEB. Zai? (parrez) Esaidak egia, Petri: zenbat aldiz egin duk iges ni ikusita? ... Izan ere, apaizgai "alperren" artean ez duk ik ongi ematen.
- PETRI. Nere lagun-arte, "iangille-arte" duk, ermano. Langille dan guztia duk nere adiskide.
- IXTEB. Osaba Ramus, adibidez.
- PETRI. Aizak; osaba Ramus, ik baño maiteago diat gero nik...
- IXTEB. Motell, ez gaituk orregatik aserretuko. Maita zak, maita zak, gizagajoa, ongi merezi dik eta. (Aldatuaz) Ederki, Petri, ederki. Eta noiz egin bear diagu reparto-social edo dalako guzion dirubanaketa ori?
- PETRI. Ikegin zan parra; bañan larri ibilli bearrak zerate laister apaiz-jendeak ere.
- IXTEB. Nik beintzat izango diat laguntzalle ona iregan, ez al-duk ala? Gañerakoak ere izango al-ditek, i bezelako anai onen bat ... (Betor Ramus).
- PETRI. Gizon guztiok gaituk anai.
- IXTEB. Egi aundia; bañan ama askorenak.
- RAMUS. Eutsi. Egin zagun gosari. (Gazta ta ogia eskeñiaz) Artzak. Petri. (Ixteben'i) goiz, arraietxe, gaur mendi-aldera, Ixteben?
- IXTEB. Bai; Penadegi'ko apaizgai lagunak ots egin dit. Egun oek ikusgarriakizaten omen-dira mendian, eta iratzebailleen artean igaro bear omen-dugu gaurkoa.
- RAMUS. Ederki zerizkiot.
- PETRI. A, zer bi langille!
- IXTEB. Izan ere: jantzi beltza degunok, ez gaituk ezertarako gauza. Ez al-zenekian ori, osaba? ... Bañan nik oraintxe bertan jokatuko nioke Oletaco jantziourdindun edozeñi, zeñek garozama aundiagoa bizkarrera jaso.
- RAMUS. Ja, ja, ja, ja! Arraio, arraioia!
- PETRI. Jan-edanean ere jokatuko liguteke ederki, Ixteben'ek eta bere kideak.
- IXTEB. Edanean, etzekiat. Olaetako tabernaetan beintzat ikusi izan dizkiat nik moskorak ugari. Gure apazgaitegian oraindik ez duk tabernarik jarri.
- PETRI. Galerazia zegok-eta... Utziko balute, e?
- IXTEB. Zuen artean, galerazteko gizonik ere ez, berriz. Lantegi aldituzute tabernak ere? edo-ta, bestela, zuen txanponen banaketa egitera joango zerate ara...
- RAMUS. Ja, ja, ja! Leku onean abil, Petri, apaizgaiekin.
- PETRI. (Ixillik, ezin-egonean bezela).
- RAMUS. Ea, ba, Ixteben, iri ere atsegin baño naigabe geiago ematen ez ote-diteken, gero, iratzebaiteak?
- IXTEB. Zergatik, ba?
- RAMUS. Iratze-ebaiteak asten diranean, Sanmielak ere alderatzen bait-dira, eta Sanmieletan ba'dakik nora bearrak izaten zeraten apaizgaiok.

- IXTEB. Ja, jai! (Algaraz). Danoi etortzen zaie beren Sanmiel edo San Martin, osaba.
- PETRI. Neri ere etorri zait oraintxe. Ba'inoa.
- IXTEB. Bai al-oa?
- RAMUS. Oa, ba, Gaztea aiz, eta oraindik arrapetuko dituk atzetik ire lagunak. Egin lanagogorik; eta illunabarrean ba'dakik, azaldu bordara. Zai egongo nauk.
- PETRI. Bai, azalduko naiz.
- IXTEB. Etxerakoan alkarrekin joango gaituk, Petri.
- PETRI. (Erantzun gabe). Agur, osaba.
- RAM. IXT. Agur, Petri (Jarrai bezaiote begira).

VI AGERRALDIA

Ramus ta Ixteben

(Argitu du osoro).

- IXTEB. Gizahaxoa!
- RAMUS. Ondo ala-re! Aldakuntza ederra egin dik gizahajoak. Iges egin zikan menditik, eta gaiztakeria besterik ez dik ikasi errian. Zorigaiztoan jatxi ukan. Beltza zekusat oren etorkizuna.
- IXTEB. Utzi itzazu gogapen itzal oek. Berea du errua.
- RAMUS. Nork zekik ori? Ondorenak beintzat Ramus'ek ere ba'zeramazkik bizkarrean. Zahar era erdi-itsutua, bakarrik arkitzen nauk mendian. Ain xuxen, iñoren laguntza-bearra nabaitzen asi nintzanean, orduantxe iges egin zidaken albotik. Inguruetako auzoak egiten zizkidatek artzai-lanak geroztik.
- IXTEB. Penagarria da, bai.
- RAMUS. "Ardiak saldu", esaten zidatek. Etsiko al-niek ardirik gabe? Negar ere egingo likek Ramusitsuak ardiak saltzean.
- IXTEB. Nik al banu...
- RAMUS. Ez, seme, I Jaungoikoak autu au beste artzantza baterako. Jarrai akiok bide orri. Osaba baño lenago duk Jaungoikoa.
- IXTEB. Egia ... (Ixil-unea). Goibeldu egin gaitu oroipen onek, osaba. Jo dezagun beste zeozertara.
- RAMUS. Bai, seme: "aurpegi argi ekaltzari": orixe duk onena.
- IXTEB. Eguzkia ere mendi-gañetik agertu da, eta joan bear dut oraintxe nik ere. Penadegi'ko apaizgai laguna zai edukiko dut gaurgero.
- RAMUS. Nik ere, eguerdirako baba egosten jarri bear diat... Ator i ere illunabarrean.
- IXTEB. Bai, orixe. Eta gazta zar bati erasteko ortzak zorrotz ekarriko ditut gañera. Agur, osaba. Egun ona igaro (Bijoaz biok).
- RAMUS. Agur, Ixteben, nere illobetan zintzoena. (Bijoa Ixteben mendi-bidetik. Baita Ramus ere poliki-poliki borda-barrura). Bakarrik

biziko naiz munduan. Bañan nere dukatakez dira Petri'rentzat izango... (Sar bedi).

VII AGERRALDIA

Petri bakarrik

PETRI. (Zuaitz-artetik irten eta, makur-antzean eta bildur xamar) Entzun diat dana. "Nere dukatakez dira Patri'rentzat izango". Laister ikusiko diagu ori... Pikope ortantxe zeudek gordeak. Poltsa uts auxe utziko zeeat. (Makur-makur bijoa gordelekura, aldamenetara begira) Ez duk ageri iñor. (Poltsa betea eskuetan artuaz) Emen zegok. Dana bete-betea! (Pozez) Au diruz! (Joxe'ren abestia entzuten da urrutiti) Ee? norbait zetorrek. Noan mendi-aldera. Dio, itxua, adio! (Bijoa lasterka).

VIII AGERRALDIA

Joxe, ta gero Ramus

JOXE. ("Arboletan den" abestuez. Abestia amaitu ondoren, bordako atean) Eup! Enerio'ko Joxe naiz.

RAMUS. (Azalduaz) Joxe: nere artxaitxo pixkorra.

JOXE. Ramus: Errenga-gañean bildua utzi dut zure artaldea.

RAMUS. Eskerrik asko, Joxe. Arnas-larri eldu aiz?

JOXE. Bai: iratzebailleen eupetakoz biokak ikaratu egin dira, eta itsututa, iges egin dute.

RAMUS. Nereak ere joango itukan?

JOXE. Naparroa'ko aldean arkitu ditut. Guarda basozaia oartu baño len aurea artu, eta Oyartzun-aldera jiratu ditut. Beko zokoan daude orain. Dulun-otsa entzuten da.

RAMUS. Gure Txuri baño leialagoa aiz, Joxe.

JOXE. Ezin duanari lagundu egin bear zaiola, erakutsi ziguten gurasoak.

RAMUS. Bai, bai. Ongi diok.

JOXE. Gañera, gureak ere zaitu bear nituan, eta bide batez zureak ere egitea, ez da gauza izugarria.

RAMUS. Gazta pixka bat artuko duk?

JOXE. Bidean jaten etorri naiz. Zorroan pixka bat ba'neukan, eta talo-erdi batekin uraxe gosaltu dut. (Bestera) Gaur mendian bixitariak ere ba'ditugu?

RAMUS. Bai; alai zegok basoa egun oetan. Iratzebaille-salla or joan duk aurretik. Nun topo egin dituk?

JOXE. Goyenetxe'tik gora.

- RAMUS. Aritxulegi ´ra zijoazenak izango itukan. Aiekin zijoaken gure illoba Petri ere.
- JOXE. Petri? Ez dut ikusi.
- RAMUS. Bidetxiorrez joana izango duk.
- JOXE. Bai, ongi dakizkit arek emengo bidetxiorrak...
- RAMUS. Bada egosten jarrita, oraintxen niaken lizar-ostoa egitera (Bijoaz biok mendi-aldera).
- JOXE. Gure anaia errira joatekoa da, ta azkar ibilli bearko dut nik ere. Gaurgero zai daukat.
- RAMUS. Sarritan jeisten duk zuen anaia errira... Ik ez al-duk joan bear?
- JOXE. Ez. Ni igandean... (Ezkutatzen dira).

IX AGERRALDIA

Bi mutiko

- (Iratzebailleen gosariarekin dijoaz mendira. Nekatua, iruditegian ats egiten dute).
- I MUT. (Saskia buruan dakar) Au, Ramus itsuaren borda duk. Ementxen ats egin bear diagu. Gañera txanda ere egin bear didak.
- II MUT. (Sagar bati ozkaka dator) Txanda?
- I MUT. Jeixten lagundu eidak beintzat, nekatu nauk eta.
- II MUT. Ustel arraieta! Etxetik Ergoin´eraño ortxe ekarri diat nik, bat ere ats egin gabe...
- I MUT. Ta aldapak zeñek igo dizkik? ... (Bestera) Orain ere sagarrak ostu dituk ik?
- II MUT. Ongi ederrak zeudek...
- I MUT. Jose´k arrapatu baindu...
- II MUT. Jose´k? etziok toki txarrean! Perlesiak jota zegok eta ... Zakurraren bildur eiago nian...
- I MUT. Ekatzak bat.
- II MUT. Auxebesterik etxeukat eta... (Patrikara batekoak erakutsiaz).
- I MUT. Eta bestean ditukanak?
- II MUT. Oek gerorako.
- I MUT. Motel, gero nik emango diat bestea.
- II MUT. To, ba. Bañan gero eman, gero? (Eman bezaio).
- I MUT. Bai, motell, bai (Biok jaten). Oraindik goiz arritua diagu. Gure amak presa ziken beintzat.
- II MUT. Ongi ala-ere...
- I MUT. Ikusten al-duk an arako baso ura?
- II MUT. Bai
- I MUT. Ura, dena gaztaña duk.
- II MUT. Jesuuuus! Elduak ote-zuedek?

- I MUT. Bai. Onezkero batzuek egiñak izango dituk. Onuntzean andik etorriko gaituk.
- II MUT. Aufa! (Eskuai eragiñaz). A zer jateak! Saskia beteko diagu, e?
- I MUT. Bai, motell. Ik bildu, ta ni iñor datorren begira egon...
- II MUT. Eta an goian ageri den baserri ura zein da?
- I MUT. Ura? Goienetxe. An-barrena joan bear diagu. An ere ba'ditek zakur galanta. Lengo urtean Pilartxo ta biok etorri giñukan... eta asten da zakurra zaunkaka, eta Pilartxo negarrez...
- II MUT. (Ikaratuta) Ara! ... Ikusten al-duk?
- I MUT. Zein? (Ikaratua) Ooo! Artxintxar duk eta ... Guazemak izkutatzera. (Biok, saskia iruditegian utzi-ta, zuaitz-artean izkutatu bitez).

X AGERRALDIA

Aztia bakarrik; gero bi mutikoak

- AZTIA. Jerontzio Artxintxar,
azti famatue,
mundu guztiin dago
oso sonatue
fiufi-fiufe...
gelditu ere gabe
dabil jai ta aste,
errie goiti bera
dana nastu arte:
senar ta emazte.
mutil zar ta gazte,
maite-eriak tarte,
mutxurdiñak naste...
fiufi-fiufe...
(beatzakin zenbatuaz)
danak kontsolatzen,
biotzak ukitzen.
legenak garbitzen,
karetxak ziñatzen,
tropesi-billatzen,
sorgiñak uxatzen...
boltxikotxo au txanponez (keñu egiñaz)
ondo bete arte. Amen!
Jerontxio Antxintxar,
azti famatue,
mundu guztiin dago
oso sonatue...

- (Atea joaz) Nor da emen? Ardiiri asma sendatzea etorri naiz. Beorrari karetxak ziñatzen ere dizkiet, eta gaizkiñak kendu ere bai; ta sorgiñak uxatu, gañea; eta tropeiik billatu, eroak zurtu, antzuuk ernaldu, zaharrak gaztetu... Eup, Ramus!
- I MUT. (Ezkututik irten-da saskia artu, ta bijoaz igesi).
- AZTIA. (Bordaldetik itzuliaz) Ez da etxean izango. (Gaztetxoak igeska ikusita) Eh! mutikook! Noa zoazte? (Eldu bezaio bati besotik. Bestea, saskia utzita bijoa igesi. Saskia bigarren mutikoaren eskuetan).
- II MUT. (Garraixika) Ai, ai, ai!
- AZTIA. Ez dizut ezer egingo, gizona, ez dizut ezer egingo. (Smurki). Noa zoazte?
- II MUT. Mendira... (Erdi-negarrez).
- AZTIA. Mendia? Zertaa?
- II MUT. Iratzebailleai gosaria eramatera
- AZTIA. Gosarie? (Berekiko) Boseak amorrau bearrean natxeoan-da, auxe suertea! (Mutikoari) Ea, etorri onea. (Eraman beza enbor-gañera) Nekauko zea, ta ekarri onea saski ori. (Saskia aurrean daukala, exeri bedi) Gure Jaungoikook ba'dik, orratio, aztiintzako errukie. (Saskiari ken bezaio zapi zuria) Amorratue! (Barruan dagon danari, eskuan artu ta usai egiñaz) Padela onetan bakallaoa tomateekin; emen talo bero-berook; emen sagar erreal; gaztaie emen. Onen gaztai gozoa! Ta ardo? nun dek ardoa, mutiko?
- II MUT. Iratzebailleak berak eramane dute...
- AZTIA. Ai, arraiea! ... (Sagar bati ozkaka asten da).
- II MUT. (Negarrez, garraixika) Ai, ai! Matxiliin!
- AZTIA. Ia ixilik, ume! Juml... Aiteri esango zeeat, gero... (Laisterka jaten diardula) Inakik ateatzen badek, mantekak kenduko dizkiat. (Talo-erdi bati ozka egin eta gazta eskuan artuaz) Orain gaztaie. Onen usai gozoa! Pusketa bat geroako gorde bear diat. Aidaneen gero, aste betean gaztairik ez diat ikusiko ta... Tomatesaltzea (Talo-puska bat tomatetan bustita janaz). Au gosarie! Egundo olakorik...

XI AGERRALDIA

Lengoak, eta Ramus ta I mutikoa

- (I Mutikoa ta Ramus sar bitez, itsu-mustuan, joan ziran bidetik).
- I MUT. Ara nun dagon.
- II MUT. (Etorritakoak ikustean, bijoa aiengana) Ramus, Ramus, lagun zaiguzu.
- AZTIA. Ara! emen degu nagusie. (Ramus'i) Ate-joka aritu nauzu etxeen, Ramus ta itxoiten nengoa. Ardik nola dauzkatzu? Beiiik ee pixkan bat argitu zaizkitzu, noski...?

- RAMUS. Ez nao berriketarako. (Legor) Aurrak ola mendian ikaratzea, ez da gauza zaila, bañan ezta egokia ere.
- AZTIA. Erak ikaratu die, Ramus.
- II MUT. Gosaria ere jan digu gañera.
- RAMUS. Besteren bizkarretik jateko, bai azkarra zu!... Zoaz emendik alper aundi ori!
- AZTIA. Bañan neretzat lanik ez al-dezu, Ramus? Ezbearren bat izango dezu, noski etxean... Ardi antzuren bat eo ... ernal-eziñen bat eo ... moxal errenen bat eo... Tropesiik eo ez al-dezu?
- RAMUS. Likitz, gexur-jario... Alde egizu emendik, edota, bestela... (Makilla dantzatuaz).
- AZTIA. Gizona; etzaitela asarrau beintzat. Joango naiz. Bañan begietarako sendagai bizkor askoa ba'nekarren, ba, nik onako ... (Poltsa erakutsiaz)
- RAMUS. (Txistu egiñaz txakurrari) Ea, Txuri, ator ona. (Txakur-zaunka).
- AZTIA. (Azkar asko jeikita) Ba'noa, ba'noa. Bañan oraindio nee bearrean arkitu bear dezu, eta ordun ordainduko diazu dana, Agur, Ramus (Bijoa).
- RAMUS. Alper lotsagabea... (Mutikoai) Nungoak zerate?
- I MUT. Txipi'koak.
- RAMUS. Asko jan al-dizute?
- II MUT. Ez; danean lardaskan ibilli, bai, bañan gutxi jan du.
- RAMUS. (Xexera jasotzen lagunduaz) Zoazte, zoazte lenbaitlen, gaxuok. Beranduetsiko dute, bestel, iratzebailleak. Torizute intxaur bana. Eta joan xabartu gabe, xintxo, xintxo.
- I MUT. Bai, bai.
- II MUT. Eskerrik asko, ta agur (Bijoaz).
- RAMUS. Ez da zeri. Agur, agur.

XII AGERRALDIA

Ramus bakarrik

(Jo beza pianoak A. Donosti'ren "Nik ba'ditut mortuetan ardiak...")

- RAMUS. Eun dukat eder dauzkat pikope batean,
bost kostata egiñak Jauna'n izenean
bizi al izateko zartzen naizenean...
Zenbat lan egin dedan nik nere bizian,
eun dukatok onela biltzeko! zenbat lan!
Ederrik ikusi det borda xar onetan,
ekaitz, gau illun-luze ta negu latzetan!
– Tximist-argi zorrotza leio zabalean;
trumoi-orroi-burrunda tellatu-gañean;
elurteak elurte borda-inguruan;

otso-zaunak izuna ate-zirrituan...
 ardi danak beeka, gose bait-nituan...–
 Ardiak, bai, gaxoak! ... Zein maite ditudan!...
 Negar, negar ere nik det noizean
 bein baño geiagotan, bildotxak saltzean...
 Amaren errapetik – umeak artean –
 gaxoak, zupa-zupa, esnea edatean,
 zenbat aldiz lotuta artu bizkarrean
 ta eraman ditudan marrakaz... zartzean
 bizi al izateko... mendian, pakean...
 Bañan, azkenean
 Jainkoari eskerrak ontan naizenean!
 eun dukatak or daude pikope gordean...
 Ortzen ikusi nitun kontuz bar gabeen...
 Oraindik ez ditut ikusi goizean
 – arrotzik geixko bait-da gaur mendi-aldean –.
 Orain ez dago inortxo,
 txolarte onetan

(Pikoperantza)

noan... Iñork ez daki
 nun zaitzen ditudan...
 Ementxe ... bat ... bi ... iru ... lau ... (Zenbatuaz) lau oñen
 buruan,
 ementxe... (Makurtu bedi) emen da poltsa;

(Eskuetan estutuaz)

... bañan (negarrez) utsa ! ... utsa! ... utsa !!!

(Error bedi zerraldo lurrera).

OIALA BEHERA



1988ko Uztailaren 29-30-31.

1. Urtemuga omenaldia.

Seme kuttun egiten duten eguna.

II EKITALDIA

(Lengo atadia bera. Illunabarra da. Illuntzen asi du. Aldizka igaro bitez iratzebailleak kale-aldera).

I AGERRALDIA

Aztia.

(Abesten).

Jerontxio Antxintxar,
azti famatue,
mundu guztian dago
oso sonatue...
fiufi-fiufe...

Askok egiten dio
parra eta burle,
baita xaxaru ere
atzeti txakurre...
Ai Ramus maltzurre!
biurri makurre!
Zillar eta urre,
jo bear dek lurre...
fiufi-fiufe...

Egin diak parra;
bañan, zorotzarra,
laister ni bearra,
ta ordun negarra...
Neretzat izango dek, bai,
poltxikon daukean zillarra...
Jerontxio Artxintxar,
azti famatue...

II AGERRALDIA

Aztia ta Ramus

- AZTIA. (Atea joaz) Nor da emen?...
- RAMUS. Nor zaitu? (Etxetik irten bedi).
- AZTIA. Aztie, Ramus, aztie.
- RAMUS. Zu al-ziñan? Jaungoikoak arratsalde on digula
- AZTIA. Alaxe deigula.
- RAMUS. Orra zertara deitu zaitudan...
- AZTIA. Aztiik beti daki zertaa deitzen diotean.
- RAMUS. Ortarako zerate aztiak.
- AZTIA. Etorri nintzenerako igarri nizuan zertaako izango zan: kontsulte eiteko. Ez da ala?
- RAMUS. Noski.
- AZTIA. Bai, alegial Ta gañera, kontsulte ba'dakit nik zertaako izango dan. Zea; alegie: andrea artzea zoazela eo etzoazela eo... ez da ala? Ortaako ba'dauket nik aako botil ootan... (Poltsa erakutsiaz).
- RAMUS. Zau de ixillik; ixillik zau de Jaungoikoaren izenean, Jerontxio, olakorik esan gabe.
- AZTIA. Beaz ez da ala?
- RAMUS. Bai zera.
- AZTIA. Ez da, ba, beti beti lenegoti asmatzea errez izaten-da... Orik guztiik ola ta, dukat asko daukezu?
- RAMUS. A! ... Len bai... eun pillan-pillan.
- AZTIA. Orain asko dauzketzu?
- RAMUS. Bat ere ez.
- AZTIA. Beaz danak jan ein dituzu?
- RAMUS. Ez, Jerontxio, ez...
- AZTIA. Beaz lapurtu ein dizkitzue?
- RAMUS. Lapurtu, bai, zartzarorako gordeta neuzkan dukatak lapurtu!
- AZTIA. Ikusten dezu nola asmau dean? Asmau baietz zetaa deitu nauzun ee? Lapurra nor dan asmatzea, ez da ala?
- RAMUS. Bai.
- AZTIA. Gero aztiik au, aztiik ue esango due. Aa nik emen asmau guzie.
- RAMUS. Guztia? Ta lapurra?
- AZTIA. Ertengo do orrek ee. Gela illunik ba al-daukezu etxean?
- RAMUS. Bai. Zertarako duzu gela illuna?
- AZTIA. Ba'akizu. Geon errezu ta gañeako lataniik esan ba aztiik ez deu eze asmatzen -da...
- RAMUS. Ortarako bear al-duzu?
- AZTIA. Bai, ba; ortaako. (Ao zabalka) Jatekorik ba al-dao gelan?
- RAMUS. Bai. Saski bat bete gazta ta lukainkak txintxilik. Ez al-da komeni an egotea errezuak egiteko?

- AZTIA. Komeni komeni ez; bañan baleozke. Ez diea galeaziko, noski, errezoik. (Bere baitan) Gaztai-erdi bati bizie kenduko zeoat, beintzat, ortaako modurik soertatzen bazaku. Aspaldiin ez diat jan asko besteen bizkarretio ... Neretio re ez asko asko. (Sar bedi).

III AGERRALDIA

Ramus bakarrik.

- RAMUS. (Exerita, gogarti) Egoera trixtea! Jesus, Jesus! Gañezka egiteraño bete da nere zorigaitza. Korderik gabe utzi nau goizean samintasunak. Nere onera etorri naizenean, Joxe deitu dut. Nere artzai-mutil leiala. Gaxoa, arriturik gelditu da... Billatu bear zan lapurra. Nor izan zitekean? Artzaireren bat? Iratzebailleren bat? Diruak, gaur goiza ezkerro palta dira. Atzo gabeen or zeuden... Aztiari deitzera bidali dut mutikoa, eta baita azkar asko ark nere esana egin ere. (Izkera aldatuaz) Itsu zahar bati dirua ostutzeko biotza bear du orratik! Ez da errukirik munduan... Mundu tristea, negarrezko erbestea ... laister utziko zaitutz... Ezin dut geiago. Au ez da bizitzea. (Ernatuaz) Bañan ez diote onik egi bear, ez, nere dukatak, ostu dituan biotz-beltzari. Amaika izerdi ta neke kostatakoak dira, ta neke ta negarrak berekin izango dituzte aiek beti. Biotz-gabeak, makurrak, gogorrak...

IV AGERRALDIA

Ramus ta Aztia.

- AZTIA. (Argi bat piztua eskuan. Barrutik) "Bederatziik zortzie; zortziik zazpie; zazpiik seie ... (Agertu bedi, ezpañak igurtziaz) Ok zetuk gaztai goxook! ... Seiek bostekoa; bostekoak luakoa... Nereak balie! Laukoak ... Amalau zeuzkean errenkarean ipiñilik. Bat ia jan diat; amairu geatu. Baña bai gozook! Laukoak irukoa; irukoak bie... iik bt. Lapurrek ein dezala zirt edo zart". Ramus; ein ditut errezook.
- RAMUS. (Urduri) Ta lapurra?
- AZTIA. Orain ertengo do. Atoz onuntza. Eutsi argi oni (Argia emanaz). Ezkerreko eskuun. Oooia! (Atera beza boltxikotik karta-parea) Ia; kartak bota bear ditugu. (Etxeri bitez lurrean-edo). Bastook irteten bado, lapurre etxean dezu; ezpatak irteten bado, kanpokoa da...
- RAMUS. Ai, ene! (Antsika). Zer atera bear ote-dut nik saltsa ontatik? (Aztiari) Eta kopa ateratzen bada, zer?

- AZTIA. Ez do ertengo.
- RAMUS. Ez dela aterako? Nola dakizu?
- AZTIA. Nola jakingo det? Aztia izanda... Ez al-dakizu, ba, ni aztie naizena? (Bere baitan) Nola ertengo dik, ba, kopa ta urreik baeko karta-parea ekarri diat-eta.
- RAMUS. Eta urrea ateratzen bada?
- AZTIA. Azkar nai dek urreak ertetea... Geoxeago ori, geoxeago... (Asi bedi kartak botatzen) Onek, kanpokoia dala ... onek, etxekoa, onek kanpokoia ... onek etxekoa... onek kanpokoia... onek etxekoa ... Zenbat bota ditugu?
- RAMUS. Neri galdetzen al-didazu?
- AZTIA. (Aserre) Nori galdetuko zeoat, ba?
- RAMUS. Ez diot, ba, arretarik ipiñi. Berriz asi bearko duzu...
- AZTIA. Ia, ba, berriz. Bañan egon ernai. (Kartak botatzen) Onek kanpokoia dala ... onek etxekoa... onek kanpokoia... onek etxekoa... onek kanpokoia... onek etxekoa... onek kanpokoia... Zenbat bota ditugu?
- RAMUS. Zazpi.
- AZTIA. Eon, ba, ernai. Amabi Apostoloen izeneen, amabi karta bota bear ditugu-ta ... onek, etxekoa.
- RAMUS. Zortzi.
- AZTIA. Onek, kanpokoia.
- RAMUS. Bederatzi.
- AZTIA. Onek, etxekoa.
- RAMUS. Amar.
- AZTIA. Onek, kanpokoia.
- RAMUS. Amaika.
- AZTIA. Onek, etxekoa...
- RAMUS. Amabi.
- AZTIA. Amabi esan dezu? Ea, konta itzagun oian. (Zenbatu bitza) Etxekoa, etxekoa, etxekoa, etxekoa, etxekoa, etxekoa, ... Seik, lapurra etxekoa dezula. Kanpokoia, kanpokoia, kanpokoia, kanpokoia, kanpokoia, kanpokoia... Eta beste seik, kanpokoia dala... Lapurrek, erdi-etxekoa eta erdi-kanpokoia izanbear do.
- RAMUS. Erdi-etxekoa eta erdi-kanpokoia? Nola izan diteke ordeia ori?
- AZTIA. Ori zeorrek jakingo dezu. Morroirik-edo ez al-dezu?
- RAMUS. Nik? ez, Bañan izan-da ere, berdin izango litzake. Ez al-dakizu Euskaldun-legez, morroia etxeko izan oi dirana ta ez arrotz?
- AZTIA. Dana dala. Neri ni dukat zor dizkiatzu kontsulteagatik.
- RAMUS. Gero eman bearko dizkitzut, ba, Jerontxio. Orain ez daukat. Ba dakizu lapurtu egin dizkidatela...
- AZTIA. Gerooo? Al ez, ez, ez. Bereala, konpañeo, bereala. Bestela nik jakingo det zer egin. (Bere baitan) Saski-gaztaia kendu bear zeoat... (Asarre, alegia) Bai, jauna, bai. Nik jakingo det zer egin (Bijoa etxe-barrura).

- RAMUS. (Zer egingo dion bildurrez) Nora zoaz, Jerontzio? zer egin bear duzu?
- AZTIA. (Saski-gaztia besotik zintzillik, igesi) Zer egin bear dean? Igerriko diozu. (Ixeke ta siñuak egiñez, bijoa mendi-aldera, laxterka).

V AGERRALDIA

Ramus bakarrik; gero Joxe.

- RAMUS. Zerbait ostuko zidan gaiztotzarrak... Baita, gazta-saskia daramala dijoa noski lapur alena... Orral ... Nora zuaz, Jerontzio? Nora zuaz? (Abiatu bedi laxterka aztiaren atzetik, bañan eziñez geldi bedi). Al gezurti aundia! Inpernutik irtena aiz bai, i... Ezin aut arrapatu, bañan erori bearra aiz nere eskuetan. (Txistu luzea joaz) Joxeee! A, billaua! Itza ta pitza dariokela iñoren bizkarretik jaten abillen alproja aundi ori ... (Ixil-unea)? Bañan zer ari naiz ni? Erru guztiak neronek izan-da... zer ari naiz ni iñori biraoka? zertara deitu dut nik gezur-jario ori? zertara? ...
- JOXE. (Laisterka sartzen da) Zer duzu, Ramus, garai ontan?
- RAMUS. Aztiak zerbait ostu zidak, noski.
- JOXE. Artxintxar'ek?
- RAMUS. Bai.
- JOXE. Noruntz jo du?
- RAMUS. Goi-aldera.
- JOXE. Ba'noakio atzetik. Egon lasai, Ramus. Iratzebailleai ots egingo diet, eta ez du iges-egingo. Laister gaituzu emen. (Bijoa laisterka).

VI AGERRALDIA

Ramus bakarrik; pero lxteben

(Pianoak jo beza zerbait, Ramus'ek olerki au esaten duan artean. Nai izan ezkeru, abestu ere egin dezake, "Oraipenetan" bezela).

- RAMUS. 1) Baserriak bizia eman-da,
 mendiak ninduan azi.
 Borda zar ontan, ardi-artean,
 nai nuan mundua utzi...
 Au zori txarra, gaur bertan bear
 ospital batera jetxil

- 2) Mundu zoroak maite izaten du
 aberats, eder ta gazte;
 bañan zarrari, beartsu bada,
 "ken ortik" zokora zaite"...

(Sar bedi Ixteben)

Ai, Ramus zarra! zar ta beartsu,
 iñork ez bear zu maite.

(Exerita) Ezer gabe, Jendearen parragarri... Bakarrik nago munduan. Erdi-itsu, beartsu... ez, iñork ez nau maite...

IXTEBEN. (Bizkarean joaz. Oso xamur) Bai, oaba, bai, maite zaituzte.

RAMUS. E?...

IXTEB. Ni naiz osaba; zure illoba Ixteben. Zer duzu orrela mintzatzeko?

RAMUS. A...! Ik Ixteben... maite nauk, bai.

IXTEB. Danok maite zaitugu. Bañan zer dezu?

RAMUS. Eun dukat ostu zizkidatek.

IXTEB. Eun dukat?

RAMUS. Bai, eun dukat. Pikope ontantxe gordeak neuzkaken. Nere bizi guzian altxatako diru-pizarrak ituken. Gauza aundirik ez, bañan nere zartzarorako itxaropena.

IXTEB. Nork, ordea?

RAMUS. Eta orain aztiak etxean neuzkan gazta ta lukainka danak eraman zizkidak, noski.

IXTEB. Aztiak?

RAMUS. Bai, Artxintxar'ek.

IXTEB. Ikusi dut mendian laisterka. Ez nuan jakin bear...

RAMUS. Joxe bidali zeoat atzetik, iratzebailleai ots egitera.

IXTEB. Bidali duzu?... Orduan ez estutu. Arrapatuko dute... Bañan lapurra arkitzeko aztia ekarriko zenduan ba?

RAMUS. Bai, seme.

IXTEB. Bañan, osaba: ez al-dakizu Artxintzar, gezurti aundi bat besterik ez dala?

RAMUS. Ongi egia, ala-are! Bañan naigabeak eragin zidak, seme. Zer egin ez nekiken penaz ta samíñez. Goizean emen zebillela ikusi diat, eta dei egin zeoat.

IXTEB. (Gogarti) Bera ote-duk?

RAMUS. Bañan ark etxidak lapurrik arkitu. Bai, zera! Bera bai, ba'duk ura lapurra galanta. Berak ostu zizkidak nere gazta ederrak. Ez ote-zizkidak gero berak ostu dukatak ere? (Ixteben, gogartetsu, osabaren leloari jaramonik egin gabe). Ixteben: ez ote-diagu Artxintzar bera nere dukaten lapurra ere? Esaidak, Ixteben: zer derizkiok? ez al-didak erantzuten? Ez al-diok ajolarik osabaren zorigaitzari?

IXTEB. Bai, osaba, ajola diot. Ez diot, ba, ajolako? (Gogartetsu. Bere baitan) Ezin kendu diat burutik. Ortaraño eltzea orratik... bañan etzekiat nik...

- RAMUS. Emen izan duk gaur goizean bordako atadian. Orduan eramango zizkidaken ark nere dukatak. Ah, billaua! Bera duk, bai, bera duk lapurra. (Ixtoben gero ta gogartetsuago). Ixtoben: oa, joan adi azkar aren atzetik, deitu eitzak iratzeballeak, eta arrapa ezazue azkar lapur aundo ori. Petri ere laister emen duk onezkero, eta danon artean ez egiozute iges egiten utzi.
- IXTEB. Petri? bai laister emen da. Ikusi dut mendian behera onuntz-aldera artzen. (Bere baitan) Joan ere nere atzetik egin duk ura, eta ni baiño lenago irtena ukan bordatik. Zer egin otedik ark bitartean?
- RAMUS. Bi anaiok naikoa zerate Artxintzar arrapatzeko. Oa, Ixtoben, oa gaxori, laister, iges egin dezan baiño lenago.
- IXTEB. Ez, osaba. Artxintzar arrapatuko dute. Nik zure ondoan egon bear dut.
- RAMUS. Eta zer egin bear duk ba, emen? Ik ez duk nere esana egin nai, Ixtoben.
- IXTEB. Bai, osaba, bai. Bañan utzi nazazu pakean orain... Bai al-dakizu dukatak noiz ostu dizkitzuten?
- RAMUS. Bai, gaur goizaldean. Brr gabeen or zeudeken.
- IXTEB. (Erabaki aundiz) Ederki. Goazemazu orain bordara.
- RAMUS. (Urduri) Bordara? zertara ordea?
- IXTEB. Goazen bereala. Azkar ibilli bearra daukagu.
- RAMUS. (Bordara bidean) Goazemak, goazemak. Bañan zer asmo darabilkik buru ortan?
- IXTEB. Laister ikusiko dezu. Ibilli gaitezen azkar, laister emen degu-ta.
- RAMUS. Laister? zein? (Sar bedi bordan).
- IXTEB. (Bere baitan) Bera baldin bada, orratik, emen erori bear dik. Ori ez; osaba zaharraren diruak lapurretan eramaten eztioat utziko, anaia badiat ere... (Sar bedi bera ere barrura).

VII AGERRALDIA

Austin; gero Ixtoben, Ramus eta bi iratzebaille.

- AUSTIN. Ats egin dezadan pixka bat ementxe, nere lagun zahar Ramus´ekin. (Exeri berdi) Semeakebiaten utzi, eta, illunabarra baiño len irten nauk menditik; eta illunak ia arrapatu niok bide-erdian. Zer -ote da zahartzea! Ariñago ibilli izan dizkiat bide oetxek... Ontazkero semeak ere laister dizkiat ematen, eta aien ondoan obeki joango nauk; illunabarrean ez bait-dituk ongi ikusten bideetako arri kankarrak. Muturkatu ezker, berriz, ez uke paltako, Austin mendian moskortu egin dela esango lukean mingain gaiztorik. Eta oraindik ez gaudek orrenbestean, mendian bestetan oitu baiño geixeago edaten bada ere. Ementxe itxoingo ziotet, beaz, gure bi mutillai.

- Sartu nadin Ramus´enean. Ea zer dion gure adiskide zahar onek. (Jeiki ta bijoa bordara. Ontan ideki bedi atea, eta azaldu bitez Ixteben ta Ramus atean izketan).
- IXTEB. Zuk ez aztu nik esandako. Nik xixtu egingo dizut, eta nere xixtua entzutean, nik agindutako guztia ta nik agindu bezela eginbear duzu. Or uzten dizut ortarako poltsa arri-koxkorrez betea.
- RAMUS. Bai, bai; ik esan bezela egingo diat dana.
- IXTEB. Eta egon erne.
- RAMUS. Bai, bai...
- AUSTIN. Jaungoikoak gabon dizuela.
- IXTEB. Austin! Zu al-ziñan?
- RAMUS. Atorkit, Austin, atorkit ordu onean lagun zar ori.
- IXTEB. Sar zaite, Austin, sartu barrura zu ere.
- RAMUS. I bezelako lagunena bear aundia diat oraintxe...
- AUSTIN. Okerrik al-duzute? (Sar bitez barruan Ramus eta Austin, eta itxi bezate atea).
- IXTEB. Eratu zioat zepoa. Emen eroriko duk, bera baldin bada. Eta bera dala esaten zidak biotzak. Ba´diak nik gure anai orren berri, eta ba´zekiat Petri gurea ortarako ta geiagorako ere gai egiña dagola aspaldi ontan. Ez diat nik anaia gorroto, bañan maite diat, eta asko maite diat osaba gizagajoa. Eta aren diruak orrela eramaten etzioat utziko, ezin utzi, errukirik gabeko biotz-beltz orri. Emen utzi bearko dizkik ostutakoak. Emen duk norbait. Ezkuta nadin (Ezkutatu baño len, sartu bitez iruditegian bi iratzebaille, Austin´en semeak).
- IRATZ. (Sartzean, Ixteben´i) Tira, tira. Goazen be-aldera, illuna duk era.
- IXTEB. Zuek al-ziñaten? Aita barruan duzute gure osabarekin izketan.
- IRATZ. Oraindik emen al-da? Ordu bete ba´duk irten zala menditik, eta oraindik emen?
- II IR. Ixteben, esaiok etortzeko; berandu dugula.
- IXTEB. Itxoizute pixka bat, zuen bearra diat-eta.
- IRATZ. Gure bearra?
- IXTEB. Bai; ikusi al -duzute gure anaia?
- IRATZ. Petri? Gure atzetik zetorrek. Emen duk gaurgero.
- IZTEB. Atozte, ba, nerekin bereala. Zaitu bear diagu. Izkutatu gaitean (Belarrira zerbait esanaz eraman bitza eskubi-aldeko zuaitz-artera).

VIII AGERRALDIA

Petri, ta gero lengoak.

- PETRI. (Sartutakoan) Ez duk ageri. Barruan negarrez egongo duk. A, ja, ja, ja! Gizagaxoa! Etxerakoan etorriko naizela agindu zioat, eta poztutzero sartu egin bear diat. (Entzun bedi txistu

luze bat). Ixo! ... Zer zan ori? ... Iratzailleren bat izango ukan... edo artzaireren bat bestela. (Asi bedi Ramus borda-barruan abesten). Ixo... ! Kantari ari duk gure osaba...

RAMUS. (Barruan) Eun dukat eder dauzkat.

poikope batean;
beste eun jartzera noa
lengoen gañean (bis).

PETRI. (Adi-adi egon ondoren) Oraindik etzekik ezer. "Beste eun jartzera noa lengoen gañean". Bai ote" ... Ixo? ixo?... emen zetorrek. (Azaldu bedi Ramus, eresi au bigarren aldiz abesten; eskuan poltsa bat arri-koxkorrez betea. Iruditegian agertuta bereala, ezkutatu bedi ezkerreko ariztian. Illuna da. Ramus kantari dijoan artean, Petri makurka-makurka) Mendi-aldera artu dik. Enbor baten galean exeri duk... Bañan nundik dizkik orrek beste eun dukat? Ixo! ixo?...

RAMUS. (Lengo ahapaldia bukatu ta berehala abestuaz)

Anai indiano bat
ba'dut Amerikan;
eun dukat ark bidaldu
dizkit guar andikan. (bis)

(Eta itzuli bedi berriz ere bordara, lengo ahapaldia abestuaz).

Eun dukat eder...

PETRI. (Ramus bigarren aldiz "Eun dukat eder" abesten datorrela) To... ta egia dik. Beste osaba bat ere ba'diagu guk, an Ameriketara: Anton, osaba Anton... Ark bidalduak, beraz"... (Etortzen ikusi-ta) Ba'zeturrek, ba'zeturrek... eta eskuan zekarrek boltsatao berria... Egia dik nunbait... Sartu duk berriz ere bordara... Lengoen gañean jarri bear dituala esan dik beste eunak. Jarri ditzala, jarri; ez dituk gaizki etorriko. Bañan uste ez badu ere, lengo eunak etxeudek pikopean; emen zeudek, emen (Poltsa erakutsiaz. Gero, bapatean esku zabalez bekokia joaz) Bañan, Petri, zoro aundia! Ia-ia ederra egin genikan! Lengoak pikopean arkitzen ez baditu, ez zizkioat, utzio, nere eunak lengo lekuan... (Bljoa pikopera, ta makurtu bedi. Zoro-parra) Je-je-je-je... Eun jarri ta berreun jaso. Laister berreun! Laister berreun!...

IXT. eta IRATZEB.

(Irten bitez irurak ezkututik, eta artu bezate estu-estu lepotik eta besotetik. Ixteben'ek sarkor) I al-intzan?

PETRI. Ixteben!! (Amorruaz).

IXTEB. Petri!!

PETRI. (Amorru biziz) Urde billaua!!

IXTEB. Billaua, i aiz. Osaba itsu zaharrari diruak lapurtzen dizkioken billaua, i aiz.

PETRI. Aska nazazute, edo-ta bestela egingo diat nik ez-egitekoren bat gaur emen.

IRATZ. Ez arronkarik egin, adiskide. Iru gaituk gero... eta bakoitza iretzat naikoa ta sobra.

- PETRI. (Indarka) Uzteko!! Billauak!
 IRATZ. Tira: berriketa gutxi emen, eta aiek onak.

IX AGERRALDIA

Lengoak, Ramus eta Austin

- RAMUS. (Atea zabaltzean, entzun bitza Petri'ren azkeneko itzak) Bañan zer da nik entzuten dedana: Petril... (Oyu garratz) I al -aiz, Petri?... Ez didak erantzuten...? Esaidazute ezetz, zalantzetan itotzea nai ez badezute. (Ixil-aldi) I aziz beaz?...Petri? Ta non duk biotza? Ori al-duk nere onginayari ipa diokan ordaña?... Petri: labain zorrotza sartu didak gaur biotzean. Ez, ez adilla agertu geyago nere aurrean. (Xamur) Ba'niak; bordara niak nere lotsa ta negarra ezkutatzera. Utzi nazazute bakarrik, antxe, nere txokoan. (Bijoa bordara. Irrintziak urrutira. Petri iratz-ebaileen eskuetan).
- AUSTIN. Ez adilla orrela estutu, Ramus.
- IXTEB. Bañan nora zoaz, osaba? (Ramus'en aurrean jarrita. Irrintziak mendi-aldeetik).
- AUSTIN. Adoretsu adi, Ramus, ez duk-eta irea gaiztakeri orren errua.
- RAMUS. (Adoretsu, etxera abian) Ez; nik etzioat orrelako txarkeririk erakutsi. Nik etzioat on besterik egin. Bera joan ukan nere albotik erri-aldera, ni zahar eta erdi itsu au mendian bakarrik utzita. An galdu dik biotza. Barkatzen zioat; bañan joan dedilla betiko ara. Ez dedilla agertu geyago onera, mendiko pakea asaldatzera. (Sar bedi bordan. Irrintziak gero ta alderago).

X ETA AZKENEKO AGERRALDIA

Lengoak eta joxe ta Aztia ta iratzeballeak

- JOXE. (Sar bedi pozik) Jaungoikoak gabon; Arrapatu degu aztia. Or dakarte iratzeballeak, estu aski lotuta. (Azke-itxok esatean, asi bezate iratzeballeak "Jeupa, jeupa" abestia, eta sartu bitez abesten, Aztia lotuta dakartela. Abesten diardutela, erakutsi bezaioite aztia lxtenben'i, eta onek ongi-etorria eman bezaye danoi).
- IRATZ. Jeupa, jeupal irrintzika,
 iratzeballeak menditikan.
 Jeupa, jeupal irrintzika,
 xatotik naikoa egiñikan.

BATEK. Illunabarrez aizkaturikan,
 atso ta agureak leiotikan
 galdezka daude, arriturikan,
 zein ote datorren menditikan.

DANOK. Jeupa, jeupa!...

AUSTIN. (Austin'en seme batek iratzeballeai Petri'ren lapurreta keñuz
 adierazten dienean, Austin'ek abestu bezai:

 Utzi nai ez donak bakoitzari bere,
 pagatu bearko dik "larrutikan ede"...

 Eun esguan-da geyago nai, ala fede!

 BERREUN DIRALAKOAN UA BERRIZ ERE.

DANOK. Utzi ez dionak...

 (Eta gero):

 Jeupa, jeupa! irrintzika
 iratzebailleak menditikan;

 Jeupa, jeupa! irrintzika
 zatotik naikoa egiñikan (Irrintziak).

BATEK. Illunabarrez, aizkaturikan
 atso ta agureak leiotikan
 galdezka daude, arriturikan.
 zain ote-datorren menditikan.

DANOK. Jeupa, jeupa! irrintzika...

OYALA BEHERA



Euskaltzaindiaren ate itxiko bilera. 1988.

MANUEL LEKUONA

ZIGOR

EUSKAL OPERA - OPERA VASCA

GAYA - TEMA

Campion'en SANCHO GARCES'etik

ITZAK - LETRA

Lekuona'tar Manuel



LABURPENA

Naparroak Errege bat bear du. Etsayak nunaitik sortzen zaizkio. Egoaldetik batzuek – aspaldikoak, mairuak, musulmanak –; eta iparraldetik besteak, orain-oraingoak – wikingoak, normandarrak –; Bayona'ko itxasaldean an bait-dabiltza egun otan, gora ta bera, gelditu gabe.

Orain arte ondo zaitu du egoaldea, Tudela-ingurua, Aibar'ko Nagusi, Gartzea Buruzagiak. Bañan gaur ez dira naikoa Buruzagiak. Buruzagia, nekazari bat izan oi da; gudatea bukatzen danean, bere soroak goldatzera biurtzen dan nekazaria. Gaur Errege bat bear du Naparroak. Naparroa'ko mugak ondo zaitzeko guda prestatzen biziko dan Errege bat. Beste egitekorik gabe.

* * *

Aibar'ko Gartzea da Naparroa'ko Errege-gai jatorra. Berak zuzendu ditu orain arte Tudela-aldeko guda-burruka garaitzadunak. Eta berak zuzendu ditzazke ederkitxo, emendik aurrera Bayona-aldetik sortu ditezkeanak ere. Bañan Gartzea il egin da, ain zuzen Naparroa'k bearrik-bearrena jarraitu ditzakeana; ume da, ordea, oraindik, illabete gutxiko ume txikia, Santxol Gartzeiz.

Bañan bitartean, Gartzea'k ba'zuan anai bat ere, Zunbeltz. Gartzea il danean, Zunbeltz'i Naparroa'ko Errege izan-nai zoro bat sortu zayo barruan. Eta, gaur edo bigar Santxol txiki arek Erregetza kendu dezayokean bildurrez, or sortzen zayo baita bere illoba txiki ura iltzeko asmo makurra. Errez egin dezake bere egitekoa. Gaua dala naiz egun, ba'du sarrera bere anai zanaren etxean, Aibar'ko Jauregian; eta etxeko guztiak lo daudela, iñork igarri gabe, errez egin dezake bere egiteko izugarria.

Bañan Aibar'en, nagusi zanaren orde z ba'da morroi jator ta leyal bat, Urdaspal. Gartzea'k iltzerakoan Urdaspal'i eman dio, bere etxea ta bere semea zaitzeko agindua.

Morroi zintzoak ikusten du umearen arraizkoa. Bildur da, Zunbeltz'ek ilko ote-duan. Eta orregatik gauero-gauero, iñori esan gabe, seaska-trukada bat egiten du: bere seme Urko, Santxol'en seaskan, eta Santxol Urko'renean ipintzen ditu, ixil-ixilik.

Alako batean, sartzen da Zunbeltz Aibar'ko Etxean, gau illunean; eta ixil-ixilik seaskaetara joanda, or ematen dio izugarrizko labainkada, ustez bere illoba Santxol txikiari, bañan egiazki Urdaspal'en seme Urko aurrari. Eta bereala, ustez bere bideko beaz-topak baztatu ondoren, asten da, asi, bera ere, bere anai Gartzea zana bezela, etsayen kontrako guda-burruketan. Bañan beti ta beti, kukuak oker jotzen dio; ez du garaitza bakar bat ere irixten.

Bitartean Urdaspal zintzoa, aurraren eriotz-ondoren, Aibar-tik aterata, bere emazte Otxandeta´rekin eta Santxol txikiarekin, Urdaspal izeneko bere jayot-errira joaten da, an, Pirene -mendi-mendietara. Santxol guztion ustezilla da, eta Urdaspal´en seme Urko´tzat daukate mutilla erriko guztiak. Eta alaxe azitzen dute Urdaspal´ek eta Otxandeta´k ere guztien aurrerako, beren seme Urko balute bezela.

Urdaspal errian ba´da baita emakumezkoen Monastegi zaar bat ere, eta araxe biltzen da, andik laister, Gartzeta´ren alargun Andre Urrea, eta urte gutxi barru baita Monastegiko Abadesa izatera iritxi ere. Alaxe, bere semeak jakin gabarik, ama bera da Santxol´en urratsak zuzentzen dituana, gaur edo bigar Naparroa´ko Errege izatera eldu dedin, Urdaspal du Andre Urreak laguntzalle, lan berezi artan.

Urteak joan eta urteak etorri, aunditu alean, asten, asi, "Urko" ere, berebiziko guda-burrukak egiten, Pirenez beste aldean, Bayona´ren jabe egin dira wikingoen aurka.

* * *

Zunbeltz´ek ez ditu begi onez ikusten "Urko"ren garaitza oyek. Areago oraindik, Jakiten duanean, bere alaba Lore ta "Urko" elkarrekin "dabiltzala". Eta, ezin-eramanaren ezin-eramanez, or asten da artu-emanetan wikingoakin berakin, mutil uraxe al dan bezela erriaren aurrean zikindu ta ondatzeko asmoz. Ba´da ortarako inguru ayetan ala-olako gizon misteriozko bat. Burni, zintzarri-egillea, wikingoa, normandarra, zintzarri-saltzen euskal-baserrietan ere sarrera duana. Burni´k esaten dio Zunbeltz´i, nola zikindu dezakean "Urko" ura. Bere alaba Sorgin´ek artu dezala mutilla bere gain, eta ikusiko duala, neskaren maitatzaille eta normandarren adiskide nola egingo duan azkar asko... Bañan dana alperrik; mutillak leyal jarraitzen du bere Lore´ren eta bere Euskalerriaren maitasunean.

* * *

Bitartean, normandarrak, wikingoak, Bayona´ren jabe diranez, or prestatzen dute guda-eraso bat Iruña´ren jabe egiteko. Eta ba´dijoaz sail izugarrietan erririk-erri, Burni gidari dutela, gora ta gora. Belate-aldera. Burni´k, guztion aurretik Bayona´ko Gotzai Leon Donearen burua daramaki azta-makil luze baten muturrean . – Bidean datozela, erri txiki batean topatu dute ta il—. Leon Donearen buruaz gañera, euskaldun giza seme-sail aundiak dakarzkite, lotuak, eta ayekin batean baita emakume-sail batzuek ere. Bañan Belate´ko leporaño eldu diraneko, an dago "Urko" bere mutil batzuekin. Antxe itxedoten die, beetik gora datozenei. Ez dijoa, orratik, burrukan astera. Azarikeri bat prestatu nai die baizik... Ogei bat zaragi-ardo napar, bide baztarrean utziak ... Normandarrak, edale onak bezela, or moskortzen dira ondoraño; eta euskaldunak, "Urko" buruzagi dutela, ebaki gaizto egiten dituzte eta zearo txikitzen ezpatadantza bikain batean. «Urko»ren izena dabil bitartean guztion aotan azarikeri polit onen asmatzalle bezela.



Normandarren sarrera onen ondoren, Naparroa'n gero ta geyago nabaritzen da Errege baten bearra; eta Belate'ko garaitzaren ondoren, gero ta geyago zabaltzen da «Urko»ren izen aundia Erregetzarako.

Gauzak ontan daudela, Naparroa'ko Batzar Nagusirako deya banatzen da. Errege aukeratzeko Batzarra egin bear da Leire'ko Monastegi aundian. An banatzen dira Menditar eta Erriberatarrak. Eta guztion artean an dator baita Urdaspal'ko Abadesa ere, eskubide duna bezela, berak ere bere itza esatera Batzar Nagusi artan. Ustezko Urko ta benetako Santxol dakarki – morrontxo bezela – bere aldamenean. Urdaspal ere an dator, ezkutari bezela, biokin batean...

Leire'ko Abataren ondoren, Zunbeltz'ek itz egiten du Batzarrean, eta bere burua eskeintzen eta aurkezten Naparroa'ko Erregetzarako, Gartzea zenaren anai bezela. Urdaspal mintzatzen du urren: Zunbeltz'en aurka garbi-garbi. Zunbeltz'ek ixilduerazi nai luke Urdaspal, eta ia bera nor dan galdetzen dio, Zunbeltz baten aurka mintzatzeko. Urdaspal'ek seaskaetako gertaera gogoratzen dio, bañan esanaz, gau artan il zuana, etzala izan, berak uste bezela, bere illoba Santxol, Urdaspal" en seme Urko baizik, eta, orregatik, ildako semetxoaren aita danez salatzen duala orain guztion aurrean iltzalle bezela, eta aurkezten duala gañera SANTXOL GARTZEIZ gaztea – Aibar'ko Gartzea'ren eta Andre Urrea'ren seme ederra – Naparroa'ko Erregetzarako.

Zunbeltz era artan burrukatur, zearo asarretzen da, eta ateratzen du bere gerriko ezpata, eta ekiten dio Urdaspal'i. Urdaspal'ek ere neurri berean erantzuten dio... Bañan, biok ezpata-jokuan gogor ari dirala, or sartzen da tartean Lore ... eta ustekabeen aita ezpataz jotzen du alaba, eta iltzeaz uzten. Batzar guztiak oyuz ekiten dio Zunbeltz'i, bi aldiz iltzalle danari bezela. Lore iltzen da, il, gertatu dan guztia bere aitaren gaiztakeriaren ZIGORRA izan dala esanaz.

Batzarrak ez du zigortu nai Zunbeltz, merezi duan bezela; bañan basamortura joan dedilla eskatzen dio oyuka. Eta Zunbeltz – Kain berri – erdi-zoratua, an dijoa ixil eta makur, bere lotsa Urbasa'ko basoetan ezkutatzera, eta antxe bizitzera basa-pizti bezela, gaur oraindik "Zunbeltz" izena duan baztar illun batean.

Monastegiko fraideak eramaten dute Lore gaxoaren gorpuz errugabea lur ematera, Batzarrak Errege berriaren Ereserkia kantatzen duan artean, eta Santxo Gartzeiz'ek bere Lore kutunari illeta garratza abesten dion artean.

Batzarreko morroi gazte batek, buruki biguin gorri baten gañean Naparroa'ko Errege-koroi urrezkoa dakarki geldiro-geldiro.

LENENGO EGINTZA

LENENGO GERTALEKUA

[Gertalekuaren sarrera-sarreran, Aibar-jauregiko gela baten bi aldeak. Alde batean, zizallu batean, zear-etzanean, Urdaspal lo. Barrurago, Urdaspal'ek amets egiten duana" itxas-ertza, eta itxas-ertzean iru "maitagarri" – etorkizuna dakiten iru hada – dantzari; barrurago, ageri ez, bañan igarri bai, arkaitz-ostean itxas zabala. Operak ez du obertutarik. Asita berealaxe lenengo Agertaldia].

I AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik

[Urdaspal ametsetan, Iru "maitagarrien" dantza itxasertzean (Balleta)].

TALDEA barrutik:

1. GO. MAIT. – Aize txarrak

dabiltz aspaldi ontan

aize txarrak!

Zertan dabiltz,

Lapurdin'dik eta Belate'raño

egan dabiltzan beletzarrak?

Euskalerrri gaxoak

ez ote-ditu laister

ordu latz, ordu gaitz, gorriak

igaro bearrak?

... Bildurrez bizi naun,

gogoan beti – gaut'egun –

itz bi oyek: Belate, Lapurdun.

2' GN. MAIT.— Lapurdun

itxas-bazter ta itxas-erria dun

erri bakun.

Belate, bañan, goyen, laño-artean baso illun; andik
igan

litekean iñor atzeritarrik

sortu ez bait-dun.

3' GN. MAIT.— Euskalerrri ederra, illun arkitzen da gaur;

ay! bañan laister du izango egun argi, laister.

Ba'dator Aibar'tik,

eguzki-antzera norbait.

alai, gazte, egoki ta eder...

II AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik

[Urdaspal ametsetan, Laburdun (Bayona) normandarren eskuetan erortzeko arraixkuan. Normandarren itxasontzi-zapiak igarotzen dira batetik bestera itxas zabalean. Mariñelen abestia].

TALDEA: Ekaitzaren seme gera,
Jaungoiko Thor degu aita;
gure seaska ibilpera
itxas zabala izan bait-da.
Aizea da gure poza
orru-marruz danean;
ark pozten digu biotza
ontziak astintzean.
Ekaitzaren seme gera,
Jaungoiko Thor degu aita...

III AGERTALDIA

URDASPAL bakarrik

[Urdaspal ametsetan, Getari'ko itxas-begiraria, bertso-kantari. Barkoxe'ko Beñat Mardo'k, itxasora erne egoteko albista egin dio. Eta berak, bertso batean ajolakabe erantzun].

GETARI: Barkoxe'ko Beñat Mardo'k
gaur albiste bat neri:
begira dezayodala
ondo itxasoari...
Bañan nik erantzun diot
bertso bitan berari,
obe lukela, aurrak antzo.
berriketan ez ari;
bura Barkoxe dala-ta
ni naizela Getari...

[Orkestak, normandarren ontzietatik lurreratzea eta euskaldunekiko burruka latza adierazten du. Urdaspal, ikaratua, oraintxe esnatzen da].

BIGARREN GERTALEKUA

[Lenengo gertalekuaren barru-aldea estaltzea da. Bigarren barrua azaldu arte, sarreran Urdaspal'ek kantatzen du. Bigarren gertalekua, Aibar jauregiko etxe-barrua izango da. Zizalluak, alki txikiak eta seaska bi: bata bestea baño apañagoa].

IV AGERTALDIA

[Urdaspal: esna-berri. Kantari. Bere, Aibar jauregiaganako leialtasuna kantatzen du. Nagusi zanak agindu zion bezela, berak zaituko du, eriotzeraño, Gartzea'ren seme Santxol, eta Aibar'ko Etxea].

URDASPAL: Zer zan ori? ametsa al-zan?
 buruko ille danak zutik ditut...
 Zer zan, bañan?
 Ezurretara izua, ikara, sartu didan ori,
 zer ote-zan?
 Gure Erri maitearen kalteren bat?...
 ... Il zitzaigun Gartzea;
 ta aren seme Santxol oraindik ume da;
 aren inguruan, berriz, Erio dabil,
 beletzar antzera,
 sarraski-billa...
 Ay, Euskalerra gaxoa!
 larri zera, larri!
 Aibar'ko Nagusi!
 Bai zoritxarrean Erio'k jo zindula!
 zoritxarrean.
 Ondo maite nuan
 nik gure Nagusia;
 arixe zor bait-nion
 nuan ta nintzan guztia.
 Bañan il zan ta umezurtz
 dago seme txikia;
 alare zurtzago bizi da
 bai, gure Euskalerra.
 Aibar'ko etxe ospetsuan
 morroikume jayo nintzan;
 Nagusiaren itzal bizia
 izan naiz bizitzan.
 Eriotzak ez du autsi
 nere morroitzea...
 Urdaspal'ek zaituko du beti
 Aibar'ko Etxea
(Itzez) Nagusiaren itzal bizia naiz!
(Kantua) zaituko diot Etxea,
 zaituko, bai,
 Etxea... ta semea

V AGERTALDIA

URREA, OTXANDETA, URDASPAL

[Aibar'ko etxe-barruan. Andre Urrea'ren eta iñude Otxandeta'ren seaska-abestia: Andre Urrea bere seme Santxol'i kantari, eta Otxandeta, bere Urko'ri. Laister dute Urdaspal irugarren. Irurak ao batez aitortzen dute Santxol txikiaren arraixkua. Urdaspal'ek beste bein itz ematen du, berak zaituko duala azkenearaño Santxol txikiaren bizia.]

URREA: Tunkurrunkutuna / tunkurrunkutuna...
 Neri ez galde aita nun degun...
 Tunkurrunkutuna / tunkurrunkutuna...

Ama tristerik dezu alargun.
 Eta gure txiki, eta gure maite...
 runkutun-kutun/runkutun-kutun...
 aitatzorik gabe, aitatzoren galdez,
 orra umezurtz gaxo nola zaitugun.

OTXANDERA:

(Dana, Urrea'ren berdin).

URREA:

Tunkurrunku/tunkurrunku...
 Nere semetxo maite kutunal
 nork lekiken, nork lekiken
 gaur zure etorkizuna!
 Zeruko Jaun onak... runkutun-kutun-kutuna...
 zigor beza, zigor beza
 zuri kalte naiko dizuna.
 (Urdaspal sartzen da).

URDASPAL:

Aibar'ko Andrea,
 Urrea:
 aur ori nik dizut zaituko...

URREA:

Zuen seme balitz bezela
 zaituko dezutela,
 zin egingo al-didazute emen bertan?

OTXANDETA:

Bai, Andrea!

URDASPAL:

Geyago ere...

URREA:

Zuen eskuetan
 uzten det Gartzea'ren semea
 ordu onetan.

URREA, OTXAND.:

(Len bezela: Tunkurrunkutun...).

URDASPAL:

Aibar'ko Jaun onaren
 mutiko txiki kutuna:
 Euskoen Buruzagi
 izan bear dezuna:
 Goiko Jauna zeru goitikan
 bekigu lagun,
 Euskoen etorkizuna
 ondotox bete dezagun.
 Euskalerriak ez dizu etorkizun onik;
 Buruzagi bat ba'gendun zorrotz;
 Jaunak kendu zigun... Il zan, il zan;
 Aibar'en bait-dago illotz.

Bañan, aita ber-bera,
 semetxo bat zun, ain ederra;
 Santxoi, Gartzea-ren seme,
 nik zaituko zaitut, ilko banaiz ere!

URREA, OTXAND.:

... Ai, Santxol gure?

URREA:

Loo... loo ... loo! Nere semetxoa, loo... loo...

OTXANDETA:

Loo... loo ... loo...! Gure txikitxoa, loo... loo...

URDASPAL:

Euskaldunen Erregea, loo...loo...

VI AGERTALDIA

ZUNBELTZ bakarrik

[Gaua da. Aurak lo. Etxekoak lotara joanak. Orkesta ari dala, Urdaspal-ek, ixil-ixillik sartu, eta aurren seaskatrakada egiten du. Andik laister Zunbeltz, labaintzarra eskuan seaskaetara dijoa. Barrunbeak egiten dizkion oyuai gogor egiñaz, luzaroan zalantzan egon ondoren, aizkenik labainkada izugarri bat ematen dio, seaskarik apañenean zegon aurrari. Ustez Santxol-i; banan egiazki Urko txikiari. Santxol bizirik gelditzen da. Agertaldi guztian, balleta eta aleeta, barrunbearen garrasi-orde].

ZUNBELTZ:

Errege izan bear dedala, Errege,
 idatzirikan dago goiko izarretan;
 Karloman bezela, ni ere Errege...
 Eta balitz munduan etsairikan,
 lurrarenpean sartuko det.

TALDEA:

Ez olakorik! ez olakorikan!...

ZUNBELTZ:

Nik Errege, bai Errege bear det;
 eta baldin odolik bear baiitz iñun, iñola,
 ixuri bedi odola.
 Zer ba?

TALDEA:

Ez odolik! ez odolik!

ZUNBELTZ:

Aurtxo bat du munduan nunbait
 nere Erregetasunak etsai.
 Aur baten odola
 bear nik ajola?
 Umeak al-gera? umeak?
 Eskuetan euki-eta Erregetza, nola
 utzi nik? Ez det utziko iñola.

Naparroa'ko Erriak ere
 Buruzagi baten eskean daudelarik,
 aurtxo bat izanik etsai,
 nola egon lasai?
 nik ilko det, nik, bai,
 erruki gabe.

TALDEA:

Ez odolik, ez odolik. Errugabea...

ZUNBELTZ:

Alperrik izango da, aur txiki errugabea
 dala esatea...

Ahl nik Naparroa'n Errege bear det;
 eta etsaya ankapean lertuko det...
 naiz bedi errudun, naiz errugabea...

TALDEA:

Itzalle!!

ZUNBELTZ: (Amorruz)

Ume bat det etsaya, nik ito bearra,
 eta itoko dedana.

Oraintxe dek ordua;
 oraintxe ordu ederra;
 oraintxe gaberdi illun-illuna...

(Ikutuka) Seaska bat, seaska bi...
 auxe, auxe...

(Labana eskuan) Nere labaintzarra! jozak! jozak!
 Or! or! Joo! (Sar bezayo)

(Odola ikustean, izututa) Odola ... odola
 Aur baten odola! Aur baten odola...

TALDEA:

Odola ... odola ... (Askotan).

ZUNBELTZ: (Adorez)

Bañan bear zan; ala bear zan guztiontzat;
 ala bearra, bearra, bearra (Askotan).

TALDEA:

Odol errugabea... odola...

Autxo baten odola...

ZUNBELTZ:

Ah, odoletan bada ere,
 Laister naiz ni errege!!

TALDEA:

Odola, odoia. Odol errugabea. Ah!
 Aurtxo baten odola ah!

BIGARREN EGINTZA

IRUGARREN GERTALEKUA

[Ibañeta'ko Lepoa. Zelaya eta basoa. Alde batean, Basa-eliza].

I AGERRALDIA

[Erromeria. Donibane-eguna. Zar eta gazte, iñor asko zelayan. Burni normandarra, zintzarri-saltzen. Pelotariak, aizkolariak, palankariak... Lore, Zunbeltz'en alaba. Urruti gabe, baita, Burni'ren alaba Sorgi'n ere. Luzatu gabe, azaltzen da, baita, "Urko" ere, kantari. Guztiok arrera ona egiten diote].

TALDEA:

Bentatikan antor,
bentara nijoa;
bentan daukat nere gogoa (Askotan).

LORE:

Ba'det maite bat, maite bat ederrik;
mundu zabalean ez bait-du iñor parerik.

SORG. BURN.:

Orra, orain danok ba'dakigu.

TALDEA: (Balletean, aizkolari ta pelotari ta palankariak etab. eltzean:)

Oril Oril

LORE:

Aizkolaririk ba'da mendian.

TALDEA:

Aizkolari ta arrikariak...
jokolari garbiak...

LORE:

Mardul eta loretan daudenak.
Erriko mutillik onenak...
Nereak mendean lituzke diran den-denak.

TALDEA:

Gazte sendo ta bigunak,
Erriarentzat kutunak...
Arrikariak, makillariak,
aizkolariak, pelotariak, arraunlariak.

LORE:

Nere kutuna, nere laztana,
orain da gugana (Urko sartzen).

TALDEA:

Gora bedi Urko!!
Gora bedi, gora bedi, gure Buruzagia!

URKO: (Kantari)

Gure Erri!
gure Erri maitea!
Jaunak egiña zaitugu
txikia lurrez, biotzez aundia,
mendi artean ezkutu.
Euskalerri!
Izan bedi nere xede:
"Ni zurea", ez "Zu nere"
Zuregatik il bear ta ere...
"ni zurea" ez "Zu nere".
Gure Erri!!

TALDEA:

Gora gure Urko Buruzagi!!
Buruzagi bat ba' degu ederrik,
Euskalerrietan ez bait-du iñon parerik.
Arrikari ta makilkariak,
aizkolari ta pelotariak.

URKO:

Mardul ta loretan daudenak.
erriko mutilik onenak...
neretzat lagunak ditut nik, diran den-denak.

TALDEA: (OYU)

Ah!!
Gora gure Urko Buruzagi!!

II AGERTALDIA

LORE TA URKO

[Erria Ermitatxoan sartu danean, Urko ta Lore elkarriketan. Elkarren maitetasuna dute kantatzen].

URKO:

Itz bat esan bear dizut gaur, Lore...

LORE:

Nik ere ba'det esan-bearrik...

URKO:

Zer esankizun dezula, ¿gero? nai nizuke jakin.

LORE:

Nere Urko: kezka bat biotzetik kendu ezin,

URKO:

Zer kezka dezu, ba?

LORE:

Erriak maite zaitu, nunbait, aspaldi,
maite, bai, zu benetan;
ikusi det gaur egin dizun arrera

gaztediak bere kantu ederretan.
 Maitetasun orrek gaur sartu nau
 kezka ta bildur gogorretan:
 neretzako ez ote-zeroan
 kezka ta bildurretan...
 Erriak maite duan arek
 ez oi-du maiterik emakumetan.
 Urko!! Lorea´ren maite-surik
 piztuko al-da zure zañetan?

URKO:

Zer esan nai dezu, Lorea,
 zure itz oyetan?

LOREA:

Lorea´ren maite-sua
 piztuko al-dan biotz orretan.
 Urko! Urko!

URKO:

Erriak maite nau; eta nik ere
 maite det bera, maite, bai, Erria...
 Zergatik, ordea, Erria maitatuaz,
 ez bear maite zu, nere Loretxo zoragarria?
 Erriak maite nau; nik ere maite det Erria;
 bañan Erriaren maitetasun beroaz gañera
 sentitzen det zañetan zukanako egarria...

LORE:

Urko nerea! Maita ezazu lenego,
 nik maite dedan bezela, gure Erri maitagarria!

URKO:

Lore nerea! Ori bai berri pozkarria!

LORE:

Nik ere senti det, zuk dezun maitasun berria.

URKO:

Erriak maite nindun aspaldi ontan nunbait,
 maite, bai, benetan.
 ikusi det, gaur egin didan arrera ona
 kantu ederretan.
 Lore! Alare sendo dago zure maitasuna
 nere zañetan. Lore! Lore!!

LORE:

Erriak maite zaitu nunbait aspaldi.
 maite, bai, zu benetan;
 Ikusi det, gaur egin dizun arrera
 gaztediak bere kantu ederretan...
 Urko! Alare sendo da nere maitasuna
 zure zañetan. Urko! Urko!

III AGERTALDIA

ZUNBELTZ bakarrik

[Zunbeltz ere Erromerian zan, ezkutuan ezik. Besteak joaten diranean, bere kezka abesten ditu: bere iloba txikia il izandako kezka, alegia].

ZUNBELTZ:

Barrua oso daukat illuna,
gau bihurturik nere eguna...
Olaxe bizi naiz...
irudipen izugarrietan sarturik beti;
ez bait-det usterik
beste bein atsedean bat arkituko dedanik.
Labain odoldu bat nere eskuetan
itsatsirik daukat,
ezin kendu dedala;
seaskan umezurtz baen odola
ixuri bait-nuan, ba, nik...
Bai ote-da dakianik?
Kezka ilgarri au,
ortatik, ortatik datorkit...
Labain odoldu bat nere eskuetan
itsatsirik daukat,
ezin kendu dedala...
Orra,
Jaungoiko aundiaren zigorra.

IV AGERTALDIA

ZUNBELTZ ETA BURNI

[Burni agertzen zayo Zunbeltz'i Eta Urko'ren kontra berotzen du. Eta Erriaren aurrean mutilla galtzeko, zer egin bear dan erakusten dio. Bere alaba Sorgin'ek bereganatu dezala, eta normandarren adiskide egin... Zunbeltz'i poza ematen dio Burni'ren ateraldiak].

ZUNBELTZ

– Zein da?

BURNI:

– Burni errementaria.

ZUNBELTZ:

– Zer dakar gure Burni'k?

BURNI:

– Jaunak nai dezala.

lenbaitlen.

Euskalerrietako Errege izan zaitezela...

ZUNBELTZ:

– Nundikan, bañan, Burni errementari mintzatzen ola Zunbeltz Jaunari?

BURNI:

- Erregetasuna zure zan;
bai, bañan
ume sasiko eskuetara ez ote-dijoakizu?

ZUNBELTZ:

- Ori nola dakizu?
esazu...

BURNI:

- Esatea noakizu
neronek ikusi dedana:
Urdaspal'en seme bati
txaloak jotzen erri dana...
Ahl bide ortatik, laister degu Urko Buruzagi;
erri guztiaren jabe,
aitun-seme izan gabe...
Bañan guk nola utzi dezakegu?...
zein? -ta, zein? -ta, ori?

ZUNBELTZ: (Zoro)

- Ori! ja ja ja! Ori dek! Ja ja ja ja!...

(Zentza)

- Bañan erriak maite badu,
arren, esaidazu,
zer egingo degu
erriak baztarrera dezan?

BURNI:

- Entzun zaidazu.
Nere alaba Sorgin'ek
maitekeriz tenta dezala,
ta galdu da mutil ori.
Normand-zale dan bezela
salatuko degu...
Zoraa da-ta, erriak
sinistuko digu...
Ah! ta orduan ikusiko da
zein dan Buruzagi!

ZUNBELTZ: (Zoro)

- Ori! ja ja ja ! Ori dek Ja ja ja ja !...

(Agint.)

- Ots bañan! Nor aiz, gero, i,
orla mintzatzeko Zunbeitz bati? (Joan dedin keñu).

(Zoro)

- Ja ja ja! ja ja ja! ja ja ja ja ja!! ...

V AGERTALDIA

ZUNBELTZ ETA URDASPAL

[Oraingoan Urdaspal agerzen zayo Zunbeltz'i. Urko semea zer dabillen, esaten dio Zunbeltz'ek. Urdaspal'ek erantzunik ez. Berriz ere Zunbeltz'ek galdera bera. Urdaspal'ek bi seaskak aipatzen dizkio. Zunbeltz aserre. Urdaspal'ek orduan algara gozoa].

ZUNBELTZ:

– Urdaspal... Ondo etorri zera...

Urdaspal: gauza bat esan bear nizun.

Entzun!

Esazu:

Zer dakarki zure seme orrek?

Baztar guztiak nasten, zer dabil?

esaidazu, arren! (Urdaspal ixillik).

(Berekasa) Itzik ere ...

Entzun dezu? ez al-degu erantzunik?

ez al-det ezer jakin bear nik?

Ez al-dakizute oraindik

Erriaren Buruzagitza Zunbeltz oni dagokiola?

Ez bait-det iñola utziko jun dedin

niz-bestetara,

bañan batez ere morroikumeetara;

ez dedan-ez utziko. Ah!

URDASPAL:

– Ba'dakit garbiki

zer esan nai dezun,

Bañan nik ere gaur

ba'dizut zer-edo-zer erantzunkizun.

Entzun:

(Belarrira)

Seaskatxo bat ... seaskatxo bi...

Odola... esku oyetan odola...

ZUNBELTZ: (Aserre)

– Ez!

URDASPAL:

– Ja ja ja ja!

ZUNBELTZ:

– Ez !!

URDASPAL:

– Ja ja ja ja!

ZUNBELTZ

– Ez!!!

URDASPAL:

– Ja ja ja ja ja ja ja! (Joan)

ZUNBELTZ:

Ah! bai! Zigorra!

Zigor gogorra! (Lurrera)

VI AGERTALDIA

ZUNBELTZ bakarrik

[Zunbeltz'en irudipen izugarriak eta kezka berriak, gau artan gertatu zana Urdaspal'ek ba'dakialako. (Balleta).]

TALDEA: (Ezkututik kantari)

Ume bat

ill uan.

iltzalle

gaizto bat

aiz geroztik.

iltzalle (Askotan) Ah!

Zigor! Zigor! Gau illuna uan...

Gau illunean, gela batean, bi aur lo...

Zigor! zigor! Ik zer egin uan?

oroi adi, oroi!

Aur baten odolez seaska gorri blai...

Zigor! Zigor!

Aur baten odolez seaska gorri blai...

Iñork zekiñik, ez uan uste; ai!

Bañan au dek egi:

Zigor! Zigor! Gabak ba'dik begi!

gabak ba'dik begi!!

HIRUGARREN EGINTZA

[Gerta-lekua, lengoa bera: Ibañeta'ko Lepoa].

I AGERTALDIA

BURNI, SORGIN, URKO, ZUNBELTZ, LORE

[Sorgin'en jokuak Urko galtzeko. Zunbeltz'ek, Urko Sorgin'ekin "dabillela" sinisterazi nai dio bere alaba Lore'ri. Onek bere begiz ikusi dezan, ikusleku ezkutu batera darama. Bañan Sorgin'en itzak eta jokuak ez dute limurtzen Urko, aserrerazi baizik].

BURNI:Sorgin: entzun al-dun ondo"?

SORGIN:

Bai, aita.

BURNI:

Mutil ori ire maitale egin bear dun.

SORGIN:

Pozikan egingo dut.

URNI:

Gutar bagenetza...

SORGIN:

Bedi bere maite,
eta nomarditar ere
laister degu.

BURNI:

Jainko Thor'ek nai beza!

SORGIN:

Nere musu ta laztan biren indarrez...

BURNI:

Ay! olakoxe bat!
Ay! orduan bai, nagusi gaitun:
Mutilla iretzat, eta
erria Normandi'ren mende dun.

URKO: (Urruti)

Gure Erri!
Gure Erri maitea:
Jaunak egiña zaitugu,
txikia lurrez, biotzez aundia,
mendi artean ezkutu.
Euskalerrri!
Izan bedi nere xede:
"ni Zurea", ez "Zu nere",
zuregatik il bear ta ere...
"ni Zurea", ez "Zu nere"
Gure Erri!

SORGIN:

Urko da.

BURNI:

Urko dun, Urko, bai.

SORGIN:

Laister dute nere...

BURNI:

Orixo egiten badun,
normanditar egin dun.

SORGIN:

... ta erria, berriz, gure.
Jainko Thor! laguntzalle bizkor!
Lagun zakizkit zerutik une onetan,
Jainko Thor! laguntzalle azkar ta gotor!

(Urko'ri)

Urko: zeruen kutunal
Nik dakidan maitagarrik maite duna...

URKO:

Zer dakarte itz legun oyek?
zer esan nai didazu, or?

SORGIN:

Urko! Urko gaizo! nik erruki zaitut;
bizitzen ez dakizu.

URKO:

Zer, gero!? Sorgin batek, nola bizi bear dan erakutsi neri?

SORGIN:

Mutil eder,
mutil ederrikan bada,
zera Urko.
Bañan esazu,
norentzako daukazu
edertasun bikain ori?
Al-da iñor Euskalerra ontan
zure berdin, zure pareko danik?
Itxasoz-aruntzago bai,
neskatx ederrik,
larrua txuri, begiak urdin, illea gorri,
benetan maitagarri.

LORE:

Andre Maria, Zeruko Ama!
lagun zakiuzka zeru goi eder ortatik!

ZUNBELTZ:

Esaten nizun nik;
orrek zuretzako
ez dauka maitasunik.

URKO:

Bañan zer amets egin den, Sorgin?
zer amets egin?

Uste al-dezute
musu-truk saltzeko
dauzkagula gure maite xarmantak?

Sorgin:

nik maiteño bat da´dedala
aspaldidanik ba´dakin;
eguzki-azpian neretzako
ez bait-din parerik
Baxe-Napar orotan,
ez Laburdi´n, ez Zubero-muñotan...

Nere Lore!

Bera den nere bakarra,
bakarrik neretzat, neretzat.

LORE: (Berekasa)

Urko, nere maite!

URKO:

Nere Lore maite maitagarria!
eder zoragarria

SORGIN:

Ah! bañan, Urko:
aundiegia egin zaitu Goiko Jaunak;
ez dute euskal-mendi estuak
zuretzako
lekurikan zabal-asko.
Aundiegia zera, bai, mendietan bizitzeko.
Itxasoan ontzi galant normanditarrak
zure zai antxe dauzkatzu;
ta antxe, bai, benetan aundi ziñakela zu, ta aintzatsu.

ZUNBELTZ:

Ez al-den ikusten oraindikan garbi asko?

LORE:

Ay! zeruko Ama! Zatozkio!

URKO:

Joan akit, sorgintzar ori,
joan nere aurretik!
Erri maite-maite bat da' diñat nik.
Arek ere neretzat iñun ez din berdiñik.

II AGERTALDIA

LORE, URKO, SORGIN, ZUNBELTZ

[Lore' ren poza, bere Urko' ren leialtasuna ikustean. Zunbeltz' ek, orduan, beste alde batetik ekiten dio: Urko morroikume bat besterik ez dala...].

LORE: (Urko' gana jauzika)

Urko!!

URKO: (Besarkatuaz) Lore!

SORGIN:

Madarikatu!!

LORE:

Zer naspil nai zuten gaiztotzarrok?

URKO:

Zer nazpil nai zuten gaiztotzarrok, gu nasteko?

SORGIN:

Zer uste dezu or? zer uste?
zuretzat daukala Zunbeltz batek bere alba?

LORE:

Maite-maite det nik nere Urko.

URKO:

Maitasunak batzen gaitu gu, Lorea eta Urko.

SORGIN:

Gaxoak: ori gero esan bearko.

URKO:

Zeruko Jaunak berak,
alkarren maitasun gozozko kokarriz
gu lotu gaitu.
Eta ola,
beti-betiko, iraun alez iraungo du.

SORGIN:

Inpernu txar bizia sortu bearko degula, bañan,
inpernu bizi-bizia sortuko det.
Alper-alperrik izango dira
zuen alegin guztiak.
Ah! azken-itza Zunbeltz-ek, Zunbeltz batek esango du.

LORE-URKO:

Zu nere; ni zure...
Jaunarren!!
Urko eta Zunbeltz'ko Lore.

ZUNBELTZ: (Urko'ri)

Ez aiz i, Zunbeltz'tar argien pare
Ah!...
Etzaukat morroikumentzat gure Lore.

III AGERTALDIA

LENGOAK ETA URDASPAL

[Urdaspal'ek entzun ditu azken-itx oyek, eta aserre azalduta ekiten dio Zunbeltz'i. Zunbeltz'ek Urdaspal bat nor dan galdetzen dio, Zunbeltz bati ola jazartzeko. Urdaspal'ek, goxo-goxo, zigorra dala erantzuten dio, eriotz izugarri baten zigorra. Zunbeltz'ek, aserre, ezpata aterata erasotzen dio Urdaspal'i. Baita Urdaspal'ek ere Zunbeltz'i. Lore sartzen da tartean, eta pakeak egiten ditu bion artean].

URDASPAL:

Alde ortik!
Esan det: alde nere aurretik!
Bai al-da emen morroikumerik?
Nor da? nor, baña? jakin nai nuke nik.

URKO:

Aibar'ko morroi leyela:
ongitxo etorria bedi gugana.

LORE:

Urko'ren aita zarra...
nere aita bearra...

SORGIN:

Zunbeltz'tar batentzat
bai eskontza bikaña!

ZUNBELTZ: (Urdaspal'i)

Nor zera, baña?

zoro, burugabe txar ori,

orrela mintzatzeko gaur neri?

nor zera, baña?

URDASPAL:

Nor naizen? nor naizen ni?

Galdera gogorik baldin bada,

auxe gogorra!

Nor naizen ni, itz gutxitan esango dizut;

orra:

"ZIGORRA naiz, zure zigorra"...

Gau illun batean izan zan...

ZUNBELTZ: (Eztabai)

Zer naspil da guzti ori?

Guzti ortan zer dit neri?

SORGIN:

Guk zer degu zer-ikusi?

URDASPAL:

Zer dezuten zer-ikusi?

Norbaitek aurtxo baten odola ixuri...

LORE:

Atozkit, etorri!!

eta lagun gaitzazu, zeruko Ama laztana!

ZUNBELTZ:

Oi! Gezurra da! gezurra!!

URDASPAL:

Egia da!

URKO:

Ez dio gezurrik Urdaspal'ek.

ZUNBELTZ:

... gezurra da...

URDASPAL:

... ez, egia da!

SORGIN:

... gezurra...

URKO:

... egia!

LORE:

Pakea !!

ZUNBELTZ:

... gezurra !! (Ezpata ateratzen)

URDASPAL:

... egia !! (Ezpata ateratzen eta burruka)

LORE: (Tartean sartzen)

Ez!! (Burruka eten)

Odol-ixurtzerik gabe,

arren! gorde itzazute arma oyek.
 Ez du egoki ematen
 elkarrentzako gorroto makur orrek.
 Ez al-gera, ba, danok bat?
 Zer esango dute auzoak guretzat?
 Geldi! geldi bitez burrukak
 guztion etsayarentzat.

ZUNBELTZ:

Lore! bai zerala zu lore bat!

URKO:

Bai! Egia dio Lore´k:
 Arren! gorde ditzagun, bai, arma oyek.
 Ez du egoki ematen
 elkarrentzako gorroto makur orrek.
 Ez al-gera, ba, danok bat?
 Zer esango dute auzoak guretzat?
 Geldi! geldi bitez burrukak
 guztion etsayarentzat.

URDASPAL:

Aingeru baten itzak dira
 zuk dituzunak.
 Nork egin gogor zuri,
 aingeru orreri?
 Nork izan gorrotorik zuretzat?

ZUNBELTZ:

Pakea nai zenduke;
 bañan ez da pakerik
 aitarentzat;
 eta ez bedi beste
 inorentzat.

SORGIN:

Pake-itxurak egiten dituzu, maltzur orrek;
 bañan nork diñets ditu itz oyek?
 Pakea nai zenduke zuek biontzat;
 bañan gerra prestatu zuek-ez besterentzat.
 (Zunbeltz, Lorea, Sorgin, kanpora. Gerotxuago Urdaspal ta Urko).

LAUGARREN GERTALEKUA

[Belate´ko Lepoa. Basoa. Baso aundi]

IV AGERTALDIA

[Orkestra bakarrik. Urko´k eta Urko´ren lagun batzuek, ixilik, zaragi ardoak ipintzen dituzte bide-baztarrean].

V AGERTALDIA

[Gudari-talde normandarrak, Burni Buruzagi dutela. Tartean Euskaldun-sail aundiak, loturik. Emakumeak ere bai ayen artean. Burni'k azta-makil luze baten muturrean, Lapurdun gotzai Leon Donearen burua dakar. Normandar ta Euskaldun, bakoitzak bere ereserkia. Normandarra beti ere zartallua eskuan].

NORMANDAR-TALDEA:

Jainko Thor!
 Zu zera gure Jainko bakarra;
 zugan dago gure indarra.
 Jainko Thor!
 Zuk gidaturik,
 gu betidanik
 geldi gabe gabiltz
 itxas arrotan, boga, boga, boga.
 gure aberria utzirik.

EUSKALDUN-TALDEA:

Zigor! zigor!
 zigor bitza Jaunak
 gogor, gogor!
 Zazpi Euskalerra gera,
 zazpiak Ama baten;
 mendi-zekorren antaera
 ez oituak uztarririk
 lepoan jasaten.

NORMANDAR-TALDEA: (Zartalluaz joka)

Alde, kendu, bidel jo!!
 Lapurdun gure degu,
 aren jabe gera gu...
 Iruñe'ra bidea,
 Belate-atea,
 gurea da laister, gurea.

EUSKALDUN TALDEA:

Gure Lapurdun zana,
 etsai gaiztoak dana
 su emanda erre du...
 Bañan oraindik gure da
 Belatea.

Zazpi Euskalerra gera...

NORMANDAR-TALDEA:

Jo-ta txiki zapall txautul
 zapa!! txautul austu!!
 Lege ori degula
 bear degu aitortu.

EUSKALDUN-TALDEA:

Zigorra dantza beza gure Urtxi'ki
Zigorra dantza beza gure Jaunak!
Gogorki zigortu!...
Zigor! zigor!...

VI AGERTALDIA

[Zaragi-ardoak bide-baztarrean arkitzean, normandarrak txalapartaren neurrian, zaragidantza zoratu bat egiten dute. Eta azkenerako zearo moskortu. Orkestra bakarrik, eta Balleta].

LEON DONEA:

Nere Erri! Erri eder! Erri maite,
benetan errukarri!
Etsaipean zaude;
bañan gaur Jaunak autsiko ditu kateak;
laister etsayak zure mendeko dituzu...
Nere Erri! Askatasun-eguzkia etorria dezu.
Erri eder! Erri maite!

GIZASEMEAK:

Oh! beti gora, gora;
beti gora, ez dakigu nora...

EMAKUMEAK:

Jainkoaren izenean Don Leo'k digu itz egin;
zerutarrak oroitu dira gurekin;
itz egin du Don Leo'k eriotz-ondotik.

LEON DONEA:

Nere Erri! Erri eder! Erri maite,
benetan errukarri!
Etsaipean zaude;
bañan gaur Jaunak autsiko ditu kateak...

GIZASEMEAK:

Orra! orra!
elduak gera Belate'n gora,
guk dagiku nola.
Jaunari, arren! nai dakiola,
gure kateak
autsi ditezela.
Askatasunaren Argia
Errian laister dezagula!

EMAKUMEAK:

Gora, gora biotzak, beti gora!
Jaungoikoari, arren! nai dakiola,
lokarri ta kateak autsi, apur ditezela;
Errian Askatasunaren Eguzkia dezagula!

VII AGERTALDIA

[Euskaldun gizagajoak, beren egoerari dagokion abesti neketsua abesten. Bitarte ortan, azta-makillaren muturrean Leon Donearen burua argitzen asten da, ta gero kantari. Mirari onekin euskaldunak bizkortzen asten dira. Eta are geyago, asierako "maitagarriak" berriz ere ballet labur batean bizkorgarri zerbait abestendutenean].

GIZASEMEAK:

Guazen, guazen, beti gora, gora.

Guazen, ez dakigu nora...

Guazen beti gora, gora,
ez dakigu nora.

EMAKUMEAK:

Gora biotz oyek!

Ez degu bildurtu bear ola.

Goyan dago gure Jaun ona...

GUZTIOK:

Erruki zakizkigu zerutik Jaun oril

Sobera pekatu egin dizugu Zuri.

Barkatu, Jauna.

GIZASEMEAK

Guazen, guazen, guazen, beti gora, gora

ez dakigu nora...

EMAKUMEAK:

Gora biotz oyek!

Goyan dago gure Jaun Ona.

GUZTIOK: (Leon Donearen burua argitzen astean)

Don Leo...

Lapurdun'go Gotzai Don Leo...

Don Leo'ren burua...

Ara! Itz egin nai digu!

Ene! Don Leo'k itz egin!

Entzun dezayogun adi-adi.

1' GO. MAITAGARRIA:

Gaba, ba'dijoa!...

2' GO. MAITAGARRIA:

Eguna ba'da'tor...

3' GN. MAITAGARRIA:

Zure da geroa... argi ta emankor.

VIII AGERTALDIA

[Normandarrak lo daudela, emakumeak lagundu-ta, gizonak askatzen dituzte beren eskumuturretako lokarriak, eta normandarra ezpatak kendu-ta, or sortzen dute normandarren bizkarretik triskantza izugarri

bat, Bizkai'ko Ezpata-dantza iduri. Dantza amaitzean, Urko dator bere lagunakin, normandar-talde bat loturik dakartela, eta ayen artean Burni gidaria].

BAJOAK: (Bildurrez)

Mutillak!

EMAKUMEAK:

Mutillak!

TENORAK:

Azkar! Lo zeudek.

BAJOAK:

Azkar!

TENORAK:

Azkar!

EMAKUMEAK:

Azkar! (Ezpatak kentzen).

GIZASEMEAK: (Oyuka)

Eldu aguro! kendu azkonak...

EMAKUMEAK: (Oyuka)

Don Leo gure alde!! (Adar-turutak)

NORMANDARRAK: (Erdi-lo)

Oh! oh! Zer da? Ah! Nor da?

GIZASEMEAK:

Jo ditzagun bildur gabe!

NORMANDARRAK:

Etsayak? Euskoak?

GIZASEMEAK: (Lotzen).

Lotuta eraman; aurrera!

EMAKUMEAK:

Garaitzale gera! Aurrera!!

NORMANDARRAK:

Ah! Jainko Thor!! Orra galduak! Ah!

GUZTIOK: (Ezpata-dantza)

Dantza ezpatak, mutillak! dantza ezpatak! jota txiki Ah!

Dei-adarra!

dei-adarra!

dei-adarra!!

Jaurti azkonak!

jaurti azkonak

Jo azpitik!

jo gogor!

Kanta dezagun etsayaren illeta!

kanta etsayaren gau-illa! kanta!

Poza bezate Pirene-mendiak!

poztu bedi naparra!

Poztu gaitezen euskaldun danok!

mendera degu normandarra.

(urko, Urdasopal ta Taldea, normandar-sail bat eta Burni dakartela).

GUZTIOK:

Garaitza! Aintza!! Aintza!!

Garaitza! Aintza! Aintza!!

Jaunak eman digu Garaitza.

Berari AINTZA!

LAUGARREN EGINTZA

BOSKARREN GERTALEKUA

[Leire'ko Monastegi aundia. Monastegiko Batzar-lekua. Klaustroa aldamenean].

I AGERTALDIA

[Naparroa'ko Zendea guztietatik, Errietako Ordezkoak datoz. Errege aukeratzerara. Elkarri diosa!, abesti eder batean. Ordezkoen artean, Andre Urrea, Urdaspal'ko Monastegiko Abadesa, aurpegia estalirik. Aren ondoan, "Urko" eta Urdaspal].

TALDEA:

Menditarrak, agur!

ta agur, Nafarrak.

URDASPAL:

Azkarrak gera gudatean;

gaitezen gizon pakean.

TALDEA:

Azkarrak gera gudatean;

gaitezen gizon orain, pakean.

Mendiak sortu ginduan bein;

mendiak beti babestu.

Gure jatorri garbi onek

oberikan iñun ez du.

Mendiko ur onak bezela

bizi gaitezen garbi beti, eta indardun,

gaudela orain ta beti

euskaldun.

ZUNBELTZ:

Umekeriak alde batera, ta

Batzar ontan Errege autatu dezagun.

TALDEA:

Menditarrak, agur!

ta agur, Nafarrak.

Mendiak sortu gindun bein;

mendiak beti babestu.

Gure jatorri garbi onek
oberikan iñun ez du.
Mendiko ur onak bezela,
bizi gaitezen garbi beti, eta indardun,
gaudela orain eta beti
euskaldun;
Garbiak eta indardun,
eta euskaldun.

II AGERTALDIA

[Leire´ko Abatak irakurtzen du Batzarrerako deya. Errege izendatu bearda Naparrau´rentzat. Zunbeltz´ek bere izena ematen du. Urdaspal´ek aurka egiten dio. Gartzzea´ren seme, Santxol, bizi da... Andre Urrea´k aurpegia agertzen du. Arriturik danok].

LEIRE´KO ABATA:

Ara, Jaunaki
Ondo etorri zaitezte
Leire´ko Monastegi zarrera,
oitura dan bezela.
Errian aldaketak ditugu,
eta danon iritzia
jakin bear degu garbiki.
Menditarrak eta Nafarrak,
erabaki,
nor bearko dezuten Buruzagi.

TALDEA: (Ten. Sopr.)

Orra! orral orra, etorri gera
Euskoen Buruzagia aukeratzera.

URDASPAL:

Ona dedilla aukera.

TALDEA: (Baj. Contr.)

Galduak bait-gera bestela.

ZUNBELTZ:

Ona, Jaunak, ni emen, Buruzagi izateko izenik gorena dedana.

TALDEA:

Zunbeltz Jauna, euskoen Buruzagi...

URDASPAL: Itzalle gaizto bat Buruzagi?

Ba´degu, Jainkoarren, aurreragoko danik.

LORE:

Ene bada! ene badal Ah!

TALDEA:

Itzalle? Itzalle? Itzalle al-degu Zunbeltz?

ZUNBELTZ:

Itzalle naizela? eta aurreragokorik ba´dala?

Nun dago, bada – ala Jainkol – morroikume bat ez bada?

URDASPAL:

Ixo!
 Illunik zegon Aibar'ko jauregia,
 Etxeko Nagusia il zalako.
 Ainbat ere illunago zitekean, ay!
 semea il balitzako.
 Alare, norbaiten alegiñak arren,
 bizirik – bizirik, bai – gure artean dago...
 nere semea bait-litzan,
 Gartzea'ren semea bizirik dago...

TALDEA: (Arriturik)

Urko, Santxol Gastzeiz? Urko, Santxol Gartzeiz?
 nola, bañan? nola liteke?

LORE: (Arritu-arriturik)

Nere Urko? nere Urko? nola diteke?

URREA: (Musu-zapipean)

A!... aditu nai al dezute?

LORE:

Ene!

TALDEA:

Mintza zaitel!

URREA:

Adi ezazute.

ZUNBELTZ:

Ixol ixilik!
 Nor aizen ba'zekiñat: Otxandeta.

URREA:

Ez; il zan iñude gurea;
 bañan bizi gera semea t'ama, Santxol ta Urrea ... (Musu-zapia kenduaz).

TALDEA: (Arriturik)

Urrea!!

III AGERTALDIA

[Andre Urrea'k agertzen du, Gartzea il ezkeroko bere ibillera guztia.
 "Urko'k" orain jakiten du bere jatorria. Errege izatea geyegi deritzayo beretzat. Bañan erriaren gogoa ikustean, apaltzen da].

URREA:

Ah! Aibar'ek esan nai du bere itza nere abotik...
 Ogei urteren buruan emen naukazute.

URKO:

Ogei urteren buruan ama zaitudala dakit.

URDASPAL:

Seme bat, eder eta galantik, zuala dakizute...

URREA:

Guztion ixillik, Jainkoak jakiniñ.
Urdaspal'ko Monastegian,
azi al izan det sendorik.

URKO:

Ez bait-nekian, baña, nik
Aibar'ko semea nintzanik.

URDASPAL:

Naparroa'ko Errege egunen batean zaitzagun,
nere Urko bait-ziñan azi bait-zaitut nik.

URREA:

Santxo Gartzreiz, Santxo Gartzreiz, nere seme,
eguzkiza bezain ederra zerana...
Naparroa'ko Errege izango dana...

URKO:

Ama, bañan nola diteke?... Aundi-nai txar batek geyegi txorutzen
ez ote-gaitu?

TALDEA, URD.:

Erriak egingo zaitu...

URREA:

Aditu dezu. Erriak maite-maite zaitu.

TALDEA:

Ah!

IV AGERTALDIA

[Lore, bere Urko'ren jatorria jakitean, erdi-poz, erdi-bildur, iraultzen da bere maitearen besoetara. Zunbeltz'ek, erdi-zoratuta, ateratzen du beste bein bere ezpata, eta erasotzen dio Urdaspal'i. Urdaspal'ek ere berdin egiten dio Zunbeltz'i. Ori ikustean, berriz ere Lore sartzen da bion tartean, eta aitak jotzen du ezpataz, eta ia illean uzten. Urko ta Lore'ren azken-kanta. Lore'ren eta aitaren alkar-izketa. Lore il].

LORE: (Urko'ren besoetan)

Urkoll

URKO:

Lorell

ZUNBELTZ: (Ezpata eskuan)

Urdaspal! Nik ilko aut!

URDASPAL: (Ezpata eskuan)

Ay! Zunbeltz gaizkille!

TALDEA:

Ah! ekin ortxe!

LORE: (Bildurrez)

Jainkoak zaitu gaitzala, zaitu gaitzala...

URKO:

Etzaitela ikara;
nik zaituko zaitut

LORE:

... Alperrik ez bada.

Ay! nere Urko!

URKO:

Ay! nere Lore!

ZUNBELTZ:

Aurki aiz illa!

URDASPAL:

Etorri adi!

ZUNBELTZ:

Ez daukak ik odolik!

URDASPAL:

Ik ez dek lotsarik!

TALDEA:

Ia, Urdaspal, ia! zapaltzak!

LORE:

Nere aitak zure aita...

URKO:

Nere aitak zure aita...

URDASPAL:

Etorri:

ZUNBELTZ:

Ilko aut!!

LORE:

... ilko du! (Tartean sartzeko keñada)

URKO:

Ez, Lore! Geldi!

URREA:

Ezpatak geldi! arren, geldi!...

LORE: (Tartean sartuaz)

Aita!! (Aitak ezpataz jo, ta ia-illean utzi).

TALDEA: (Ikara-oyu) Ah !!

ZUNBELTZ: (Makur alabari)

Gaxoa, illa...

URREA:

Lorea, illa!

URDASPAL:

Lore gaxoa! ...

TALDEA:

... Zunbeltz'ek illa!

URKO: (Apal-apal)

Lore!

LORE: (Begiak zabalduaz)

Urko: atozkit.

URKO:

Emen naiz, nere Lore.

LORE:

Atoz, ba'nua.

URREA: (Bereiko)

Gaxoa, ba'dijua.

URKO:

Nere biotzeko Loretxo laztana...

LORE:

... ametsa zan dana.

TALDEA:

Ay, au lana! au lana!

ZUNBELTZ:

Neronek il det, neronek.

URDASPAL: (Berekiko)

Il alaba...

URKO: (Biok)

Txiki-txikitandik...

LORE:

... elkarrentzat...

URKO:

... izanik gera...

LORE:

... ni zure ... zu neretzat...

URKO:

... elkarrentzat... bañan zeruan...

LORE:

... zeruan.

TALDEA:

Jaunak nai zuan. (Urko baztarreratu).

ZUNBELTZ: (Izketan Lore'ri).

Lore...

LORE: (Izketan)

aita,... aita... gizon gaiztoa...

ZUNBELTZ: (Kantuz)

Zaude ixillikan...

LORE: (Kantuz)

Gizon gaiztoa...

ZUNBELTZ:

... arren,ixillik...

LORE:

Ezpata odolez beterik dezu...

ZUNBELTZ:

Ez aipatu! ez aipatu, ez.

LORE:

Egin dezun gaiztakeri dana
zeruko Jaunak barka bizaizu...

ZUNBELTZ:

Il zaitut;

nere Lore, nik il zaitut; nik il zaitut!

URRREA, URK. URDASP.:

Lore gaxoa! Oatu gogorra! gogorra!

TALDEA:

Lore gaxoa! zurea, bai, patu gogorra!

LORE:

Ez; ZIGORRA... zigor... zigorra... Ah! (II)

ZUNBELTZ: (Oyuka)

Ez!!

TALDEA: (Itzez)

Zigorra!

ZUNBELTZ: (Oyuka)

Ez!!

TALDEA: (Itzez)

Zigorra! zigorra! zigorra!

ZUNBELTZ: (Oyuka)

Ez!!!

TALDEA: (Itzez)

Zigorra! zigorra! zigorra! zigorra! zigorra!

URREAK, URK.,URD.:

Ez-bearra! ez-bearra! ez-bearra... Gaxoa!

V AGERTALDIA

[Zunbeltz'en illeta bere alabari. Erriak gogor egiten dio Zunbeltz'i. Zunbeltz basora betiko].

ZUNBELTZ:

Au zorigaitza! zorigaitza! au zorigaitza!

Alaba il det, il alaba, neronek...

(ZUNBELTZ)

Loretxo! Loretxo gaxo, nere alaba maite bakarra...

TALDEA: (Itzez)

Basaritzarra!!

ZUNBELTZ:

Gaur arte beti izan zaitut nere zorion;

gaur, berriz, nere zoritxarra.

Loretxo! Loretxo gaxo!

Aitaren besoan, len seaska goxo;

gaur, berriz, dezu usterik-gabeko eriotza.

Eriotza, nola bañan?

Aitaren eskuan ezpata zorrotza...

EMAKUMEAK:

Ah!

GIZASEMEAK:

Itzalle!

ZUNBELTZ:

Lore laztana! Amarik gabe azi zaitut neuk

nere egunen pozkarri.

Ail bañan alperrikan;

gaurtandik etzaitut pozkarri;

gaurtandik enere zartzaroan arri...

TALDEA:

Urkatu adi! zertan ago?

Zertarako dek ezpata?

Alaba il dek! zertan ago?

Urkatu, urkatu adi!

URREA, URK. URD.

URDASPAL:

Seme bat nuan nik eguzkia bezelako;

seaskan gizon onek il zidan...

bañan barka diot...

TALDEA:

Itzalle da! zigor!

ZUNBELTZ:

Ez, arren! ez, arren!

TALDEA:

Onek odola zor du;

orain da ordu;

urka dezagun...

ZUNBELTZ:

Jaungoikoarren!

barka, barka, barka, barkatu!

Jaungoikoarren!

TALDEA:

Urkatu!! urkatu adi or!

ZUNBELTZ:

Oraina itortzen det nere okerra.

ZIGOR, auxa bai zigor; (Basora dijoa)

auxa bai zigor!

zigor, zigor, zigor...

VI AGERTALDIA

[Leire'ko fraideak, Lore'ri lur ematera. Santxo Gartzeiz'ek illeta garratza bere maite kutun Lore'ri. Erriak Errege berriaren ereserkia].

URREA, SOPR. CONTR.: (Lantugian)

Ah!

URKO:

Nere Lore! nere Lore! nere maite doakabea!
 Odoletan gorri,
 gorputzik ikusten zaituz,
 gorputz ete negargarri,
 len beti nere poza ziñan ori.
 Eriotzaz batek eraman zaitu gaur nere ondotik,
 ametsik onenak,
 ametsik goxoenak
 nituanean, gau ta egun, zugatik:
 ni zuretzat,
 zu neretzat,
 gaur bertan nintzala ni zure jabe...
 Bañan Erioak eraman zaitu gaur nere ondotik
 – arnas-eziñean dagon txoria bait-nauzu geroztik–.
 Orra !! nere Lore! ez diot len ez dakizunik:
 Eriotzarrak eraman zaituan ezkerre nere ondotik,
 zertarako det Errege izatea? zertarako, zu gabe?

TALDEA: (Baj.)

Santxo Gartzeiz, Mendietako eta Naparren Errege!
 Gure Errege! Gure Errege!

TALDEA: (Ten.)

Santxo Gartzeziz, Gure Errege!
 Gure Errege! Gure Errege!

URDASPAL:

Santxo Gartzeiz! Gure Errege!

URKO-SANTXO GARTZEIZ:

Ay Lore! Ay Lore!
 Nere maite! nere maite!

AMAYA



Bere iloba Juan Marirekin

MANUEL LEKUONA

XANETE ESNEKETARI

**Umetxoentzako
dantzadun
Sainetetxoa**

Dalcroce'ren Musika-«Perrette»



LENENGO ERDIA

1'GO. AGERRALDIA

GARBIKETARIEN CHORUS

Ur garbi-garbitan
garbi zapiak.
Legortuko ditu
gaur eguzkiak.
Jabora, marruzka,
biurri, toles...
Aupa! dagigun lan
geroko pozez!
Eguzki goxoak
esian diz-diz;
aizetxo epelak
ostatan pil-pil...
Gonatxo, atorrak,
azkar saskira...
Aupa! saskitxoak
bizkor esira!

BATEK: Ala ere, bukatu degu! Ordubete ta geiago da lanean ari naizela.
Zu ere bai, Axentxi.

BESTE BATEK: Bi, berriz, eguna argitu baño lenagotik... Brrr... Bai otza
ura!

BESTE BATEK: Oraindik bi saski eramateko... Oiek eramatean,
gosaltzera. (Axentxi'ri) Ia, eldu ortik!

2' GN. AGERRALDI

XANETE' REKIN

Guztiok: – Nun zabiltz, Xanete gaxoa?
nora zoaz oraingoz?

Xanetek: – Bordara, nere auntsatxoa
yeiztera, goizean goiz.

Ain esne zuri-gozorik
ez du iñork edan iñoiz...

Guzt. – Esne-lanak onak dira,
Xanete maite;
bañan astiro-astiro
ibilli zaite.

Axentxik: – Mesedez, Xanete bixkorra,
egin zaidazu lagun:
saski au ia bion arte
eguzkiratzen degun...

Xan. – Ni gobaraketan ari?
Amets egin al-den gaur?

Axen. – Ez gero, Xanete maite,
muxiñik egin:
bigar zerbearko diñan
iñork etzekin...

Xan. – Nik gobara-jotzalle oiei lagundu? Jajai... Bai ederki eman erel
Zeñek, eta nik? Esneketari aaaberats onek? laister Aizkorbe'ko
Ettxekoandre izango naizen onek? Jajail... Ez dezute gutxi nai...

ZAPI-DANTZA

3' GN. AGERRALDI

A) – Atorratxoak gera gu.
– Gu, berriz, gona txiki;
lokarrietan zintzillik
dantzan gabiltz poliki.
aizeak jotzen gaitunean
(txistu-soñu ta tuntunean,
jo zan arontz, ta jo zan onontz)
emen gabiltz bixi-bixi,
atorra, gona-gorontz...
Jo zan arontz, ta jo zan onontz,
jaupal jaupal bizi-bizi,
atorra ta gorontz.

B) – Soñeko ariñak gera.
– Gu, amantal txikiak,
– Gu, galtzerdi.
– Esku-zapi.
– Burko-azal txuriak.

Aizeak jotzen gaitunean,
 (txistu-soñu ta tuntunean,
 jo zan arontz, ta jo zan onontz)
 emen gabiltz bixi-bixi,
 atorra, gona-gorontz...
 Jo zan arontz, ta jo zan onontz,
 jaupa! jaupa! bixi-bixi,
 atorra ta gorontz.

Garbiketariak:

– Garbiketari bixkorak
 gogoz saiatsu gera.
 Orain saskiak artu-ta
 guazen arin etxera.
 Bañan oraindik dantzatxo bat
 agintzen bait-din aizetxoak...
 jo zan arontz, ta jo zan onontz,
 (mutillentzat prakak, eta
 nexkentzat gona-gorontz)
 jo zanarontz, ta jo zan onontz
 lanak azkar egin-eta,
 dantza, dantza gogoz.

Axentzik: – Eta orain sagar gorriak artzera...

Beste batk: – Oiil au bai polita!

3'gnak. – Begira au zeñen biribilla! Gabiltzan pirrika.

4'gnak. – Onek, berriz, eguzkia dirudi. Au ditziza!

5'gnak. – Au bai dala gorri-gorria! Eutsi, or-tzian!

6'gnak. – Nere onek, berriz, odola zirudin gorrian.

Danok: – Oiil eta onek? Eta onek?...

SAGAR - DANTZA (ITZIK GABE)

BIGARREN ERDIA

1' NGO. AGERRALDI

XANETEREN DANTZA

Ba'det nik esne,
 bunbullun-bunbullete,

Donostian saltzeko;

ba'det nik esne,

 bunbullun-bunbullete,

txanpontxoak artzeko,
bunbullun,
txanpontxoak artzeko.

 Txanpon gorri, zillar zuri...
au poxa biotzean!
bat, bi, iru, sei urregorri;
berrogei bigar goizean...

 Erosiko det,
 bunbullun-bunbullete,
ollo bat arrautzakin;
erosiko det,
 bunbullun-bunbullete,
kolka txito-sallakin,
 bunbullun,
kolka txito-sallakin.

 Txito txuri, antzara beltz...
au poxa biotzean!
bat, bi, iru, sei txerri aketx;
idi-pare etzi goizean...

 Erosiko det,
 bunbullun-bunbullete,
erun ardidun artalde;
erosiko det,
 bunbullun-bunbullete,
Altzorbe'ko Etxalde,
 bunbullun,
Altzorbe'ko Etxalde.

 Laister naiz Etxekoandre...
au poxa biotzean!
Etxekoandre zabala
ni etzidamu goizean...

Eta orduan danak – «Agur – esango didate–; agur, Altzorbe'ko Etxekoandre zabala!». Eta nik orduan, pozez gañezka, burua makurtuz, «Agur!...». Ail! au lana!! Ederra egin det! Esne-ontzia lurrera... nere urreak, nere olloak, nere artaldea! orra dana galdu...

2' GN. AGERRALDI

TXANPON – , EGAZTI–, ABERE-DANTZA

 Ol beltzeko mai-gañean
ontz-urre gorri,
illargitxoak endanan
bait-dute iduri...

Asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 – triki-triki, triki-triki –
 asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 – kriskitun, kraskitin,
 txintxin, txintxin –
 urre gorriak dantzan, bai, arin!
 – txintxin, txintxin –
 urreak dantza... Xanetetxoak min.

Burua xut, emen gatoz
 txito, antzara,
 bildotx, ardi eta antxume,
 danok dantzara...

Asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 – triki-triki, triki-triki –
 asten ba-da bata dantzatzen
 dantza arin-arin
 – kriskitun, kraskitin,
 bee, mee...–
 auntx, ardi, bildotxak parra egin...
 – kua-kua, pi-pi –
 guztiok parra... Xanetetxok min.

Xanetek: –Nere baserria! nere jauregi ederra! Oraintxe laister etxeakoandre
 apain-apain jantzi bear nuana ... ta orain, gobara-jotzalleak baño
 beartsuago ... ta dana zikindua... mantal dana auntz-esnez kopetua
 (negarrez)...

3' GN. AGERRALDI

ETXE-DANTZA

Begira etxe txuria
 txuri, txuri,
 tellatu zabala, tellatu gorria
 gorri, gorri;
 neguan ateak ondo itxita,
 uda etortzean dana idikita
 – trala-la, trala-la-la-la –
 oi! zeñen baserri txukun-polita!
 Orra jauregi berria
 berri, berri,

mendi-bixkarrean eroso jarria
jarri, jarri;
tellatuak zillar, ateak urrez,
zuraki guztia, zedro-egurrez...
Bañan, ai! Xanete´rentzat
esnea ixuri-ta, dana gezurrez...

Axentzik: – Zer dezu negarrez, Xanete? ... A! esnea ixuri! ... Ori ez da ezer...

Xan. – Ainbeste amets egin, ta orain ezer-ez. Jauregian biziko nintzala, ta apain-apain jantziko nintzala... ta orain dana utsa, dana galdu. Zer gosaldurik ere ez... ta mantala, dana, esnez zikindua...

Batek: – Oi? Zikindu? ta orrek estutzen zaitu. Ez gaude gu emen garbiketari makalak, garbitzea nai ba-dezu... la bota onara mantal ori. Laister asko dezu garbirik. Eztago, gañera, eguzki txarra legortzeko...

Beste b. – Utzatzu negarrak alde batera, Xaneta, eta atoz gurekin gosaltzera. Etzazula geiago ametsik egin, eta kito. Obe dezu zuk ere lanean jardun ta jardun, amets zororik egin gabe.

Xan. – Zeñen onak zeraten! Ni baño makifña batez obeak. Oso txoraa izan naiz ni zuen aldean. Txoraa ta gaiztoa... Barkatzen al-didazute dana?

Axen. – Ixo, ixo! Zer barkatu gero! Guazen danok gosaltzera.

Xan. – Bai, bañan parra egingo didazute zuek. Nere ametsetako jauregiak eta...

Axen. – Ez, Xaneta, ez; ez dizu emen iñork zuri parrik egingo.

Xan. – Eskerrik asko; eskerrik asko. Adiskide leialak arkitu zaituztet gaur nik. Orain ezagutu zaituztet. Eskerra nere amets txoroai. Bestela etzinduztedan ezagutuko.

Danok: – Gora gure Xanete! Gora gure Xanete!!

4´ GN. AGERRALDI

AZKENA

Xanetek: Txoro onek ametsetan


baserri ta artalde
nitualako ustetan
esnea bota det.

Goizean goizik parra;
eguerdin negarra...
orixe zalt gertatu.
Maiteok, barkatu!

Danok: Lanean etsi zagun
Jauna dakigun lagun.
Ez ametsikan geiago...
lan gabe janik ez dago.
Utziz bide zoroa.
gerta zegun «geroa»

Gasteiz - 1933 - I.

Lasarte - 1951 - IV - 9.



Ozenzioko ermitan.

MANUEL LEKUONA

ANTZERKIA
EUSKAL HERRIAN



ANTZERKIA EUSKAL HERRIAN

Protesta bat egiñez asiko naiz.

Nere itzaldi onen izenak, galdera bat esan nai du: Bai al da Antzertirik Euskal Errian? Noiztandik?

Galdera oni ez zaio geienian erantzunik bear bezela ematen. Euskal-teatrua, euskal-antzerkia XIX gizaldian asia bezela presentatzen da. XIX gizaldia baño leenago gure artean Teatrorik, Antzerkirik izan ez balitz bezela.

Oraintsu irakurri det Ignacio Zumalde-ren artikulo bat errebista batian: eta arek ere gure Teatroaren asierak Martzelino Soroagandik artzen ditu. Martzelino Soroak 1870ean Karlista-gerratian Donibane Loitzunen kuadro bat osatu zuan, eta entretenigarri euskal-pieza batzuek ematen asi ziran, gerra-igesi emendik joanda an zeudenak. Ortan jartzen dute gure Teatruaren asiera: artean euskal-teatrorik izan ez balitz bezela.

Gauza gaizki plantiatua. Orduan asiko zan, behar bada, Teatro eskribitua, Teatro Moderno delakua. Bañan Teatro Modernoz gain bai bait da beste Teatro-modu bat ere: Itzezkoa. Ikustagun.

Itsumen aundi batian bizi gera kultura-gaietan. Eskribitua beste kulturarik munduan ez dalakuan bizi gera. Eskribitu gabeko kulturarik munduan ez balitz bezela. Itzezko, itz-utsezko kulturarik ez balitz bezela. Iritzi okerra bait-da ori. Euskal-kulturarik ederrena itz utsezko kultura da. Asi gure legeetatik eta gure bertsolaritafñoko kultura, Euskal-Errian kultura **kultura oral da**. Kultura oral itzezko, itz-utsezko kultura.

Parragarri iruditzen zait neri, Euskaldunak Legerik izan ez degula esaten dutenak, XIV-XVI gizaldia arte, gizaldi artan kodifikatu ziralako, **orduan eskribitu ziralako**. Parragarri, negargarri, ez balitz... Ala bait-da, izan ere. Eskrituraren adoraziuan bizi gera. Eta eskribitua ez dagonik munduan ez balitz bezela. Kultura **oral**-ik ez balitz bezela. Gure Legiak, XVI gizaldi arte lege ziran; **fueros, buenos usos y costumbres**, esan oi-zan bezela; **legislación consuetudinaria**. Euskalduna beti **itzeko gizona** izan da; papera eskribituari baño indar geiago itzari eman diona. "Itza itz" izan da beti euskaldunaren lema. Eskribitua behar bada, ukatuko dizu; bañan bein ere ez emandako itzik.

itzak gure artean garrantzi ta indar aundia izan du.

Berdin gertatzen da baita beste kultura-gaietan ere. Literaturan; Olerkian; Musikan; Dantzari;... eta Antzerkian. Euskeraz lenengo-lenengo idatzi diran olerkian, dakizuten bezela, Etxepare-k **Linguae Vascorum Primitiae** izenaz argitaratuak izan ziran. Artean Euskal-errian ez al-zan

Oleririk eta Olerkirik? Ederrak geundezkel... Euskal-literatura orduan asi al-zan? Bi milla urte bazan eta geiago seguru asko, Euskalduna bere kantak kantari bizi zana bere artzantzako zeregiñetan. Zer gertatzen da guzti ontan? Euskaldunak literatura oral-en barruan bizi giñala artean; bañan ez bilutsik; naiko olerkiz jantziak eta apainduak baizik. Azkue-k eta Aita-Donosti-k bildutako kantuak daude ori esaten. Bi milla kantu aiek danak, itzez-itzez esaten eta kantatzen ziran; etzeuden idatzita.

Berdin-berdin gertatzen da, bada, Teatruarekin ere. Teatru eskribiturik gutxi izan degu. Bañan Teatro **oral**? itzezko Teatru? Bai, Jaungoikuak nai badu! – Noiztandik? – Betidanik...

Bañan ikus dezagun lenengo, zer dan Teatrua.

Zer da Teatrua?

Antzerki, Antz-ederki esan oi-diogu gaur. Martzelino Soroa-ren denboran **Jost-irudi** esaten zioten. Bi izenak batera datoz. **Irudia** ta **antza**: biok gauza beratsua esan nai dute: "Benetakoa ez dan gauza". **Ficción** esango litzake erderaz, eta **antz irudi** orrek, Teatroaren gauzaren muña esan nai du. Eta beste **Jost** orrek, teatruaren zeregiña, teatruaren **finalidadia** erakusten digu: jostatu, jolastu. Guzira, beraz, Teatrua da "Entretenigarri, ta jostatze-zuri, egitendan irudi bat".

Umiak ere beren jolasetan, aundien irudiak egiten dituzte; irudiak, siñuak, imintziak; ez dira benetan aritzen, jolasian baizik... Gizon-egiñak ere ume biurtu nai izaten du noizian-bein: eta umiak bezelaxe, berak ere **benetako** bizitzako irudi, siñu ta imintziak egin. Orixe da Teatrua. Entretenigarri? – Bai. – Bañan "entretenigarri bakarrik"? – Eta erakusteko; eta okerrak zuzentzeko, korrejitzeko; eta okerrak zigortzeko, saritzeko, kastigatzeko ere... Orixe da Teatruaren zer-egiña.

Bañan utzi dezagun zer-egiñari finalidadiari dagokion gauza au; eta ikustagun zenbat Teatro-klase diran munduan.

Teatrua Grieguen artean Beren Jaungoikuen eta Heroe-jendearen goraberak agertzeko izaten zan. Teatro Religioso-Nacional esango gendukeana. Bañan ori Tragedietan gertatzen zan. Ba-zuten beste Teatorik ere; komedia, erriko oiturak kritikatzeko ta. Orra or, bestiak beste, teatro-klase bi.

Berdin gertatzen zan baita Erromatarren artean ere.

Europa-n Erdi Aroan Teatrua batez ere Teatro Religioso izan zan. Misteriuak, Santuen Bizitzak eta Milagruak eta agertzeko.

Bañan ba-dira baita beste Teatro-klase asko ere. Besteak ikutuko ditugu guk batez ere, gure arirako – Euskal-Teatorako – ondodatozenak:

Pantomima eta Fartsa.

Fartsa, parra eragiteko gauza disparatuta-antza bat da.

Pantomiman, berriz, itzik gabeko Teatrua, dana imintzioz egiten dana: gaurko **Ballet**-modura.

Eta asi gaitezen ikusten gure Teatro oral edo itz-utsezkuan nola sartzan ziran bi teatro oiek: Pantomima eta Fartsa.

Eukal-dantza asko ta asko, Teatro dira: **Pantomima**.

PANTOMIMAK. – 1) Zuberoa-ko Dantzariak, erri batetik bestera joatian, sarrera **barrikada** topatzen, eta gelditu-ta, aurrera-atzerak egiten, ezin sartu errian alegia, eta azkenian salto aundiz barrikada menderatu ta sartu... Dana dantzan, balletian, itzik esan gabe... Pantomima jatorra. Berdin baita erri-barruko geroko desfile guztiak, erriaren jabe, alegia. Eta erriari ori gustatzen: pantomima gustatzen...

2) **Jorral-dantza.** Arta-jorraren pantomima... Artua jorratu makur-makur eginda. Gero erdi-alboka, zaragitik: makil-kolpe batzuen ondoren zaragia jo... Pantomima polita, par-irriduna, zaragiaren otsagatik.

3) **Txakarrenku-dantza.** Norbait burrukan il, eta ura buru-gañetik jaso illa bezela, eta ari dantza eginbeste guztiak... Pantomima inpresiogarria.

4) **San Migel Arretxinaga-ko.** San Migel-en etsaiarekiko burruka; eta garaitzaillaren gorazarrea, ezpataen gañean – ezpatak kurutzetua ta – ... Pantomima ondo logratua.

5) Lekeitio-ko **Kaxarranka.** Kofradiaren gobernua pantomiman. Kofradiko Nagusia goratua: kutxaren gañian dantzari, dantza arin baña errespetu aundikuan. Pantomima **zibikua**, Agintaritzaren goralpenekua. Agintari ta Bandera.

6) Mendexa-ko **Mai-ganeko.** Agintarien Pantomima: Bazkal-ondoan maigañera igo, ta mai guztia korrituaz, dantza eginbatetik bestera. Kaxarrankaren ari berekua.

7) **Lantz-eko perratzalliak... Zuberoa-ko Zamaltzaina...**

Arritzekua da, batez ere, erriari – erri xumiari – nola gustatzen zaizkion Pantomima oiek. Eta nolako txaluak jotzen zaizkien dantzaia, pantomima-zaliai...

Eta pantomima, teatrua da, Antzerkia da, Jostirudia da, Balletaren ariko Teatrua. Jostaketan egiten da. Ez deporte bezela; zerbait-esan-naian bezela baizik. Antzerkia da; irudiduna. Jost-irudi jatorra. Itzikan gabia ezik. PANTOMIMA...

Orra or, gure erriak betidanik ezagutu duan Teatrua, Antzerkia, Jostirudia. Eta ez da nola-naikua; Teatrorik. modernuetan modernuenetakua: Balletaren parekua, Balletaren arikua... Bañan guzti ori, teatro mutua da. Ez al-degu izan Teatru mintzaturik? Izketako teatrorik? Ikustagun.

FARTSAK. – 1) Zuberoa-ko **xari-bariak**; Ataun-go **Zelemín-ta-Zelemonak**; Uitziko **Errondoak**. Ez dira Pantomima jator; ba-dute itz, eta alkar-izketa. Alkar-izketa parragarri-parragarriak. Ijituen ezkontzatrakua-ta bezela. Parrez lertzeko modukuak. Etxeetako gau-bellatan egiten ziran.

Artatxuriketan eta liñu-lanetan. Lan egin ondoren. Bitartian ipui-kontatzallaren batek ipui-kontari langilliak entretenitu-ondoren bukaerako teatro-pixka. An esaten ziran gauzak, etziran mallarik goienekua izango; bañan bai erriak bere teatro-gogua ongitxo erakusteko egokiak ori baita da orain emen adierazi nai nukeena: erriaren gauza oietarako gogo ta apiziuia.

Artatxuriketak aaztu ziran; liñulanak aitu ziran... Bañan gauza oiek izan dira Euskal-errian.

Ikusten dan bezela, entremes bezela ziran. Sainetetaraño etziran eltzen. Bañan, nola-nai-dala, teatro, antzerki; antzerki elemental; bañan antzerki.

Artatxuriketaz beste, **Pastoraletan** egin oi-dira olako entremesak oraindik ere. Ni neroni ikusia nago olako numero bat **Atarratzen** Pastoral batian: Pastoral a ten, eta jendiaren lasaigarri olako numero parragarri bat: artzai bat sei-bat ardirekin, tratalari batekin tratuan... tratalaria trapua, bañan baita artzaia bere ... ardien artean bat itxua saldu nai; orren ondoren, arrazoi parragarriak bion artean...

Artatxuriketan **Zelemín-ta-Zelemon**, askotan ezkontza-tratu izan oi zan: mutillaren ama ta neskarena elkarrekin, alabari zer diote emango... zelebrequeritan (vid. Orixe-ren Euskaldunak).

Lasarte-n oraindik urte asko ez dirala, olako fartsak egin oi-ziran: geienetan, gaia, gaizkille baten juiziua: an Jueza, an Fiskala, an Abogadua, an testiguak, zeñek baño zeñek disparate aundiaguak esan... eta azkenian gaizkillia erretzeko sententzia Juezak... Bañan erre, etzuten gizona erretzen, aren itxurako lastozko Domingillo bat baizik, Txori izugarri bat, jendiaren algara artean...

Zuberoa-n txari-bari bezela olako juiziua egin oi-zituzten, bañan ez lapurretatik-eta, beste sakonagoko guzengatik obeto; neskazar ta mutilzarren kontuen gañetik-eta...

Zelemín-ta-Zelemon-etan ijituen Ezkontza-tratua egin oi-zan: bi atso aurrez-aurre, koltxaz mozzorro-bezela jantziak bata eskoba eskuan, bestiak makil baten muturrian eltze lurrezko bat... eta arrazoitan ari ondoren, eskoba-kertenarekin eltzia jo ta mila puska egin... eta jendiak algara.

Fartsa oietan etzan beste munduko arrazoi me eta fin-fiñik esango; bañan ezin uka diteke, ba-zala an grazi ta piper eta **situación cómica** esango gendukian asko ta asko... Teatrúa: Fartsa-teatrúa, munduan beste lekuetan izan oi-zan bezelakua; ez geiago, bañan ezta gutxiago ere.

Bañan pasa gaitezen beste goragoko mallako Teatro batera: Pastoralak.

PASTORALAK: MISTERIUAK.—

Zuberua-n. Testamendu Zaar eta Berriko Historiua. Lau ta bost orduko funtziua. Erriko Plazan. Barrika batzuen gañian olezko lurra. Aurrez-aurre bastidorezko fondo bat, bi aterekin: bata Zerurakua ta bestia inpernurakua. Personajiak, batzuek onak, eta bestiak gaixtuak (gaixtuak, Turkuak). Onak zeruko atetik, eta gaixtuak inpernukotik. Bastidoriaren gañian "orkesta" (lau edo bost instrumentodun banda txiki bat).

Prologo batekin asiera. Segituan alkarrizketak. Dana bertsoan: eta dana kantatua (kanta semitonatua). Bertsuak, distikuak (bi erditan); erdi bat kantatzian, kantaria aurrera; eta beste erdian, atzera, ta atzeraka (ez

da libre, erriari atzia ematerik). Eszena batzuen ondoren, antremesa: dala farts, dirala dantzak (Dantzariak oso iaiuak, Satanak). Aldian – bein melodidun kanta polita (Aingeruak - eta kantatzen dutena). Burrugarik baldin bada, ezpatak aterata, ezpata-dantzan bezela. Eta iñor iltzen baldin bada, lenengo koltxa bat lurrian zabaldu, eta aren gañera erori (erropak ez zikintzeko). Bonbardeo bat, eskutada artale Plazaren kontra bota.

Erdi-aroko Misteriuen antzeko usaia. Bañan zenbait detalle zaarra-guak ditu: kanta-artean atzera ta aurrera joate ori, batez ere. Ori Griegoen denborako – orain iru mila urteko – gauza da. Orduko **strophe** ta **antitrophe** (munduan ez bait-da beste iñon kontserbatzen gauza onen aztarrenik). Orain, eskribituak. 75 bat kuaderno munduko Bibliotekarik sonatuenetan.

Zuberoa-n Pastoralak bezela, emen Gabon-sariak izaten ziran. Arrasaten kontserbatu da bat, Barrutia batena. Bertako Iskribaua bait-zan Barrutia ori. "Gabonetako ikuskizuna" du izena Misterio onek. Eta dana kantatzekua bide-zan. Bañan, Pastoraletan bezela, tartian ba-du personaje parragarri bat, beti ere, Misteriuari begira egonez, erria aspertu ez dedin. **Depuración de afectos** esan oi-dana, alegia. Eta ba-dira Satan-jende ta Aingeru...

Azkoitia-ko ere ba-da beste olako bat Konde de Peñafloidak argitaldua: "Gabonosariak" deritza.

Eta orain agertu da, A. Larramendi-ren paper-artean, beste olako bat, Bizkaiko euskeraz, "Gernika-ko Gabon-kantak" deritzana. Bi gizon alkarrizketan: bata bizkaitar jatorra; eta bestia, euskaldun berri, euskalgaitz oietakua. Polita bera. Eta kantuz ematekua: **opera lirika** bezela...

Konde de Peñafloida-k, berak idatzi ta argitaldu zuan baita beste opereta bat ere – erdi euskera ta erdi erdera – **El Borracho burlado** deritzana.


Guzti au XVIII gizaldian zan.

XIX gizaldian así zan gaurko **"Teatro moderno"** esan dezaiokegun Teatrua. Bestiak beste, lenengo saiua 1870 inguruan egin ziran, Donibane Loitzunen, Karlista-gerratiaren igesi ara joandako euskaldunen artean. Martzelino Soroa izan zan komediografo. Egilliak, Toribio Altzagata. Gero Toribio Altzaga-k jarraitu zion Soroak asitako ianari. Gero Abelino Barriola-k etab...

Gure "Eun Dukat"... 1913... Nik Sainete bezela egin... Gure Martin-ek Drama-itxura eman... Nik Ramus Artzaia, aiton zurkitu bezela, azkenian parragarri. Martin-i pena ematen, eta berak beste jite berria eman: artzai jator... Zartzueta bezela pentsatua. Ba-du bere koru. Argumentua dana folkloretik artua; ez du, nik orain asmatutako trama ta desenlaze; dana erriaren aotik artua. Erriak obeto xulatzen bait-du ola. Personajiak ere errikoi-errikojak. Baita Aztia bera ere. Gaur naiko galdua; bañan ezkutuan bederenik oraindikan bizi dana. **Adivinadora**, alegia.

Teatrorik izan al-du gure Erriak? noiztandik?

Bi galdera oiei erantzun nai izan diet itzalditxo onetan. – Teatrorik izan al-du gure Erriak? – Bai. Noiztandik? – Betidanik. – Eskribitua? – Ez; itz utsezkoa. Gure Legiak bezela, gure Literatura bezela, gure Olerkiak bezela, gure Musika bezela: gaur arte eskribitu gabia. – Zenbat klase? Itzezku ortan, gutxienez iru: Pantomima. Fartsa ta Gabon-sari, Pastoral edo Misterio; gaur baita Teatro berri eskribitua ere. Au zuek zeurok nik bezain ondo dakizute. Nik beste Teatro-modu ura agertu nai izan dizutet: Teatro itzezkoa, eskribitu gabia.



Iñaki Begiristain, Manuel Lekuona eta Juan Mari Lekuona